



IMANOL SORIANO

Ongietorria egin diote atez atekoari

Natra Oñatik iguera faseko hiru partidua galdu ditu | 24



Aldartean eragiteaz gain, eguraldi txarrak kontsumo joeretan ere badu eragina | 2



Arrasate Margo Taldeak arte azoka egin zuen zapatuan | 30



Negarrari eutsi ezinda

Mondra futbol taldeak maila galdu du. Zapatuan Ondarroako Aurreraren kontra 0-3 egin ostean, irailetik aurrera Erregional Preferentean jokatu du. Etsipena nabaria zen jokalarien zein Mojategin batutako ehunka zaleen aurpegietan. | 22

Lutxo Iturrino entrenatzailearen aurpegiak zein Andres Castillejo jokariaren malkoek agerian lagatzen dute taldearen etsipena. | MIREIA BIKUÑA

Kortazarrek ez zuen Aizkorriko maratoia bukatu

"Hasieratik sentsazio txarrak" izanda, laga egin behar izan zuen lasterketa | 26

"Tratamenduei esker, minbizia duten umeen %80 osatzen da"



Jose Luis Fernandez | Aspanogiko presidentea | 7

Omenaldia egin diete Bergara eta Arrasateko nagusiei | 13



Ajuria, Belastegi eta Mendizabal. | UEMA

Aramaion egingo da aurten Uema Eguna, ekainaren 8an

Aire berria euskarari lelopean egingo da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen jai eta "oraindik orain, euskara bere sorlekua bila ezinik" dabilela salatuko dute, besteak beste. 17 urteren ostean ospatuko da berriz Aramaion. Egun osoko egitaraua prestatu dute. | 11

Urgain eskolak kolorez jantzi ditu asteburuan Oñatiko kaleak

Eskola publikoa "denona" delako irten ziren kalera | 13

Elay lantegia omendu zuten atzo Ibilaldian euskaraz lan egin daitekeela erakustearren | 4

Herritarrekin ospatu dute urtemuga

Arrasate Musikalek jai egin du kalean 40. urteurrena ospatzeko | 31



Herritarrak dantzan, zapatuan, bandaren kontzertuan. | JAGOBA DOMINGO

Baikorrenaren animoa ere apaltzeaz gain...

- ▶ Eguraldi txarrak eragina du kontsumo joeretan
- ▶ Terrazetan jarri ez, fruta eta barazki gutxiago erosi...



Aterkiak eta zeru grisak paisaiako ezinbesteko elementu bihurtuta daude aspaldian. | JULEN

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Aspaldian beste konturik ez da: "Noiz arte giro triste hau?". Aspaldian, *aspaldiegian* –salbuespen apurren bat salbu–, zeru grisak, euria eta hotza ditugu gurekin. Eguraldiak askori umorean eragiten digula gauza jakina da; baina, umorean bakarrik? Ez, noski. Arropa dendetako kutxetan ere igartzea guztiz normala da –edo terrazatik *bizi* diren tabernetakoetan– eta ez dugu ezer deskubrituko hori esanda. Baina estetika zentroetan? Bizikleta dendetan? Fruta-dendetan? Galdetu egin dugu.

Arropa dendak, motel

Bergarako Zubikua dendakoa da Kristina Agirreurrutia. Bere esanetan, eguraldiak eragin handia du salmentan: "Giro honekin jendea neguko jantzita dabil. Ikusten da jendea botekin, berokiarekin... Guretzako izugarriko kaltea da". Agirreurrutiak nahi luke apur bat epeltzea eta beherapenak aurretik saltzen hastea: "Guk, printzipioz, apur bat eustea nahiko genuke. Ze bidea ez da deskontuak jartzea, nire ustez. Gertatzen dena da bakoitzak bere egoera ikusi behar duela".

Zubikuakoak dio eguzkia agertzearekin igartzen dela mugimendua, giroagatik beharra ikusi arte ez dela jendea erostera animatzen: "Neguko jantzita baldin bazabiltza ez duzu pentsatu ere egin nahi kamisetekin". "Hau desastre bat da", dio: "Ni 30 urte noa dendan eta udaberri euritsuak izaten dira, baina halakorik nik

ez dut gogoratzen. Balitz euria egiten duela baina temperatura ona, zerbait; baina hotza nola egiten duen...".

Bergaran bertan, barruko arropak, pijamak, bainujantziak... saltzen dituzte Iratxon. Edit Eguren argi dio: "Kokoteraino gaude eguraldiarekin. Ona egiten ez badu, jendeak ez du erosten. Egun, jendeak erosten du beharra duenean, eta momentuan beharrik ez badu ez da saltzen". Beste maiatz batzuekin alderatuta gauza oso geldi dagoela dio. "Eta hau ez da gero erreuperatzen. Ez da berdina saltzen. Gero beherapenak datoz, eta jendeak itxaron egiten du. Bainujantziak, udako pijamak... orain ez badituzu saltzen, gero ez dira saltzen".

Eguzkia atera orduko igartzearena hala dela dio Eguren, baina normalena hori lehenago gertatzea dela, askoz lehenago: "Bainujantziak erosten-eta Aste Santu aurretik hasten da jendea, eguraldi ona egiten badu; baina aurten ez".

Aretxabaletan umeendako arropa denda du Amaia Elortzak. Aurrekoen antzera mintzo da: "Ekainera iristen ari gara eta jendea ari da aurreko urteetatik-eta duen arroparekin, ahal duen moduan. Niretzat lehen uda da denda zabalik dudala, eta ezin dut beste urte batzuekin alderatu; baina igartzen da arropa kontuan geldialdia, eta nik uste eguraldiak baduela zerikusia. Eguraldi txarrarekin jendea kalean ere gutxiago ibiltzen da, lotura zuzena du".

Beherapenekin ere gogoratu da: "Denok antzera ibiliko gara. Hilabete falta da eta genero asko izango dugu dendan. Jendea egongo da beherapenei begira". Gaitz-erdi, negua "ondo" joan zela dio eta; "negua joan", negua joan zen beraz, ematen ez duen arren, adibidez, tabernetako terrazetara erreparatuta.

Jende gutxi terrazetan

Arrasateko Txoko tabernako Asier Altunak dio igartzen dela "jende gutxiago dabilela". Eguraldi txarrari aurre egiteko balioko dioten karpa batzuk jartzekoa da, hain zuzen, orain; noiz eta maiatzean; gogorra da gero. Baina "udararako ere balio dute, eguzkia dagoenean itzaletan egoteko", Altunaren nabardura.

Eta beste hau ere badio: "Eguraldi txarra galera izaten da gehienetan, ze jendea gutxiago ateratzen da etxetik; baina kontrakoa ere gertatzen da noizean behin, eguraldi txarrarekin jendea barrura, epelera etortzea". Ogitaratekoak eta plater konbinatuak ematen dituzte Txokon terrazan, "eta jendeak, gehienetan, kanpoan jaten du eguraldi onarekin".

Beste hainbeste gertatzen da Bergarako Kayak-en. Eta Naiara Gartzia amorratzen dio: "Niri kobratzen dizkirate terrazako mahaiak, baina eguraldi txarrarekin ezin ditut erabili. Jaietan, adibidez, terrazatik bizi gara gu, eta terrazarik ez badago, lanean gauden denok soberan gaude. Iaz oso ona egin zuen eta jende asko ibili zen terrazan".

Aurten, eguraldiari bestelakoak batu zaizkiola dio, "krisia eta Salourako bidaiak 100 eurotan, desastre". Egiten duen hotza, gainera, maiatzekoa ez dela uste du, "otsailekoa" dela.

Eta ohi baino jende gutxiago dabil Arantzazuko Sindikako terrazan ere. Nola ibiliko da ba, bertako Julen Arabaolazarekin izan ginenean ere zortzi gradu baino ez zeuden-eta: "Azken hila-beteetan eguraldi txarragatik igartzen da jende gutxiago dabilela, bai bisitariak, bai mendizaleak. Mendiari dagokionez, eguraldi txarrarekin, igotzen direnak ere bustita egon eta dutxa hartzera etxera joaten dira".

Eta eguzki artifiziala?

Eta eguzki naturalik ezean, eguzki artifizialak eskari handiagoa izan dezakeela pentsa dezake batek. Baina ez ei da horrela, ez guztiz. Oñatiko Guztiz Eder estetika zentroko Arantzazu Txintxurretak dio jendeak ez duela hainbeste gogo solariumera joateko: "Ezin du egin planik, agian nahi du etorri baina ez daki hartuko duen koloreak balioko dion udako edo udaberriko arropak jantzeko. Jendea endredatuta ikusten da, zer egin ez dakiela. Sandaliak erosteko gogoarekin, baina eguraldirik ez du egiten. Arropa argiak ditu agian erosita, baina ezin ditu jantzi. Jendea etortzen da, baina nik uste nuen lehenago hasiko zela; aurreko astetik hona igartzen da jendeak bai edo bai nahi duela kolore apur bat hartu, eta gorputzari

ESANAK

"Bainujantziak erosten Aste Santu aurretik hasten da jendea; aurten, ordea, ez"

EDIT EGUREN | IRATXO

"Terrazatik bizi gara jaietan, eta terrazarik ez badago, lanean gauden guztiok soberan gaude"

NAIARA GARTZIA | KAYAK

"Jendeak ez daki hartuko duen koloreak balioko dion udako arropak jantzeko"

A. TXINTXURRETA | GUZTIZ EDER

"Jendeak ez du fruta jateko hainbeste gogo izaten eguraldi honekin; kalte egiten digu"

LIERNI ARREGI | ZARE

"Jende gehiago ibiltzen da giro onarekin, eta bizikleta ondatu ere sarriago egiten da"

MIKEL LIZARRALDE | LIZARRALDE KIROLAK

Momentua zaila izanda ere, positibo

Dendek –batzuek behintzat– martxotik dituzte udaberri-uda garaiko arropak erakuslehoetan; baina, saldu, saldu apenas egiten den, eta negukoago diren jantziak ere ari dira oraindik eskatzen hainbat. Eta udako beherapenak iritsiko dira laster, eta dendak genero askorekin; bezeroak agian pozik, dendariak ez hainbeste.

Barruko arropa eta bainujantziak saltzen dituzte, besteak beste, Arrasateko Sikol-en. Bertako Yolanda Sanchezek dio eguraldiak denean eragiten duela: "Kanpoko arropan, barrukoan, mentalitatea beste bat da. Desberdintasuna igartzen da eguzki apur bat ateratzen den eguna izan edo hotza eta euria egin. Eguzki izpi gatzuk agertu orduko igarri egiten da asko. Jendeak badu gogoa koloreak aldatzeko eta positibo izan behar dugu, hilabete batzuk badaude-eta oraindik".



Arrasateko Sikol dendako erakuslehoia. | JULEN IRIONDO



IRIONDO

LIDE GOMEZ | BERGARAKO EROSKI BIDAIAK

"Udako oporrak lehenagotik begiratzen hasten da jendea eguraldi txarrarekin"

Dirua eta denbora edukiz gero, ihes egitea izan daiteke eguraldi txarretik, aldi baterako behintzat, libratzeko modua.

Eguraldia ona edo txarra izan, igartzten al da zuen jardunean?

Asko igartzten da, determinantea izaten da. Eguraldi txarrarekin hiru gauza gertatzen dira: aldatzen dira oporretarako lekuak, eguzki bila joanda —adibidez, hemen inguruan, penintsula iparraldean geratzeko asmoa zuenak plana erabat aldatu eta Andaluzia aldera joaten da, Almeriara esaterako, eta baita Kanarietara ere—; bestetik, udako oporrak lehenagotik begiratzen hasten da jendea, ze eguzki gogoa du eta erabakitzen du alde



J.I.

aurretik programatzea; eta igartzten da asteburuko eskapadak falta direla. Eguraldi onarekin animatzen gara Nafarroara, Errioxara edo Kantabriara joatera, eguraldi txarrarekin ez.

Eguraldi txarra luzaroan eginda, jende gehiagok erabakitzen al du kanpora joatea?

Agian ez da jende gehiago ateratzen dela, batzuk badaude libre daudenak eta eguraldiarekin aspertuta bat-batean erabakitzen dutenak, baina normalean egutegi baten menpe gaude.

Bulegoan ere ohiko komentarioa izango da aspalditxoan eguraldiarena.

Komentarioa orokorra da. Denok falta dugu bizipoz apur bat, jendea goibel, triste, aspertuta dago eguraldi honekin.

Zuei zer datorkizue hobe, eguraldi txarra edo ona?

Bulego hau kalean dago eta eguraldi onak eta txarrak dituzte alde onak eta txarrak. Arrasateko hipermerkatuko bulegoari komeni zaio txarra egitea, jende gehiago ibiltzen da orduan-eta.

poz apur bat eman. Denak ari dira hondartzarekin, bainujanziarekin ametsetan".

Arrasateko Amagara estetikaz zentroko solariumera ere ez omen doa beste maiatz batzuetan adina jende: "Jendeari asko kostatzen zaio, pereza du. Beste urte batzuetan apirila aldean hasten da jendea mugitzen, Aste Santu ostean. Maiatza oso txarra doa beste urte batzuekin aldekatuta. Nik uste orain galdutakoa ez dugula errekuuperatuko; urte bukaeran igarriko da oso negu luzea eta gogorra izan dela, eta udaberri oso txarra", dio Maite Agirrek.

"Batzuk hasi dira solariumean, baina eguzkia hartzeko ohitura duen jendea baino, zerbait duen jendea da: ezkontzaren bat, jaunartzeren bat... Baina gainerako bezeroak, normalean garai honetarako etortzen hasten direnak, nagituta daude eguraldiagatik. Esaten dute badakitela gero etorriko dela eguraldi ona eta nahiko dutela tiranteak janztea, baina pereza izaten dute". Eta gero presak, hondartzarako joan-etorriak hasi aurretik azala eguzkitarako prest eduki nahi eta: "Denek nahi dituzte emaitzak, gaur egin eta emaitzak herenegunerako. Eta hori zaila da". Eta antza dute Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarraren berbek ere.

Kiloak kentzeko presa

Diaz de Monasteriogurenek dio Aste Santu inguruan egin ohi ditugun lanak egin gabe ditugula oraindik: "Armairuan aldaketa egiten dugu eta udaberriko arropak atera, eta probatzerakoan ikusten dugu kiloren bat irabazi dugun eta erabakitzen dugu kilo horiek kentzea. Baina oraindik gaude neguko arroparekin, eta ez gara konturatzen zer datorren. Gero miraririk ez dago. Zortzi kilo irabazi baditugu urtebetean, ez pentsa bi hilabeteen kentzea kilo horiek. Denboraz akordatu behar gara; Gabonen ondoren, adibidez. Apurka apurka kentzen dena hobeto mantentzen da". Eta ez bakarrik kiloengatik, osasuntsu egoteko ere oso garrantzitsua da ondo elikatzea. Zenbat aldiz

entzun ote diogu dietista oñatiarrari: "Fruta eta barazki asko egunero".

Fruta gogo gutxiago

Ba eguraldi txarrarekin gertatzen den beste bat da fruta eta entsaladak jateko gogo gutxiago izaten dela. Hala dio Bergarako Zare fruta-dendako Lierni Arregik: "Guretzako garai onena da orain, baina eguraldi txarrak kalte egiten digu. Jendeak gutxiago erosten du. Eguraldi txarrarekin jendeak ez du hainbeste gogo fruta jateko, barazkiak, entsaladak. Salmentetan nabarmena da, eguraldi onarekin gehiago saltzen da. Eguraldi onarekin gehiago saltzen dugu txarrarekin baino. Dendako komentarioa da tenporak direla orain eta eguraldi txarra datorrela San Juanak arte. Jendeak gero eta gehiago kontsumitzen du fruta eta berdura. Babarrunak-eta ere baditugu. Eta giro honekin jendeak jarraitzen du babarrunekin, azekin, azalorrearekin".

Bizikletak udarako?

Sasoi onean egoteko, kirola egitea da beste modu bat. Udarako omen dira bizikletak, eta gertu dugun arren aspaldian ez du bi gurpilen gainean ibiltzeko girorik askotan egiten. "Eguraldi onarekin gehiago ibiltzen da jendea, eta bizikleta ondatu ere sarriago. Konponketetan igartzten da, zalan-tza gabe", dio Arrasateko Lizarralde Kirolak dendako Mikel Lizarralde. Salmentei dagokienez ondo omen dabilta, maiatza berez ei delako hilabete ona, "jaunartzeengatik", besteak beste, eta aurten Oñatirako bidegorria ireki dutelako ere bai.

Bidegorriaren eragina asko igartzten dela dio Caravanas Oñate dendako Migel Angel Igartuak ere: "Bizikleta asko saldu dugu azkenaldian, paseorakoak, argiak, txirrinak... Bidegorria egitea ondo etorri zaigu, lanera joateko bizikleta, errekaduak egiteko... Hemen, jendea mentalizatuta dago bizikleta ibili behar dela".

Azken berba baikor hauekin, ikusitakoak ikusita ere: animo, eguraldi txarrak ezingo du eta gurekin!

BIRZIKLAGARRIA
NAIZ. Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



Gipuzkoa
BERRIA

BAGOAZ!
GIPUZKOA 2016 > %60 BIRZIKLATUTA



Ekitaldiaren amaieran taldeko argazkia atera zuten. | IMANOL SORIANO

Oñatin atez atekoari ongietorria eman zioten zapatuan herriko plazan

Oñati Zero Zabor taldeko ordezkariak herritarrak eta Udala zoriondu zituzten eta Gipuzkoan atez atekoa duten herrien mapara gehitu zuten Oñati

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Oñatiarren hondakinak ez dira erraustuko. Ongi etorri atez atezioen pankartaren bueltan batu ziren zapatu eguerdian Oñatin atez ateko hondakinen bilketa sistemari ongi etorria emateko. Oñati Zero Zabor taldeko ordezkariak lehenik eta behin eskerrak eman zizkieten herritarrei "erronka berri honen aurrean erakusten ari diren jarrera arduratsuegatik" eta baita Udalarari ere "hondakinen gaian arduraz jokatzuz eta errauskailurik gabeko Gipuzkoa bat izateko helburua garbi izanik erabaki zuzena hartu duelako".

Gipuzkoa Garbiaren jarrera

Atez ateko sistemaren kontrako Gipuzkoa Garbia plataformak pasa den astean egindako deialdia ere kritikatu zuten: "Gipuzkoa Garbia plataformaren boikotera deialdia erabat arduragabea da. Hondakinen kudeaketan intsumiorako aldarrikapena eta etxean hondakinak sailkatzeko ontziak ez batzeko deialdia egiteak garbi erakusten du zein den beraien bidea, ahal den zaborrik gutxien sailkatzea birziklapena

zailtzeko eta ahal den gehien erraustegira eramatea bertan erretzeko. Intsumisioa eta boikota beti izango dira zilegi eta herritarraren borroka-tresna, baldin eta helburuak gizartearentzat onuragarriak badira". Zentzu horretan adierazi dute pozik daudela ontziak jasotzera deitutako herritarren %89ak jada jaso dituelako ontziak.

Ekitaldia amaitzeko Hernaniko Zero Zaborren izenean Pello Zubiriak hartu zuen hitza eta

baita Gipuzkoako Zero Zaborreko Ainhoa Arrospidek: "Edukiontzien sistemak porrot egin du eta inoiz ez da lortu %40ko gaikako bilketa gaintzea. Aldiz, atez ateko sistema jarri den herri guztietan %70eko gaikako bilketa lortu da sistema jarri eta hilabetera. Oñatin ere lortuko duzue".

Ekitaldia amaitzeko Gipuzkoan atez atekoa martxan dagoen herriak koloretan jasotzen dituen mapan Oñatiko herria gehitu zuten.

Zero Zabor filosofiaren alde Elgetan

Gipuzkoako Zero Zaborren MunduMob ekimena Elgetara iritsi da aste bukaeran. Elgeta Zero Zaborrek antolatuta tailerrak, jolasak eta erakusketak egin dituzte, besteak beste. Ekintza nagusia domeka eguerdian izan zen: MunduMob dantzaren grabazioa herriko plazan. Elgetarrek ondo baino hobeto egin zuten dantzan.



MunduMob jaia Elgetan. | J.A.

Metalgintzako grebaren balorazio positiboa egin dute sindikatuek

M.B. | ARRASATE

Gipuzkoako metalgintzak egubakoitzean lan hitzarmenaren negoziazioa blokeatuta dagoela salatuzko egindako grebak Debagoienean erantzun "oso positiboa" izan zuela esan dute bai-larako ELA eta LAB sindikatuetako metal arloko arduradunek. Bat etorri ziren bi ordezkariak egubakoitzean honakoa esaten: "Metalgintzako Debagoieneko enpresa handi gehienetako langileek, eta txikitakoe ere, bat egin dute gaur grebarekin; eta ondorioz, oso balorazio positiboa egiten dugu".

Greba egin zuten, esaterako, Oñatin, Txintxurreta, Stadler, Nemesio Zubia eta Cegasa enpre-

sako langileek. Antzuolako Elay eta Balzersen eta Bergarako Arcelor eta TTT enpresetan ere bai. Ez, ordea, Metagra, Iraundi eta Lakorrek. Arrasaten, Polmetasak bat egin zuen grebarekin; Gelman bestalde, langile bakoitzaren aukera izan da lanera joan edo ez. Eskoriatzaren kasuan, Tesa eta Ezkurra ere geldi egon ziren.

Adegi patronalak, bestalde, grebaren jarraipena askotarikoa izaten ari zela esan zuen, eta enpresek galdu duten lehiakortasuna ez dela grebekin berreskuratuko gaineratu.

Mobilizazioen kasuan, bai-laran bakarria izan zen; LABek bariku iluntzean Bergaran egindako manifestazioa.



LABek eskualdeko manifestazioa egin zuen Bergaran. | IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

Laudioko hilketa salatu zuten

"Erasoen aurrean erantzun egin behar delako eta ez isilik geratu", elkarretartzeak egin zituzten egubakoitz iluntzean Arrasateko eta Oñatiko Herriko Plazetan. Modu horretan Amagoia Elezkano, ustez bikotekideak Laudion hil zuen 26 urteko gaztearen hilketa salatu zuten.

Antzuolako Elay lantegia omendu zuten atzo Ibilaldia jaian

Aldapak leunduz leloarekin atzo Portugaleten ospatu zen Ibilaldia 2013 jaiaren barruan omendu zuten Elay, euskaraz lan egitea posible dela erakustearren. Antzuolako enpresarekin batera, Euskalit, Uzei eta Euskara Kontseilua ere omendu zituzten, eta baita Adrian Zelaia ere.



ARANTZAZU EZKIBEL

Goiena RENT
Ibilgailuen alokairua

✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN

✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan

✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua

✓ Aireportuko zerbitzua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA ONATIN

20€-tik eguneko

WWW.GOIENARENT.COM

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

943 71 66 52 / 619 44 71 75

goienarent@goienarent.com

MUk ikerkuntza bultzatuko du aeronautikan

MUko Goi Eskola Politeknikoak eta Zamudioko ITP enpresak datozen bost urteetan elkarlanean jarduteko hitzarmena sinatu dute. Aeronautika sektoreko ikerkuntza teknologikoa bultzatzea da akordioaren helburua.

Produktu garrantzitsuenak orain baino merkeago salduko ditu aurrerantzean Eroskik

Eroskiren denda handienetan, 3.000 produktu ere salduko dituzte prezio txikiagoan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bezeroak fidelizatzeko programa berri baten zati gisa, hainbat produktu orain baino merkeago salduko ditu Eroskik. Prezioak ekainean zehar txikituko ditu. Kooperatibaren esanetan, "erosketako produktu garrantzitsuenak" izango dira. Dendaren tamainaren arabera gehiago edo gutxiago egongo dira salgai prezio merkeago horretan eta, denda handien kasuan, 3.000 erreferentzia izango dira.

2013an, salmenta aldetik antzera jarraituko duela uste du Eroskik. Horretarako, lehiakortasun aldetik hobetzeko apustua egingo du, "kontsumoak ahul jarraituko duen testuinguru baten". Horren barruan ulertu behar da orain hartutako erabakia. Fidelizazio programa hori 2013-2016 eperako Plan Estrategikoan agertzen da.

121 milioiko galerak

Eroski taldeak 121 milioi euroko emaitza negatiboarekin itxi zuen 2012ko ekitaldia. Gutxiago saldu zuen, kontsumoa ahul dagoelako, higiezin merkatua gelditu dagoelako eta horrek galarazi egin



Eroskiren supermerkatua Oñatin. | GOIENA

diolako aparteko baliabideak sortzea, sare komertziala saneatu duelako, prezioak jaitsi dituelako eta bere zorra 44 milioitan txikitu duelako. Ohiko emaitzak alde batera utzita, Eroski Taldeak 70 milioi euroko emaitza negati-

boa izan du, aurreko ekitaldian baino % 15 hobeto. Taldeak azpimarratzen du bere EBITDA 265 milioi eurokoa izan zela, salmenta-zifraren % 4,2. "Datu horrek jarduera komertzial garbiaren indarra erakusten du, finantza-

gastu eta amortizazioak kontuan hartu gabe. Ebitda hori lortu da barru-eraginkortasuna hobetuta eta 57 milioi euro gutxiago gastatuta".

Emaitza negatibo horren beste arrazoietako bat da Eroski Kooperatiba Elkarteak, Eroski Taldearen enpresa nagusiak, 214 milioiko dotazioa egin zuela iaz. Zuhurtasunaren bidean jarraitzen du, beraz, Eroskik: "Ekonomia hobetzeko aurreikuspenek txarrera egin dutenez, zuhurtasuna irizpidetzat hartuta, parte hartutako bere sozietateen balorazioa txikitu du. Dotazio handi horrekin, Eroski Kooperatiba Elkarteak 60 milioiko emaitza negatiboa du, nahiz eta 100,1 milioiko Irabazi Operatiboa (probisio aurrekoa) izan, aurreko urteetako emaitzekin bat datorrena".

Eroski Taldeak BEZ bako 6.222 milioi euro garbiko salmentak egin zituen iaz, aurreko ekitaldian baino % 5,3 gutxiago; elikaduran, % 2,5 gutxiago. "Sektoreko salmenta-eboluzio onenatariko bat da hori", esan du Eroskik.

Supermerkatuetako salmentak dira gehienak: negozio-bolumenaren % 60.

Jatetxe onenetako bi Fagorrek ekipatuak dira

L.K. | ARRASATE

Munduko 10 jatetxe onenetako biren sukaldeak Fagorrek dira: Juan Mari Arzak eta Andoni Luis Adurizen jatetxeetako sukaldeak.

Jatetxe horien klasifikazioa Restaurant aldizkari britainiarra egin du, eta aurtengoa apirilaren 29an jakinarazi zuten, Londresen. Sektoreko ospetsuen artean dago zerrenda hori.

Fagorrek esan duenez, "lehenengo 10 jatetxeen artean hiru espainiar daude, horietako bi euskaldunak dira eta Fagor Industrialek hornitzen ditu". Arzak Jatetxea 8. postuan ipini du Restaurant-ek, eta Andoni Luis Adurizen Mugaritz, 4. postuan.

Turismo gastronomikoa

Fagorrek hauxe ere azpimarratu du: "Horrez gain, Celler Can Roca jatetxe katalan ospetsua munduko jatetxerik onena -alde aurretik Noma daniarra zen- izendatu zuten. Aitorpen horrek, dudarik gabe, turismo gastronomiko espainiarri emango dio behin betiko bultzada".

zenbaki

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.es

Joanes Maiza | GoiEner kooperatibako ordezkaria

"Bermatutako energia 'berdea' zerbitzatuko diegu gure bazkideei"

- Debagoiengan bazkideak egitera etorriko da GoiEner kooperatiba, etzi
- Erosle-kooperatiba horrek dagoeneko 300 kide ditu lau lurraldetan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

GoiEner kooperatibak bere burua aurkeztuko du, Bagararen eskutik, etzi, eguaztena, Amaia antzokian, 19:00etan. "Hiru ordu laurdeneko hitzaldian saiatuko gara merkatu elektrikoa eta energetikoa azaltzen", dio GoiEnerreko kide Joanes Maizak.

Kooperatiba, herri mugimendua... zer da GoiEner?

Biak. Kontsumo-kooperatiba, hateko, eta irabazi asmorik gabeko ekimena ere bai. Energia erosteko eta, ahal den neurrian, sortzeko jaio da.

Helburu bikoitza duzue: batetik, energia berriaz hornitu zuen bazkideak, eta bestetik, proiektuak garatu.

Ez dugu ezer asmatu; European aspaldi ematen den proiektu mota da. Lehenik eta behin, energia berriztagarrien kontsumoa eta erabilera bultzatu nahi dugu. Erosle-kooperatiba gisa, energia berriztagarria, merkatuan bermatuta egongo dena zerbitzatuko dugu, eta bigarren atal baten, gure proiektuak garatzen saiatuko gara, eguzki plaka fotovoltaikoekin, haize-errotak txikiak, ur-errotekin, biogasarekin...

Zuen filosofia da "guk geuk egitea". Zergatik? Erakundeekin desengainatuta zaudete?

Gure iraunkortasuna zalantzan ikusten dugu. Albiste ilunak entzuten ditugu egunero: Garoña luzatu nahi dela, *fracking*-ari aukera eman nahi zaiola... eta uste dugu gizakiok egin behar ditugula urratsak, gure politikoez ez dituztelako ematen behar den neurrian.

"Milaka bazkide" nahi dituzue. Zerbait zarete oraingoz, eta nongoak? Iaz hasi ginen GoiEner eta Gipuzkoan 30 lagun, eta bagara dagoeneko 300 bazkide lau lurraldetan, eta profesionalak, kontsumitzaileak, etxeakoandreak... ingurumen sentsibilitatea duen askotariko jendea dator guregana. Ipar European 30.000, 50.000... bazkideko kooperatibak daude eta horretara ailegatzeko saiatu nahi dugu. Alacant-en 15.000 bazkideko kooperatiba bat dago, Katalunian orain bi urte eta erdi sortu zen kooperatiba batek dagoeneko baditu 8.000 bazkide... Hemen kultura kooperatiboa dago, jendea sentsibilizatuta dago eta Bagara bezalako elkarteak ditugu; iritsi gaitezkeela uste dut.

Energia berriztagarrien inguruko ze motako proiektuak sor dezakete energia gaur bertan Euskal Herrian? Estatuan bideragarriak oso proiektu gutxi dira, ez badira oso handiak eta oso ondo neurtuak. Araudi berriarekin amortizazio epeak asko luzatzen dira eta oso ondo hausnartu behar da proiektu bakoitza. Baina norberak kon-



Joanes Maiza, eskuman, Bagarako Arkaitz Biainekin. | LEIRE KORTABARRIA

"European 30.000 kidetik gora dituzte gure antzeko kooperatibek"

"Merkatuan energia berriztagarria dago, eta horixe zerbitzatuko dugu"

"Geuk egin behar ditugu urratsak, politikoez ez dituztelako egiten"

tsumitzen badu plaka edo errota bidez sortzen duen argindarra, 10-15 urte gutxienez behar dira instalazioak amortizatzen.

Edozein familiak izan dezake eskura energia berdea, jatorri berriztagarria duena, kostu txikian; adibidez, GoiEnerren bitartez?

Merkatuan, energia arrunta -ikatzetik, nuklearretik, gasetik...- saltzen da, baina eskuragarri eta ziurtatuta dago ere argindar berriztagarria. Kudeaketa hori egingo du GoiEnerrek eta bere bazkideen eskaerak atendituko ditu, eta argindar hori fakturatuko du. Instalazio berriztagarriekin argindar horren salerosketak hitzartu dezakegu.

Euskal Herriak duen energia dependentziak badu irtenbiderik?

Irtenbide zaila dauka, eta elikagai gehienak kanpotik ekartzen ditugun moduan, energiaren %95 ekarri egiten dugu, eta hori konpontzeko bide bakarra da gure baliabideen aldeko apustua egitea, batez ere ikerkuntza eta garapenaren bidez: hor dago itsasoa, hor daude gure teilatu guztiak, hor daude gure basoak ondo ustiatzeko... baina orain arte oso lan txikia egin da. Baita aurrezpenen eta eraginkortasunen ere: argindar eta bero asko galtzen da, eta hor lan handia dago egiteko.

Ze egin behar da GoiEnerreko bazkide izateko?

Webgunearen bitartez (www.goiener.com) oso erraza da, eta 100 euro ipinita edonor izan daiteke bazkide. Goierriko Garapen Agentziak uzten digu bere bulegoetara, baina diru hori beharko dugu egoitza eratzeko eta kontsumo kooperatiba, argindarraren komertzializatzailea izango dena martxan jartzeko.

Zuen moduko mugimenduekin bazaude harremanetan?

Orain dela 3-4 urte merkatua liberalizatu zen, eta agente batzuk azaldu ginen, batez ere katalanak eta geu. Harremanetan jarri ginen, aukera ikusi genuen negozio horretan sartzeko eta harreman estua daukagu.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Enplegu Sailak dio ERE gehiago dagoela lan erreformarengatik

L.K. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 241 lan-erregulazio espediente baimendu zituen apirilean, martxoan baino % 7 gutxiago. Eten-dura espedienteak 145 izan dira, lan jardunaldia murriztekoak 84 eta iraungitze espedienteak 12. Sailak esaten duenez, lan-erregulazio espedienteen kopurua "nabarmen" hazi da 2010eko urritik, lan erreformaren ondorioz.

Beste baten jarraipena izan diren espedienteek 2.178 langileri eragin diete (% 77). 2013ko apirilean, guztira, 2.844 langilek jasan dute ERE bat, martxoan baino % 1 gehiago eta iazko apirilean baino % 7 gehiago. ERE kopurua handitu egin da industrian (iaz EREen %42, aurten %43,9) eta zerbitzuetan (iaz % 41, aurten % 43,39).

Debagoiengan izan dira Gipuzkoako EREen %9; gutxien (% 5) Tolosaldean izan dira.

Bizkaiko aldundiak 39 lanpostu betetzeko deialdia egin du

L.K. | ARRASATE

Azkenaldian baino lanpostu deialdi gehiago jaso du Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak eta horien berri eman zuen martitzenean Arrasate Irratian. Deialdi gehienak Bizkaiko Foru Aldundiarenak dira: 10 basoko agente, 23 suhiltzaile gidari eta sei industria-ingeniari, horietako bat ezinduek txandak. Ekainaren 10a da izena emateko mugaeguna.

Bestalde, aldi baterako administrari-laguntzaile lanpostua bete nahi du Beasaingo Udalak, liburutegirako.

Iruñeko musika eskolak hainbat espezialitateko irakasleen lan-poltsa osatu nahi du.

Azkenik, Madrilgo erkidegoak 350 irakasle plaza atera ditu lehiaketara. Ekainaren 3an bukatzen da epea.

Argibideak, gazte bulegoan (943 25 20 65 da telefonoa).

Emakumeak, etorkinak eta adin txikikoen ardura duten gazteak dira Gipuzkoako pobreenak

30.000 gipuzkoarretik gora daude pobrezia larrian (hilean 561,7 euro baino gutxiagorekin ateratzen dira aurrera), eta beste 120.000, pobrezia arriskuan (hilean 842,5 euro azpiko diru-sarrerak). Hori dio Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko inkestak. Foru bozeramalearen esanetan, emakumeak, etorkinak eta adin txikikoak kargura dituzten gazteak dira pobreenak.

MBA Executive kurtsoa egin duten 21 ikasleri titulua eman zieten Bazkondeak eta MUK eguaztenean

Gipuzkoako Bazkondeak eta Mondragon Unibertsitateak MBA Executivearen III. ekitaldi amaiera egin zuten eguaztenean, Gipuzkoako Bazkondean, eta aurten kurtsoa gainditu duten 21 ikasle diplomak jaso zituzten. 30 eta 48 urte bitartekoak dira ikasleak. Industria eta zerbitzu enpresetan egiten dute lan eta ardura handiko postuak dituzte.

Ekainaren 3ra arte eman daiteke izena ordenagailua eta Internet erabiltzen ikasteko Landatic ikastaroan

Oraindik lekua dago Arrasateko Udalak, Hazik eta Deba Garaiak antolatu duten Landatic ikastaroan, eta ekainaren 3ra arte eman daiteke izena. Ekainaren 10etik 21era izango da ikastaroa, astelehenetik egubakoitzera (16:30-19:30). Ordenagailua, Internet eta posta elektronikoa erabiltzen hasi nahi dutenentzako proposa da. Argibideak, 943 76 25 47 telefonora deituta.

Kutxabankek 34 milioi irabazi ditu lehen hiruhilekoan, eta arriskurako probisioak handitu ditu

Kutxabankek 34 milioi irabaziekin itxi du 2013ko lehen hiruhilekoa, eta arrisku orokorretarako eta aktiboen narriadura egoerarako 96,9 milioi euro ipini ditu, iazko epe berean baino % 114,5 gehiago, nahiz eta orduko dotazioarekin Espainiako Gobernuak bankuei exijitzen ziena bete. Horrenbestez, Fitch agentziak BBB kalifikazioa ipini dio berriz ere Kutxabanki.

Jose Luis Fernandez | Aspanogiko presidentea (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte)

"Oso gustura gaude Donostiako Ospitaleko pediatria onkologo eta osasun taldearekin"

- ▶ Aretxabaletarra da Aspanogiko presidentea, eta elkartearen izena zabaldu nahi du
- ▶ Donostiako Ospitalean egiten du lan Aspanogik; Debagoieneko umeak ere badoaz hara

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA

Aretxabaletan jaio zen eta Zarautzen bizi da gaur egun Jose Luis Fernandez. Aspanogiko, Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartearen presidentea da 2011ko apirilaren 16a ezker. Donostiako Ospitalean egiten du lan elkarte horrek, minbizia duten umei familiei laguntzen.

Zer dela eta zara Aspanogi elkarte kide eta, orain, presidente?

Erraza da: nik, bere garaian, Aspanogiren laguntza jaso nuen, bi aldiz, gainera; orduan, nire asmoa da Aspanogiri nik jaso nuen laguntza bueltatzea. Presidente lana egiteko, batzuetan denbora kentzen diezu familiari, lagunei, zaletasunei, baina gustura egiten dut. Norbaitek hartu behar zuen ardurara, eta neuk hartu nuen. Merez du Aspanogiren izena zabaltea, elkarte txikia baina oso garrantzitsua garelako.

Zenbat zarete gaur egun Aspanogin? Gipuzkoa osoko gurasoak zaudete?

140 familia dira bazkide, horien artean ere badaude Bizkaia eta Nafarroako familiak. Kontuan izan behar da Bizkaiko zenbait herritik (Ermua, Ondarroa) eta Nafarroatik (Etxalar, Leitza, Lesaka...) mugan daudenak Donostiako Ospitalera etortzen direla, eta aukera ematen zaie bere probintziako elkarte bazkide egiteko, baina beraiek erabakitzen dute Aspanogiko kide egitea edo Adano (Nafarroakoa) edo Aspanovas (Bizkaikoa) egitea.

Aurtengo zuen aldarrikapena adin pediatrikoa 14 urtetik 16 urtera zabaltekoa izan da, eta hala izango da azkenean. Zergatik ikusten zenuten horren beharra?

Eskaera garrantzitsua da eta, zorionez, lortu duguna aurten. Helduen solairura bideratzen dituzten adin horretako pazienteen kasuak daude, eta heldu batekin gela konpartitzeak eragina izaten du nerabearen egoera animikoan. Askoz hobeto egoten dira onkoematologia pediatriko unitatean, gela indibidualarekin eta bertako pediatria onkologo eta pertsonalarekin. Gipuzkoan, etxez etxeko irakasleak nerabea ospitalean dagoenean joaten dira klaseak ematera, eta gela indibidualarekin egotea nahitaezkoa da eta ez heldu batekin gela berean egotea.

Ze desberdintasun dago ume eta gaztetxoendako, batetik, eta helduendako, bestetik, minbizi tratamenduetan?

Haur eta nerabeei tratamendu onkologiko pediatrikoak jartzen



Jose Luis Fernandez. | OIHANA ELORTZA

zaizkie, protokolo internazionalak daude. Haur batek heldu batek baino kimiosentsibilitate handiagoa du, hobeto erantzuten die tratamenduei bere organoak ez daudelako hain erabiliak eta, bestetik, egoera animikoak asko egiten du. Helduen kasuan, depresio baten erortzeko arrisku han-

"Iruñeko ospitalera joan izan direnak Donostiara bueltatu izan dira berriz"

"Tratamenduei esker, minbizia duten umeen % 80 osatzen da"

diagoa dago. Haur eta nerabeei beste bizipoz bat dute eta borrokatzeko indarra, beraien familia eta lagunak aldamenean baitituzte.

Gipuzkoan, minbizia duten umeetatik zenbat osatzen dira?

Gaur egun tratamenduei esker % 75-80 sendatzen dira, baina gure desioa % 100 izatea da.

Ze minbizi mota dira ohikoena umeen artean, Gipuzkoan? Euskadin antzera da?

Leuzemiak (% 30), nerbio sistema zentralerako tumoreak (% 19), eta linfomak (% 19). Horien ondoren, tumore germinalak eta gibel, giltzurrun, begi eta hezurretakoak. Intzidentzia handiagoa dute leuzemiak, 2 urteko umeengan, eta leuzemiak eta linfomak, 14 urteko nerabeengan.

Askotan esaten da Gipuzkoan eta Euskadi osoan minbizi kasu asko dagoela. Hori uste faltsua ala egia da, zuen datuen arabera?

Gipuzkoan, urtero 12-17 kasu berri izan ohi ziren, baina jabetu gara azken urteetan gorantz doala: 20-25 kasu. Euskadin 50-55 kasu berri dira, baina gauza bera gertatzen dabil. Gainera, minbizi motak gero eta arraragoak, konplikatuagoak agertzen dabilta hasierako urteekin konparatuta.

"Garrantzitsua zen adin pediatrikoa luzatzea eta, zorionez, lortu da"

"Umeek bizipoza eta borrokatzeko indarra dute, familia ondoan dutelako"

Nola esaten zaio ume bati minbizia duela? Eta umeek eurek, nola erreakzionatzen dute, nola bizi izaten dute euren gaixotasuna eta tratamendua?

Kontuan izan behar da hauraren adina, ezaugarri pertsonalak, ulermen maila... Ez da berdina 6 urteko bati esatea edo 13 urteko bati. Gurasoei gaixotasunaren berri emateko material berezia eskaintzen diegu elkartetik: haur txikientzat ipuinak -*Goazen kimiora, Goazen erradioterapiara*-, *Eskerrikasko* CD-DVDa, Pirritx eta Porrotxek egin zutena gaia landuz; nerabeentzat, euskaraz argitaratu berri dugun gida, *Zer gertatzen zait?*

Umeek helduek baino hobeto erreakzionatzen dute; helduoi kostatu egiten zaigu gaixotasuna azaltzea. Baina haur bati gurasoek esaten badiete zer duen, naturaltasunez eta gezurrik esan gabe, haur horrek egoera hobeto eramango du.

Nolakoa izaten da hortik aurrera euren eguneroko bizitza, etxean, eskolan, kalean...?

Egun batetik bestera bizimodua aldatzen zaie eta ospitaleko eta gaixotasuneko errutinara ohitu behar dira. Aldaketa handiak izaten dituzte familiako bizitzan: pentsa, gurasoen joan-etorriak ospitalera, anai-arrebak ez dituzte ikusten ospitaleko egonaldietan zehar...-, ikasketetan -infekzio arriskuagatik ezin dira eskolara joan eta etxez etxeko irakasle laguntza zerbitzua behar dute-, lagunengandik urruntzen dira eta denbora batez ezin dute kirol eta aisialdi jardueretan parte hartu lagunekin batera.

"Lagunak" dituzue: kirolariak, Aspanogi Team, Irrien Lagunak... Zer egiten dute?

Txalotzeko lana egiten ari dira, aspalditik daude elkarteari laguntzen bai ospitaleko eta ospitaletik kanpoko ekintzetan.

Nola ikusten duzue osasun zerbitzu publikoaren arreta eta kalitatea, umeen minbiziaz dagokionean?

Elkartearen oso gustura gaude Donostiako Ospitaleko pediatria onkologo eta osasun taldearekin. Tratamenduei dagokionez, protokolo internazionalarekin oinarritzen dira eta kasu bakoitzean beste zentro baten tratatzea behar badu, euren gomendatzen dute zuzenean. Izan dira kasuak non bigarren iritzi bat eskatzera joan diren Iruñeko Ospitale Unibertsitariora, baina berriro bueltatu dira Donostiako ospitalera, tratamendu berberak daudelako edo Iruñean ez zutelako beraien gaixotasunean esperientzia handirik.

ZABALIK

RESU ABASOLO
http://goiena.net/iritzia/



Printzeen heziketa

Nicolas Maquiavelok (1469-1527) *El Príncipe* liburua printzeen heziketari eskaini zion. Bertan, printzeek izan behar duten boterea zer-nolako izan behar den idatzi zuen; autoritarioa, absolutua, bere menpekoen bizitzan eta ondasunen jaun eta jabe. Bere ideologiaren xedea da boterea izatea: nola lortu, nola eutsi, nola gehitu, nola mantendu inori konturik eman gabe, salbu, Jainko eta historiari, eta horretarako, denak edo edozerk balio zuen.

Maquiavelok printzearen lana printzipio hauetan oinarritu zuen: maltzurra izatean, ondasun-gose agertzean, errespetua sortzean eta ezeri beldurrik ez izatean.

Zeintzuk dira, ba, gaur egungo *printzeak*? Ez, ez dira klasikoak bakarrik. Gaurko printzeak, horiez gain, multinazionalen jabeak, finantza-buruak eta goi mailako politikariak dira. Eta zer-nolako heziketa jasotzen dute? Ustez hobereana. Gehienetan ikastetxe eta unibertsitate elitistetan, pribatu eta erlijiosoak gehienak; ustez eskolatze hobereana eskaintzen duten toki garestienetan, eta, kasu guztietan, etika katolikoaz jantzita. Hau da, jarrerak eta portaerak etika horretan oinarrituta. Eta, halako heziketa jasota, nola, bada, Maquiaveloren jokaerak? Aberastasuna, boterea, itxura, gehiegikeria...

Maquiaveloren etikan aipatutako jarrerak ez zeukaten ondorio-rik, baina etika katolikoan hezitakoek oker baten ondoren barkamena jasotzeko konfessatu eta damua agertu behar izaten zuten. Eta zer esan lapurreta eta iruzurra gizarte oso bati egiten zaionean? Etika katolikoak indarra jartzen du beste ekintza batean. Hau da, hasteko, lapurtutakoa itzultzean. Egindakoak jabetu eta jokaera aldatu.

Zerk bultzatzen ditu agintedunak horrela jokatzera? Boteari eutsi eustearren eta izatearren, eta ez gainerakoengizatearen alde egiteko. Zeren aurrean gaude? Agintea heziketarik ez duen jendearen esku dago edo heziketa ezin hobe horren porrotaren aurrean gaude?

"Egungoak dira finantza-buruak, goi mailako politikariak..."

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Eta zu, zertan zara trebea?

Ez dira betiko garai onenak. Herritar xumeari krisian gaudela esan zion aspaldi orain sinesgarritasun eta konfiantza ezaren krisian dagoen klase politikoak. Estatistikek tarte txikia uzten dute interpretaziorako; langabe kopurua objektiboa da, esaterako. Objektiboa bezain kezkarria. Zer esan lana bilatzeaz nazkatuta dagoen horri? Dagoeneko nora jo ez dakien horri? Errespetu osoz zuzenduta, betiere, amorerik eman ez dezala esango nioke lehendabizi. Eta gero, har dezala bere burua goraiatzeko tarte bat. Galde diezaiola bere buruari zertan den trebea. Denok garelako trebeak zerbaitetan. Denok. Zure trebetasun hori garatu ezazu eta, akaso, lanak zu aurkituko zaitu.

KALE INKESTA

Ondo eta osasuntsu jaten duzula uste duzu?



JUAN BAUTISTA MANZANO
ARRASATE

"Ezetz uste dut; prestatutako janari gehiegi kontsumitzen dugu, kontserbagarri eta koloratzaile gehiegi dituzten jakiak".



MIREN KARMELE AIRAS
EIBAR

"Ez, gozoki gehiegi jaten dut. Fruta, barazki, karbohidrato... gehiago hartu beharko nituzke egunean zehar, gauez gehiago loditzen baitute".



AMAIA OVEJERO
ARRASATE

"Nik uste dut baietz, ondo jaten dugula. Gainera, etxean landatzen ditugu eta etxeko produktuak dauzkagu".



ANDONI GARTZIA
ARRASATE

"Ba, bazkaria erosten duzun lekuren arabera. Uste dut hobe dela gauza naturalak hartzea, kanpotik ekarritakoak baino".

HANDIK ETA HEMENDIK

Bestela, bueltatuko da

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Gaur egunean ez da izango irrika handiagoz itxarongo nukuen telebista elkarrizketarik.

Ez dago munduan inor, ez politikari, ez agintari, ez presidenterik, plato batean gusturago ikus-entzungo nukeenik. Zer esanik ez presidente ohiarik. Baina, ze demonio, Jose Maria Aznar ez da ohi; presidente da oraindik. Hala hartzen dute, sen onez, elkarrizketatzen duten kazetariak. Eta astearte gauean izan genuen Aznarren hitzak entzuteko aukera, Antena3 katean, etxeko albistegietako zuzendari nagusi Gloria Lomanaren gidaritzapean eta bi kazetariren laguntzarekin: *El Mundo*-ko zuzendari alboko Victoria Prego eta *La Razón*-eko zuzendari Francisco Marhuendarekin. Pluralitasunaren festa, beraz. [...]

Baina ez dut zuekin konpartitu gabe utzi nahi ordu erdiko galde-erantzun sortak nigan utzi zuen arrastoa: iraganera bidaiatzea bezalakoa izan zen. Ahaztuta neuzkan

Bush juniorrek Ansar gisa bataiatu zuen haren manera harroputz, despota, aberri-salbatzaileak. Nazionalismoak direla gaitz guztien iturri, Rajoy txorongilo bat dela, Ansar ahalguztidunak duela zulo beltzenetik ateratzeko formula: Espainia gehiago. Eta horri gehitzen zaio gero aspektu, nola esan, fisikoa. [...] Bibotearekin zer gertatu da? Itzaltxo bat dauka orain, baso beltza zegoen lekuan. Ez du tindatzen, ilearen moduan? Eta gero irribarre estu hori, lehorreriak jota balego bezala.

Oro har, iruditu zitzaidan pertsona bat mehatxagarria. Ez bakarrik Prisarekin, ez bakarrik katalanekin, ez bakarrik alderdikide menderakaitzekin. Espainiako Estatuko biztanle guztiokin baizik. Imajinatu, une batez, asteartean mehatxu egin bezala bueltatzen dela politikara. "Espainia ikusten badut etsita, akaso bueltatu beharko dut politikara", esan omen du ez aspaldi, Wikileaksen arabera. Ez zuen gezurtatu. Eta lagun espainiarrok, badakizue: haserretu, sumindu, muturtu, nahi duzue egin, baina ez etsi, mesedez. Bestela, akaso Führer txikia, Ansar gisa ezagunagoa, bueltatuko da eta.

Tornabidea

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Toponimiak badaki sorpresa adierazkor askoak ematen. Gorbeian, Urigoititik igota eta Karbamaieta gailurra baino lehen, bada haitzarteko ataka bat I>Tornabide izena duena, eta adierazkortasun handikoa iruditu zitzaidan mundutik etxeranzko itzulera izendatzeko, mundualdiko azken etapa irudikatzen: Troiako gerra bukatutakoan, Ulises hamar urtez egon zen Itakarainoko tornabidea luzatzen eta luzatzen; Solferinoko batailan ibilitako soldadu euskaldunak itsututa egin behar izan zuen tornabidea; XIX mendean *Amerikak egiterat* joan ziren euskal emigrante gehienek ez zuten tornabiderik egin; Martin Ugaldere *Itzulera baten historia*-n kontaktzen den tornabidea oso da gazi-goza...

Menditik itzultitakoan ostatu hartuta nengoen landetxera, periodiko bateko orri-pasan hasi nintzen eta noranahi emigratzen ari den gazte saldoari buruzko estatistika batean jarri nuen arreta, gazte haien tornabide zaila lotuz nire aurreko gogoeten soka luzeari...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Monika Belastegi
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifiano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adieraztako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zer eskaintzen digu **LANBIDE HEZIKETAK** Mariaren Lagundia Ikastolan?



**Mariaren Lagundia
Ikastola**
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria

Esperientzian eta bizipenetan oinarritutako ikasketak.



kalitatea

konfiantza

esperientzia

AURREMATRIKULAZIOA:
maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra

Gizarte Integrazioako Goi Mailako Teknikaria

Aurten adibidez, Gallineroko umeekin gozatzeko aukera izan dugu, bai Madrilen bertan eta baita gurean ere.



estimulazioa

inplikazioa

praktikak

hurbiltasuna

AURREMATRIKULAZIOA:
maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra

lan munduratzea

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Edorta Barandiaran | EAE-ANVko Kultura eta Gazteria zinegotzia Eskoriatzan (2007-2011)

- ▶ Udalean egondako lau urteak lanerako zailak izan zirela gogoratzen du eskoriatzarrak
- ▶ Zaldibar antzokiaren proiektua Kultura zinegotzia zenean hasi ziren garatzen
- ▶ Egun ere kulturarekin lotura dauka Barandiaranek; Aitzorrotz elkarteko kide da, esaterako

"Zentsura-mozioaren ondorioz giroa gaiztotu eta alderdien arteko konfiantza galdu zen"

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Edorta Barandiaren eskoriatzarra da eta 2007ko hauteskundeetan sartu zen Udal Gobernuan, Pedro Lasagabaster alkate zela.

Beste asko bezala, kasualitatez iritsi al zinen udaletxera?

[Barre] Nire ustez, pixka bat kasualitea izan zen, bai. Hala ere, horrelako zerbait egiteko beharra sentitzen nuen, beti ibili naiz herrigintzarekin zerikusia duten gauzetan sartuta. Ikasten jarraitzeko gogoz nengoen; esperientziak ez ninduen atzera botatzeko.

Kultura zinegotzia izan zinen, gainera.

EAE-ANVtik lau lagun sartu ginen, eta Kultura eta Gazteria zinegotzi lanak egitea egokitu zitzaidan. Agintaldi batez egon nintzen Udal Gobernuan eta lau urte haiek askorako eman zuten. Izan ere, beste pertsona batzuen egoeratik gauzak aldatzen joan ziren eta, azkenean, euskara ere eramaten amaitu nuen eta alkaterearen egitekoetako batzuk ere banatu behar izan genituen gure artean.

Udalaren funtzionamendua jakin barik denetik egin behar, beraz!

Beti aurkitzen duzu aurreko legealditik irizpideak dituen jendea laguntzeko prest, eta esker-tzekoa da. Eta noski, Udaleko teknikari eta langileak ere hor egoten dira; haiek bai ezagutzen dute Udala barrutik! Politikariak joan eta etorri egiten dira, baina haiek hor segitzen dute, agintari asko eta lan egiteko modu ezberdinak ezagutzen dituzte...

Nolako lan giroa zegoen urte haietan Eskoriatzako Udalean?
Gogorra izan zen hasieratik.



Edorta Barandiaran, Eskoriatzako udaletxearen aurrean. | ZVDM.

Egoera politikoa ezberdina zen; aurkeztu ginenean ez genekien zerrendak aurrera egingo zuten edo atzera botako zuten. Izan ere, nahiko egoera xelebrea zen; herri

batzuetan onartu ziren eta beste batzuetan ez. Behin sartuta, gure nahia guztiokin lan egitea zen, karga guztia EAE-ANVko lau ordezkariok gure gain eramatea larregikoa iruditzen zitzaigun eta. Udalbatza osatzen genuen bakoitzak ardura batzuk hartzea gura genuen eta egiteko batzuk proposatu genizkien gainerako alderdiei; ez zituzten guztiak onartu. Ostean, egoera guztiz gaiztotu zen, zentsura-mozioa aurkeztu zuten eta, beraz, zituzten ardurak kendu genizkien, ez baitzegoen konfiantzarik.

Ez zen lan giro goxorik egongo, ezta?

Ez. Hurrengo hiru urteetako lan ildoak markatu zuten egoera hark. Ardurak zituztenak oposiziara pasatu ziren. Eta ez zen oposizio

konstruktiboa izan, oztopoak ipintzen zituzten behin eta berriz, proiektuak aurrera eramateko zailtasunak besterik ez genuen. Mozioaren ondorioz, oihartzun

"Ezer jakin gabe sartzeko zara, baina beti dago jendea laguntzeko prest"

"Atxorrotzeko auzo-lanetara animatu gura ditut herritarrak"

mediatikoa hartu zuen egoerak... Ez zen girorik onena lanerako. **Kanpotik begiratuta, nola ikusten duzu egungo egoera?**

Egoera ekonomikoa dela eta, kudeaketa zaila dutela iruditzen zait, baina uste dut lan ona egiten ari direla. Premia handienak betetzen dituzte, hainbat proiektu aurrera eramanda. Bestalde, Udalak berak duen egoera ekonomikoa gu egon ginenekoa baino askoz hobea da. Izan ere, sartu ginenean, Udalaren zorpetze maila oso handia zen eta kudeaketa eredu aldatzen hasi ginen; ildo horretatik jarraitzen dute gaur ere, eta poztekoa da.

Kulturatik egin zenituzten proiektuen artean bereziki gogoratzen duzunik badago?

Zaldibar antzokiaren proiektuari hasiera ematea. Eskoriatzan halako areto baten premia zegoela ikusten genuen. Hala ere, arantzatxo geratu zitzaigun orduan proiektuan geundenoi. Agintaldi hartan bertan martxan ipini gura genuen, eta, egun, oraindik ezin izan da guztiz gauzatu.

Udalen bakarrik ez; oker ez banago, beti egon zara kulturari lotuta.

Gaur egun ere Udaleko kulturako azpi-batzordeetan parte hartzen dut, eta Aitzorrotz kultur elkarteko kide ere banaiz. Horrekin entretenitzen naiz orain!

Aitzorrotz aipatzen duzula, ez dakit Atxorrotzeko auzo-lanetan parte hartzen duzun...

Bai, noski, joaten naiz. Maiatzeko bi irteera genituen antolatuta, eta egia da eguraldiak ez duela askorik lagundu. Horregatik, gutxi batzuk animatu gara, eta gure nahia lagun gehiago elkartzea da.

PEDALKA

FRANZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | MAIATZAK 30, 21:50



HERRIAK

ARAMAIO

Aramaion egingo dute aurtengo Uema Eguna, ekainaren 8an

- ▶ 'Aire berria euskarari' lelopean egingo da, "arnas-guneek airea behar dutelako bizitzeko"
- ▶ Duela 17 urte sartu zen Aramaio Ueman, eta bigarren ez egingo dute han Uema Eguna

OIHANA ELORTZA | ARAMAIO

17 urteren ostean, Aramaion ospatuko da berriz ere Uema Eguna, ekainaren 8an. Apirilaren lehen hamabostaldian bilera irekia egin zuten udaletxean, Uema Egunaren zentzua azaldu eta egitaraua prestatzeko lanetan zeintzuk egongo ziren jakiteko. Besteak beste, Udaleko ordezkariak, Txiritola euskara elkarteak, Bizente Goikoetxea abesbatza, Trikitixa Eskola eta dantza taldea izan ziren bileran. Harrez gero egin dituzten bileretan batzen joan da jendea, eta herriko eragile gehienek hartu dute parte antolakuntzan.

Salaketa eta aldarrikapena

Aramaio Udalak 1996ko urtarriaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea eta urte bereko maiatzaren 5ean Aramaion bertan ospatu zen Uema eguna. Hego Euskal Herriko 66 udalerrri daude Ueman sartuta; Aramaio da Arabako herri bakarra da Uema barruan dagoena.

Aire berria euskarari lelopean ospatuko da, ekainaren 8an. "Oraindik orain, euskara bere sorlekuan tokia bilatu ezinik dabilela" salaketa dute, besteak beste. Egoera horretan, lurgune euskaldunen garrantzia azpimarratuko dute. Horretan, denek lana egin behar dutela adierazi zuen Malen Belastegi Uemako lehendakariak aurtengo Uema eguna aurkezteko egindako prentsa agerraldian: "arnas-guneek airea behar dute bizitzeko, aire berria. Eta horretan, udalerriotako ordezkari politikak, eragile sozial edota herritarrez gain, goi administrazioak ere badu zereginik. Ez orain dela hoge urte ezarritako legeak, ez eta instituzio nagusietatik bultzatutako neurriek ere, ez dute aipatu eremuen erabateko euskalduntzea bultzatzen. Horren adibide argia da, hainbat udaletatik hizkuntza politikak aurrerakoak landu ditugunean, legea bera izan dela bidea itxi diguna, euskarari airea kendu diona".

Lege aldaketa eskaera

Horri lotuta, eta euskararen alde, egungo legea aldatzeko eskaera ere egin zuen Belastegik: "Bada garaia, lurgune euskaldunek gure hizkuntzaren geroan jokatzeko duten pape-



Ramon Ajuria, Maren Belastegi eta Jose Mendizabal Uema Eguna aurkezteko agerraldian. | UEMA

ra aitortu, eta udalerriotatik egiten ari den esfortzua laguntzeko eta bidea errazteko. Behar diren lege aldaketak gauzatu eta udalerrri euskaldunen garapen linguistikoa bermatuko duten bestelako neurriak ere hartzeko".

Denendako gonbidapena

Ramon Ajuria Aramaio alkateak, bestalde, eskerrak eman dizkie antolakuntzan parte hartu duten guztiei: "Aramaio 17 urte baino gehiago daramatza UEMAn, eta Mankomunitateari esker, udalerrri euskalduntzeko urrats eraginkorrak eman ahal izan ditugu. Horregatik, gustura eta ilusioz hartu dugu UEMA eguna gure herrian antolatzeko. Herri dinamikoa da gurea, eta herritar ugari inplikatu dira prestaketa lanetan. Herritarren

esfortzua eskertu gura dut. Izan ere, beraiei esker egitarau zabal eta erakargarria osatu ahal izan dugu". Euskal herritar guztiak gonbidatu ditu Ajuriak Aramaioa joateko: "Aramaio ezagutzeko eta euskarari aire berria emateko aukera ederra duzue. Eskuzabalik hartuko zaituztegu".

Maren Belastegik ere luzatu du Uema Egunera joateko deia: "Arnasten jarraitzea eta arnasegunea zabaltzeko joateko, aire berria da euskarari eskaini nahi dioguna. Eta horixe da UEMAK ekainaren 8an, Aramaion, festa giroan eta egitarau zabalaren babesean aldarrikatu nahi duena. Euskalgintzako hainbat ordezkari izango ditugu gurekin, baita instituzioetako ordezkariak ere; egun eder bat pasatzeko gonbidatu nahi zaituztegu".

EGUN OSOKO EGITARAUA PRESTATU DUTE

11:30 Etxafuegoa jaiari hasiera emateko. Jarraian, trikitilariak eta dantzariak.

12:00 Herri kirolen lehiaketa. Goizueta eta Aramaio herrien arteko lehia izango da.

13:00 Ekitaldia plazan. Herriko abesbatzak eta bertsoariak hartuko dute parte.

14:00 Herri bazkaria.

16:30 Ane eta piratak parrandan! Irrien Lagunen ikuskizuna.

18:30 Erromeria Zesuma taldearekin.

22:00 Kontzertuak.

▶ **Goizean zehar:** Haurrendako puzgarriak, artisau azoka, talogileak eta sagardo salmenta.

▶ **Bazkarirako txartelak:** Salgai egongo dira Aramaioko ohiko tabernetan. Prezioak hauexek dira: langileak 18 euro, langabetuak 14 euro eta umeak (14 urte bitartekoak) 10 euro. UEMAKo telefonora deituta ere eros daitezke: 94 627 91 95



Poteo musikatuan elkartutako koadrila. | JAGOBA DOMINGO

ARAMAIO

Ilargi beteak Eguzkierripako gaua argitu zuen

- ▶ Goizetik hasi ziren Aramaioko kaleak girotzen
- ▶ Sei taldek jo zuten gauean Andramari ermitan



Dirty Brothers taldeko Sala eta Agina. | IMANOL SORIANO



Bazkaria Eguzkierripa auzoan. | IMANOL SORIANO

JAGOBA DOMINGO | ARAMAIO

Eguzki izpiak agertu ziren Eguzkierripa Rock jaialdiaren bosgarren urteurrenean eguna alaitzeko. Goizean ekin zioten bosgarren edizioari poteo musikatuaz Aramaioko tabernetan zehar. Hasi-eran jendeari animatzea kosta bazitzaion ere, pixkanaka musikaz alaitu zituzten Aramaioko kaleak bazkarirako gosea egin bitartean. Egun luzea izango zela agerian zegoen arren, musika taldeetako hainbat partaide bertan zeuden goizetik makina berotzeko gogoarekin.

Poteoa amaitu ondoren, Eguzkierripa auzora joateko momentua heldu zen, bertan bazkaldu eta indarrak hartzeko, ondoren Aramaio eta Otxandioko muga jokatu zutelako.

Punk-rock-a eta erromeria

Ilargi beteak presentzia egin aurretik hasi ziren taldeak oholtza gainetik pasatzen. Guztira sei taldek jo zuten, Aramaioko GRT eta El Exterminio de la Raza del Mono eta Arrasateko Dirty Brothers punk-rock doinuak defendatzen; Izargi taldea erromeriaz Eguzkierripa alaitzen; Runba Gerrilla eta Bertso Tabern, folk musika irlandarra eta bertsoak uztartzen dituen ikuskizuna. Gau beroa izan zen, eta bertara gerturatutakoak, ez zuten asperetzeko inongo aukerarik izan.



ARETXABAETA

IMANOL SORIANO

Asko saldu zuten Herrirakoek

Bigarren eskuko gauzen postua jarri zuten zapatuan plazan eta "oso pozik" daude izandako erantzunarekin. Etxeko tresnak, arropa, umeendako jolasak bizikletak... saldu zituzten. Taldeak eskerrak eman nahi dizkie "materiala emandako herritarrei, zein erosi zutenei, eta Belar meta dendari, Kioskoari eta Urbaltz eta Azkena tabernei".



OÑATI

IMANOL SORIANO

Bizikleta konpontzen gustura

Bizikleta tailer soziala egin zuten zapatuan Oñatin eta 20 bat lagun elkartu ziren bertan. Bizikletaren mantenu eta mekanika argibideak emateko tailerra izan zen eta Antton Zubia oñatiarra izan zen gidaria: "Italiatik ekarri genuen ideia eta Euskal Herrira zabaltzen gabiltza orain. Oñatin oso erantzun ona lortu dugu", kontatu zigun.



ARRASATE

JAGOBA DOMINGO

St. Pauli taldearen jarraitzaileak

Beste bat! lagun-taldearen eguna ospatu zuten zapatuan. Eguraldi aurreikuspen kaxkara zela eta, hainbat ekitaldi bertan behera geratu ziren. Hala ere, arrasaldean hasita Dat eta Iluntz tabernetan musika kontzertuez eta magia gozatu zuten Hanburgoko St. Pauli futbol taldearen jarraitzaileak. Gauean gaztetxean egin zituzten kontzertuak.



Domeka arratsaldean herriko plazan batu ziren neska-mutiko guztiak alardea egiteko. | JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETAKO

Aurreku, txakarranka eta arku-dantza artean ibili ziren atzo Aretxabaletan

180 neska-mutiko inguru elkartu ziren Haurren Eguna ospatzeko

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETAKO Tamainaz txikiak izan arren, arazo barik bete zuten atzo, domeka, Aretxabaletako plaza. Gure ibarreko dantzari txikiez ari gara berbetan. Haurren Eguna ospatu zuten atzo Aretxabaletan eta Arrasate, Oñati, Sorluze eta Aretxabaletako

dantza taldeetako neska-mutikoak izan ziren eguneko protagonista handiak. Guztira, 180 dantzari txiki inguru elkartu ziren.

Aretxabaletako Leizarra musika eskolak antolatuta egun osoko festa egin zuten euskal dantzen bueltan. Goizean kale-

jiran ibili ziren eta bazkaltzeko atsedeneren ostean, arratsaldean, alardea egin zuten herriko plazan.


Atzo Aretxabaletan battutako dantzarien gogoa eta sasoia ikusita, euskal dantzek etorkizuna ziurtatuta daukate gurean.

ITZIAR CID ETA ALAITZ BENGOA
ARRASATE


"Egun guztia daramagu dantzan. Goizeko saioaren ostean bazkaltzera joan gara eta orain arratsaldean alardea daukagu".

UNAI IZURA
OÑATI


"Denetarikoz dantzak egin ditugu: aurreku, banakoa, txakarrankua eta beste batzuk. Nik neuk aurreku dut gustukoena".

MAIDER URRUTIA
ARETXABALETAKO


"Goizean kalejiran ibili gara eta orain alardea egingo dugu. Hau da, herri bakoitzeko dantzariak taldeka irtengo gara plazara dantza egitera".



BERGARAKO

JOSETXO ARANTZABAL

87 urtekoei omenaldia Bergaran

San Xosepe erretiratuen elkarteak eta Bergarako Udalak urtero omentzen ditu 87 urteko bergararrak eta atzo, domeka, ospatu zuten egun handi hori. 74 lagun omendu zituzten, nahiz eta ekitaldian 44k hartu zuten parte. Meza izan zuten lehenik San Pedro parrokian eta amaieran San Xosepe abesbatzak abestu zuten. Gero, erretiratuen elkarteko egoitzara joan ziren eta han harrera egin zieten Jesus Elortza alkateak, Leire Iruin zinegotziak eta Iñaki Zabala elkarteko presidentek. Opariak eta lunch-a ere izan zituzten.



Mutikoa arku-tiroa egiten. | IMANOL SORIANO



Neska-mutikoak xaboiak egiteko txokoan. | IMANOL SORIANO

OÑATI

Urgain Eskolak kolorez jantzi zuen zapatuan Oñatiko plaza

Abenturazko txokoak eta hainbat tailer egin zituzten herriko plazan zapatu arratsaldean

A.B. | OÑATI

"Argi daukagu eskola publikoa denona dela eta horregatik urtero kalera irten nahi izaten dugu egun batez. Oñatiarrei, eskola publikoarekin ondo pasatzeko aukera eskaini nahi diegu", kontatu zigun zapatu arratsaldean Errekalde guneko guraso elkarteko presidente Amaia Bikuñak.

Oñatiarrak ondo pasatzea zuten beraz helburu Urgain Eskolakoek eta baita lortu ere. Neska-mutikoak ederki baino hobeto ibili ziren herriko plazan antolatutako ekintzetan. Asper-

tzeko aukerarik ez zen izan. Aurten gainera, abenturarekin lotutako txokoak antolatu zituzten: "Urtero gai bat aukeratzen dugu Urgainen festarako eta aurten abenturarekin lotutako txokoak eta tailerrak egitea erabaki dugu". Hori horrela, oreka lantzeko soka, arku-tiroa eta ohe elastikoak ipini zituzten, besteak beste. Horrez gain, xaboiak, kandelak edo maskarak egiteko tailerrak ere egin zituzten. DBHko ikasleek berriz, bokatak eta pastelak ipini zituzten salgai ikas-bidaiarako dirua batzeko.



ARRASATE

IMANOL SORIANO

Jana, dantza eta omenaldiak

800 erretiratu inguruk Arrasateko kiroldegia bete zuten SUDC elkarteak antolatutako bazkarian. Giro ederrean bazkaldu zuten zapatuan eta ondoren, 95 urte dituzten Ignacia Llodio eta Sebastian Artolari omenaldia egin zieten. Arratsaldeari amaiera bikaina emateko, musikaren erritmora dantzan gustura ibili ziren.



Familia giro ederrean afaltzeko aukera eskaintzen du Garagardo Azokak. Irudian, iazko festa. | GOIENA

Arrasate Rugby Taldearen 15. Garagardo Azoka eguaztenetik zapatura

Eguenean karpa itxita egongo da greba deialdiagatik; zapatuan jokatu da Zazpinako Txapelketa Mojategin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Oso gutxi dira Mojategira Arrasate Rugby Taldearen partiduak ikustera joaten diren arrasatearrak. Hala ere, azken 15 urteotan Herriko plazan egiten den Garagardo Azoka ezaguna da gehienondako. Ezaguna eta arrakastatsua, urtez urte gero eta jende gehiago erakartzen du eta ukitu alemaniarra duen festak.

Azokaren arrakastaz konturatzeko, aurtengo datuak ikustea besterik ez dago: 2.190 litro garagardo eskatu dituzte, bost marka ezberdinetakoak. Ohikoena garagardoa pitxarretik edatea bada ere, litro laurdeneko 750 botila eskatu dituzte. Eta noski, jaki alemaniarrik ez da faltako: 2.700 opil, 375 oilasko, 720 txerri ukondo eta 140 saltxitxa lata eskatu dituzte. Aurten, nobedade moduan, patata-minen errazioak salduko dituzte. Edari eta jaki horiek prestatu eta zerbitzatzeko, Arrasate Rugby Taldeko kideak ibiliko dira jo eta ke lanean.

Herri kirolak irekiera egunean

Eguaztenean, hilak 29, irekiko ditu ateak 15. Garagardo Azokak. Irekiera egunean, iaz egin moduan, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean, herri kirolak egingo dira (18:30): sokatira, zaku-lasterketa, txingak eta artaburuen bilketa. Talde bakoitzak zortzi kide izango ditu eta izena emateko aukera egongo da egunean bertan. ART-eko Joseba Maidaganek azaldu digu zergatik erabaki duten ekintza errepikatzea: "Iaz harrera ona izan zuen eta

interesgarria da guretako unibertsitateko ikasleek ere Garagardo Azokan parte hartzea. Modu kurioso bat da azokarekin has-teko". Hainbat sari banatuko dira, eta txapeldun geratzen den taldeak afora irabaziko du. Egun horretan *pintxo-garagardoa* izena jarri dioten ekimena egingo dute: 18:30etik 21:00etara, gura duenak euro baten truke garagardo botila izango du eskuragai, eta horrekin batera saltxitxa pintxoa.

Eguenean itxita, grebagatik

Irekiera ofiziala, baina, Udaleko ordezkariak egingo dute, 20:30ean;

ARTeko kide eta ekimenaren babesle guztiak batera karpan afalduko dute. Musika ez da faltako, eta gauerdia arte eskaintza berezia egongo da: lehen garagardo pitxarra lau euroren truke, eta bigarrena hiru eurotan. Eguenean, berriz, greba orokorrerako deia dela-eta, azoka itxita egongo da eta egubakoitzean irekiko ditu ateak berriro, 18:30ean. Gauerdia arte ohiko menuak zerbitzatu-ko dituzte: txerri ukondoa, saltxitxa eta oilaskoa. Zuzeneko emandiririk ez da egongo, baina musikaririk ez da faltako. Zapaturako plana berbera izango da.

Bestalde, duela bi urte eman ziren lapurretengatik segurtasun zerbitzua kontratatu dute: "Ez da gure gustukoa halako neurriak hartu behar izatea, baina ez dugu orduko gertaera errepikatzerik nahi", dio Maidaganek.

15. Zazpinako Txapelketa

Zapatua izango da Garagardo Azokako egunik potoloena, egun horretan jokatu da eta 15. Nazioarteko Zazpinako Errugbi txapelketa.


Aurrekoetan bezala, partiduak Mojategin izango dira, 15:00etan hasita. Maidaganek aurreratu duenez, gizonaek osatutako "sei edo zazpi" talde eta emakumezkoek osatutako beste "bi edo hiru" izango dira aurten. Talde bakoitzean 12 jokalaririk izango dira. Sari banaketa zapatuan egingo da karpan, 21:00etan. Eta noski, urtero moduan, parte hartzaile guztiak elkarrekin afalduko dute bertan.

Oliveresen hitzaldia gaur Amaia antzokian (19:00)

J.B. | ARRASATE

Harreman, Ale, Lanki, Elkarhiztzen, Bagara, Open3 eta Mundukidek antolatuta, desazkundeen ideologo ezagunenetakoa den Arcadi Oliveres (Bartzelona, 1945) ekonomialariaren hitzaldia egongo da gaur Amaia antzokian, 19:00etan.

Hitzaldiaren izenburua da *Economía, cooperacion y conciencia* eta, besteak beste, herrialde garatuak gutxiago kontsumitu beharra dutela aldarrikatu du Oliveresek. Izan ere, desazkundeen aldeko mezua konbentzimendu osoz zabaltzea erabaki zuen ekonomialari kataluniarrak aspaldi.



Arcadi Oliveres. | MIAGORAPARTICULAR.COM

Arrasate Zero Zabor taldeak antolatutako hitzaldia bihar Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita

Arrasate Zero Zabor taldeak antolatutako hitzaldi zikloa bihar amaituko da. Zikloa hasi zuten hitzaldi berarekin amaituko dute: *Hondakinak... Geuk sortu, geuk kudeatu*. Zero Zabor taldeko ordezkariak egingo dute berba eta gaztetxean egindako lehen saioan nahi baino jende gutxiago egon arren, jendearen parte-hartzea goraipatu dute antolatzaileek. Hitzaldia Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan. Ekainerako beste ekintza batzuk antolatu dituztela aurreratu dute.

Besaide mendizale elkarteko Beteranoen XII. irteeran izena emateko azken eguna da gaur

Besaideko beteranoen XII. irteera domeka honetan, ekainak 1, egingo da Araban. Antolatzaileek bederatzik kilometroko ibilbidea prestatu dute eta egin duten kalkuluen arabera, lau ordu eta erdi iraungo du gehienez. Gaur da izena emateko azken eguna: ordainketa egin behar da 3035 0202 76 2021021758 kontu korronte zenbakian. Elkarteko bazkide eta federatu direnek 46 euro ordaindu beharko dute, bazkide bai baina federatuta ez daudenek 48 euro eta gainerakoek, 50 euro. Informazio gehiagorako: 943 77 30 66.



JOKIN BEREZIARTUA

Jim TNT, pintxo-poteoa girotzeko

Arrasateko Jim TNT bakarlarik kontzertua eskaini zuen egunean Taupa tabernan. Los Cretinos taldean ere jotzen duen musikariak bakarlarik moduan jotzen dituen abestiak jo zituen, pintxo-poteoa girotuz. Gitarrekin eta harmonikarekin trebea dela erakutsi zuen beste behin eta denetarikoinuak –rocka eta countrya batez ere– eskaini zituen orubete inguru iraun zuen emanaldian.



Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra egueneko desfilean erakutsi zuen jantzia ondoan duela. | AMAIA ALBES

XIX. mende hasierako moda, Amaia Albesen irudimenetik

Donostiako erreketaren (1813) garaiko jantzi bat erakutsi zuen joan den eguenean, Basque Culinary Centre-n egindako desfile berezi baten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra *Cook and Fashion Histórico* desfilean hartu zuen parte eguenean, Basque Culinary Centre-n. XIX. mendeko soineko bat prestatu zuen egun berezira. 1813ko abuztuaren 31n Donostia erre zutela gogoratzeko ekitaldia izan zen eta orduko jantziak erakutsi zituzten 14 diseinatzailek. Horien artean, Amaia Albes arrasatearra: "Nobleziaren jantzi bat egitea erabaki nuen, kortsea duelako eta asko gustatzen zaidalako. Merinake izena duen gona egin nuen, beheko zatia

bolumena irabazteko metalezko egitura duena; gustura geratu nintzen emaitzarekin. Egun ederra izan zen", adierazi digu.

ESANAK

"Nobleziaren jantzi bat egin nuen, kortsea duelako"

AMAIA ALBES | DISEINATZAILEA

Etzi, 'Gure Moda Gaur 2013'

Lanik ez zaio falta eta pozik dago horregatik; adibidez etzi, hilak 29, *Gure Moda Gaur 2013* lehiaketan erakutsiko ditu bere diseinuak. Etorkizun oparoa duen diseinatzaileak elkartzen ditu lehiaketak eta aurten bigarren aldiz antolatu dute.

Lehiaketarako hautatua izateko *Once upon a time* izeneko bilduma txiki bat aurkeztu zuen. Donostiako Zorroaga elizan izango da (20:00) eta Albesek aurreratu digunez, bost eredu erakutsiko ditu. Guztira 15 diseinatzaile lehiatuko dira.



IBON IRASTORZA

Bizkaiko Biraz gozatu zuten Besaide elkartekoek

Bizkaiko Biraren 15. etaparen barruan Areta eta Orozko arteko ibilbidea egin zuten Besaide mendizale elkartekoek hilaren 19an. Eguraldi freskoa eta nahiko ilunari aurre egin behar izan arren, gustura ibili ziren. Gainera, Gorbeako museoa ikusteko ere aprobetxatu zuten irteera. Hurrengo ekainaren 16an izango da; antolatzaileek Orozko eta Ubidea arteko ibilbidea prestatu dute. Edonork har dezake parte.

Sanjuanetako kartel lehiaketarako azken eguna, ekainaren 3a

J.B. | ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak aurkeztu du San Juan jaietarako kartel lehiaketa. Edonork har dezake parte eta lanak aurkeztuko azken eguna ekainaren 3a izango da. BAZen entregatu behar dira lanak, 19:00ak baino lehen. Teknika librekoa den arren, kartelaren formatua bertikala izan beharko da derrigorrez. Gainera, 2013 San Juan Jaiak Arrasate testuaz aparte, Sanjuanetarako propio egin den

esaldi lehiaketako esaldi irabazlea izan jaso beharko du kartelak: *Jaixetan egiSu!*. Izan ere, Eneritz Urrutiaren esaldi hori jaietako materialen euskarri ezberdinetan –zapi, peganina...– erabiliko da, baita kartelaren ere.

750 euroko saria

Irabazlearendako saria 750 eurokoa izango da eta Udalak egoki ikusten badu erakusketa bat egin dezake kartel guztiekin.

Fiachras taldeak itxiko du Kooltur-en hirugarren urtea, ekainaren 6an

Grebagatik asteen ez da kontzerturik egongo; laugarren ikasturtea urrian hasiko da

J.B. | ARRASATE

"Kooltur Ekintza taldeko kideak ere langileak gara eta greba deialdiarekin bat egingo dugu. Hori bai, ikasturtea apur bat luzatuko dugu eta ekaineko lehen eguenean kontzertua egongo da, hirugarren ikasturteko azkena", Iker Barandiaran Kooltur Ekintza taldeko kidearen hitzak dira. Eguzi honetan ere gaztetxea itxita egongo da, beraz. Hurrengo eguenean, ekainaren 6an, itzuliko dira

Kooltur Ostegunak, Debagoienan hainbat jarraitzaile dituen Fiachras taldearekin. Haritz Artola, Aitor Aldanondo eta konpainiak gaztetxea bete egingo dute seguruenik; gainera, Sumision City Blues taldearekin batera egindako *single*-arekin datoz, bi kantu berrirekin –*Antes de marcharme* eta *57 segundos*–. Laugarren ikasturte bat egongo dela ziurtatu du Barandiaranek; eguzi musikatuen errubera ez dadila geratu...



Fiachras taldearen zuzeneko bat, Eskoriatzan. | GOIENA

Emarock erakusketa ikusteko azken egunak Kulturateko klaustroan, bihartik eta domekara arte

Emakume musikariak euskal rock esparruan duen presentzia islatzea helburu duen Emarock erakusketa ikusteko azken egunetan sartu gara dagoeneko. Euskal Herriko askotariko herri eta jaialdietako kontzertuetako zuzeneko argazkiez gain, elkarrizketak, prentsan argitaratutako artikuluak eta diskoen azalak daude ikusgai Kulturateko klaustroan. Hilaren 31ra arte egongo da zabalik, eta bihartik domekara bisitatu ahalko da. Ordutegia da 17:30etik 20:30era.

Manu Muniategiandikoetxea | Artista

"Artista guztiok egiten dugu lehenengo jaso eta gero sortu"

- ▶ Mediatekaren erabileraren gaineko hausnarketa hasi dute Artelekun
- ▶ Sormen-prozesuaren gaineko hiru saio eskainiko ditu artista bergararrak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Sormenari eta sormenerako prozesuei buruz hausnartu eta eztabaidatzeko foro bat sortu nahian, Artelekuko Mediatekan ekimen berri bat jarri dute abian. Artearen munduari lotutako hainbat lagun gonbidatuko dituzte eta haien ibilbidean zehar mediatekari eman dioten erabilpena azalduko dute horiek. Manu Muniategiandikoetxea bergararra da artista gonbidatuetako bat.

Zer da eztabaidatzeko foro berri honekin Artelekuk lortu nahi duena?

Mediatekaren erabileraren gaineko hausnarketa egitea da asmoa. Gaur egun Interneten nahi dugun guztia topatu dezakegu eta ondorioz mediatekak gero eta gutxiago erabiltzen dira. Horren inguruko hausnarketa egitea da asmoa eta gune horri beste erabilpen bat ematen ahalegindu. Artelekuko mediateka asko erabilitakoa naiz ni, eta horregatik gonbidatu naute.

Interneten dena topatu daitekeen arren, suposatzen dut mediateka batek xarma berezia izaten jarraituko duela.

Noski baietz. Zentzu horretan gainera, oso fetitxista izaten jarraitzen dut. Niretzako objektuak, liburuak, asko ematen du. Dena dela, azken urteetan hori asko aldatu da eta horixe da hausnartzen ari garena. Ze beste erabilera eman ahal diezaiokegun gune horri.

Artelekuko mediateka asko erabilitakoa zarela diozu...

Bai. Hala da. Artelekun egon nintzen hiru edo lau urteetan liburutegia asko erabili nuen.



Manu Muniategiandikoetxea artista bergararra. | GOIENA

"Gure lan egiteko moduaren 'striptease' bezalako bat da"

Uste dut artista guztiok egiten dugula hori; lehenengo jaso eta jantzi eta ondoren, horren arabera sortu.

Zein da zure egitekoa eskainiko dituzun hiru saioetan?

"Artelekun egon nintzen urteetan liburutegia asko erabili nuen"

Artista bakoitzak dauka dokumentatzeko modu bat eta sormenerako bide bat. Hori azaltzea da gure asmoa. Gure lana egiteko moduaren *striptease* bezalako bat litzateke.

Kirol Zerbitzuak mini ikastaroak antolatu ditu

6 orduko ikastaroak dira igeriketa, gimnasia terapeutikoa eta eskimotajea egiteko

A.B. | BERGARA

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak, jasotako eskaerei erantzunez, hiru ikastaro labur antolatu ditu gai zehatzen inguruan eta ordu gutxiagokoak. Horietan izena emateko aukera dago maiatzaren 31ra arte.

Helduendako igeriketa

Igeri egiten jakin arren, teknika hobetzea nahi dutenendako ikastaroa da. Ekainaren 4, 6, 11, 13, 17 eta 19an egingo da Agorrosingo igerilekuan.

Gimnasia terapeutikoa

Osasunari bideratutako gimnasia konpentsatorioa da. Lesioak izan berri dituen jendeari, bizkar hezur patologia dutenei eta orokorrean, aurrezaintza gimnasia ikasi nahi dutenei dago zuzendua. Ekai-



Mutikoa piraguan. | GOIENA

naren 4, 6, 11, 13, 17 eta 19an egingo da.

Gimnasia terapeutikoa

Piraguismoa probatu nahi dutenendako ikastaroa da. Ekainaren 17, 18, 19 eta 20an egingo da Agorrosingo jolas-igerilekuan.

Ondasun higiezinaren gaineko zergen kobrantza

Hiri-lur eta landa-lur ondasun higiezinaren zerga ordaintzeko epea zabalik, uztailaren 1era arte

A.B. | BERGARA

Bergarako Udalak jakinarazi du uztailaren 1era arte zabalik dagoela hiri-lur eta landa-lur ondasun higiezinaren zerga ordaintzeko epea. Hain justu ere bergararrek uztailaren 1era arte izango dute horretarako aukera.

Helbideratutako erreziiboak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean kobra-

tuko dira ekainaren 26an. Helbideratu gabeko erreziiboak, bestetik, udaletzeko diru-bilketak zerbitzuan ordaindu beharko dira: astelehenetik egubakoitzera 07:30etatik 13:30era edo larunbatetan 09:00etatik 13:00etara. Bestela, finantza erakundeetan, kutzazainetan, banku elektronikoetan edo Udalaren zerbitzu telematikoak erabilia www.bergara.net-egin beharko da ordainketa.

Maiatzaren 30erako greba eguna antolatzeko batzarra egingo dute gaur 19:00etan Irizarren

Euskal gehiengo sindikalak eta beste hainbat eragilek greba orokorrerako deialdia egin dute eguenerako, maiatzak 30. Bada, Bergarako Greba Batzordeak gaur, astelehena, bilera egingo du Irizar Jauregian 19:00etatik aurrera. Asmoa da eguenean, greba egunean, egingo diren "ekintzak antolatzea eta eguneko egitaraua diseinatzea". Batzordeko kideek adierazi dute interesa duen edozein herritar joan daitekeela bilera.

Erlantz Urtasun idazleak 'Historia de Navarra' eta 'Iruñsheme-iruinalabak' liburuak aurkeztuko ditu

Nafarroako historia eta kultura gustuko dutenek hitzordu berezia dute ekainaren 4an, martitzena, Irizar Jauregian. Erlantz Urtasun idazle eta historialari iruindarrak bere azken bi liburuak aurkeztuko ditu: *Historia de Navarra* eta *Iruñsheme-iruinalabak*. Aurkezpenean 19:00etan izango da eta interesa duen edonor gerturatu daiteke bertara. Bi lanak aurkezteaz gain Urtasunek bertaratzen diren galderak eta zalantzak argituko ditu.

Shell Eco Marathon lehiaketan bikain

Rotterdam ospatu den Shell Eco Marathon lehiaketan onenen artean sailkatu ziren Bergarako Miguel Altuna Institutuko ikasleak. Gasteizko Mendizabala Institutuarekin batera prestatutako Urban Concept kategoriako hidrogenozko bateriadun ibilgailua, 7. postuan gelditu zen.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



Ikasleak Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. | MARIAN GONZALEZ

Ikasleak eta Udal ordezkariak herria hobetzeko elkarlanean

Eskola Agenda 21en baitan landutakoa udaletxera eraman zuten eguaztenean

JONE ALBENIZ | OÑATI

Herriko ikastetxe guztietako 1.000tik gora ikaslek hondakinen diagnostikoaren gaia tratatu dute Eskola Agenda 21 egitasmoaren baitan, eta landutako ideiak Udal

ordezkariekin elkarbanatu zituzten eguaztenean udaletxeko plano aretoan.

Oñatiko ikastetxe guztietako -Urgain, Elkar Hezi eta Txantxiku- 1.000tik gora ikaslek parte

hartu dute programan; herriko egoera aztertu dute ikasturtean zehar eta Udal ordezkariari hobe-kuntzak proposatu zizkieten. *Sortzen ditugun zaborrak* izan da aurten heziketa-programan

landutako gaia eta eguaztenean zeuzkaten ideia original eta interesgarriak jendaurrean azaltzeaz gain, gaiaren inguruko zalantza eta kezka nagusiak ere partekatu zituzten Udal ordezkariekin.

Ideiak banatuz

Ikasturte bakoitzean garapen iraunkorrarekin loturiko gai baten azterketa egiten dute ikastetxeetan eta 2012-2013an hondakinen diagnostikoa landu da Eskola Agenda 21 programari jarraituz.

Hori horrela, egungo egoera aztertu ondoren, herrian aurkitutako arazoak konpontzeko proposamenak luzatu zizkieten udal ordezkariari. Maiatzaren 22an ospaturiko udalbatzarrean, ikasleek egindako proposamen bakoitzari erantzun zioten, eta Udalak etorkizunera begira dituen proiektuak azaldu zituen.

Konpromiso eta ideia ugari

Modu berean, ikasleek herriko egoera hobetzearen alde hartzen dituzten konpromisoak aurkeztu zituzten: besteak beste, hondakinak gaika sailkatzea, bilgarri gehiegi dituzten produktuak saihestea, arraina eta haragia erosteko orduan tuperra erabiltzea edo konposta egiteko kanpainian parte hartzea.

Proiektua garatu ahal izateko, hezkuntza-komunitate eta Udalaren arteko harremana ezinbestekoa dela ere gogora ekarri zuten eguaztenean egindako bilkura berezian.

Zirko tailerra hasiko dute ekainean gaztetxean

Antixenako taberna zabalik egongo da asteburuetan ekainetik aurrera eta udan, egunero

O.E. | OÑATI

Zirko tailerrari hasiera emango diote ekainean Antixena gaztetxean. Tailer hori ikastaro iraunkorra izango da, eta ekainaren 4an egingo duten saioa, lehenengo izango da.

Zirko tailerra da, besteak beste, Antixena gaztetxean ekaineko antolatutako ekitaldietako bat. Horrez gain, baina, badira beste ekintza batzuk, adibidez, San Juan bezperako asteburuan egingo duten kanpaldia.

Ekainaren 21ean, eta 22an egingo dute eta 23an, San Juan sua.

Taberna zabalik

Kontzertuak ere egingo dituzte ekainean zehar Antixena gaztetxean. Ekainaren 1ean, adibidez, Olaztik Stupenda Jones eta Oñatiko Bitz taldeek joko dute. Aurretik, poteoa egingo dute Etxaluzetik hasita. Hilaren 7an, berriz, El trio Calavera talde oñatiarrak joko du. Hilaren 15ean, berriz, I. Alde Hemendik egun nazionala egingo dute Oñatin, Fan Hemendik egunarekin batera, eta Anti-

xena gaztetxeak bat egingo du egun horrekin.

Bestalde, ekainetik aurrera zabalik egongo da gaztetxeako taberna, asteburuetan. Udan, gainera, egunero zabalduko dute.

Egubakoitzean, Josu Zubia

Ekainean sartu aurretik, baina, eta maiatza bukatzeko, kontzertua egongo da gaztetxean. Josu Zubiak eskainiko du kontzertu hori egubakoitzean, hilak 31. Zubiak gaztetxean bertan egingo du emanaldia, 18:30ean.

Jose Milikua arte historialari oñatiarra hil da Bartzelonan

Jose Milikua (Oñati, 1921) arte historialaria Bartzelonan hil zen maiatzaren 21ean. Bartzelonako Unibertsitatean lizentziatu ondoren, Italia aldera joan zen 1950an. Caravaggioren obretan nazioarteko aditu onenarikoa bilakatu zen. Irakaslea izan zen hainbat ikastetxe eta Arte Eder fakultatetan: Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean, esaterako. Prado Museoko patronatuko kidea 1993 ezker eta San Fernando-ko Arte Ederretako Errege Akamedia-ko ohorezko kidea.

Hirugarren adinean auto-istripuak nola saihestu, Pake Lekun

Pake Lekun hirugarren adinean auto-istripu eta harripaketak saihesteko moduak ardatz izango dituen berbaldia antolatu du. Pake Lekun erretiratuen elkartearen egotzian bertan izango da ekimena, bihar, maiatzak 28, 17:30ean hasita. Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroko kide batek eskainiko du hitzaldi ludiko-didaktikoa eta gutxi gorabehera ordu bete inguru iraungo duela eman dute aditzera antolatzaileek.

Emakumeen osasuna hizpide Andraitzek antolatutako berbaldian

Bihar Emakumeen Osasunaren Nazioarteko eguna dela eta Andraitz feminista taldeak hitzaldia antolatu du. Hala, Itxasne Martinez Murgibe aholkularitzako kideak Kultura etxean egingo du berba, 18:30ean hasita. Emakumeen osasunaren inguruan hainbat arlo joarratuko ditu Martinezek, ikuspuntu ezberdinak emanez. Besteen artean eskubide sexual eta erreproduktiboak izango ditu hizpide. Andraitzetik gura duten guztiei egin diete dei parte hartu dezaten.

Itziar Ugarte oñatiarra nagusi Urruzuno literatur lehiaketan

Itziar Ugarte Irizar Txantxiku ikastolako batxilergoko 2. mailako ikaslea da eta Urruzuno saria irabazi du hirugarrenez aurten. Hain zuzen ere, prosa eta poesia ataletan lortu du 1. go postuan gertzean, *Euligunetako sugandilak* eta *Katebegiak* lanei esker, hurrenez hurren. Baina sariez gainera, Elgoibarko Aubixa aterpetxean lau eguneko egonaldia egingo du Ugartek, beste hainbat kiderekin batera literaturarekin zerikusia dituzten jardueretan parte hartuz.

Oinezkoentzat gunea egokitu dute San Pedro zubi gainean

San Pedroko zubiaren gainean oinezkoentzako gunea bat egokitu eta ondorioz, errepidea estutu behar izan dute. Madalenara doan eta Kasablankatik datorren bidegorri zatiarekin bat egiten den tokian oinezkoak segurtasun gehiagoz ibiliko dira aurrerantzean.



MIREIA BIKUNA

Irabazi asmorik gabeko gazte taldeei dirulaguntzak

JONE ALBENIZ | OÑATI

3.850 euroko dirulaguntzak banatzea erabaki berri du Oñatiko Udalak. Gaztedia Departamentuak bideratzen dituen dirulaguntza horiek eskuratzeko bigarren deialdia egingo dute aurten urrian.

Lehen deialdian jaso ziren eskaera guztiak aztertuta, Udalak lau egitasmo diruz babestea erabaki du. Guztiak ere musikarekin lotuta daude; hala, hiru taldek disko edo maketa berria grabatu eta argitaratzeko dirulaguntza jasoko dute. Josu Zubiak diskoa grabatzeko asmoa du eta Bagauda eta ON HC taldeek, berriz, maketa. Iaz diskoa grabatu zuen Ez! taldeak, berriz, DVDA grabatzeko dirulaguntza jasoko du.

Guztira, 3.850 euro banatuko dituzte. Baina Udalak irabazi asmorik gabeko gazte taldeei zuzendutako dirulaguntzen partidan beste 5.650 euro ditu. Horretarako arautegian zehaztuta dagoenez, gerakin hori banatzeko bigarren deialdia egingo dute urrian.



Gaztetxoak mendiko bizikletan, iazko kanpainan. | ZUBIKOA KIROLDEGIA

Udako kirol kanpainako behin betiko izen-ematea 27tik 31ra

JONE ALBENIZ | OÑATI

Maiatzaren 23an, udako kirol kanpainako zozketa egin zuten kiroldegiko bulegoan. Emaitzak kiroldegiko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dituzte.

Behin betiko izen-emateei dagokienez, maiatzaren 27tik 31ra bitartean egingo dituzte. Izen emateko egokitutako egunean eta orduan joaten ez denak txanda galduko du eta zerrendako azken lekura pasatuko da. Bestalde, plazak bete arte onartuko dituzte izen-emateak. Izen emateko orduan, apuntatutako guztien inskripzio-orriak eroan behar dira, eta, noski, datuak ondo beteta.

Ekintza berriak

Urteroko eskaintza ezberdinez gain, aurten bi ekintza berri egiteko aukera egongo da: 5 eta 6 urteko umeei zuzenduta dauden jolasak eta 8-11 eta 12-14 urte arteko gazteei zuzendutako multikirola, hain zuzen.

Ekainean hasita, abuztura arte hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera egongo da. Hala ere, abuztuaren eskaintza urriagoa egongo da. Txanda desberdinetan banatuko da udako kirol kanpaina: lehenengo txanda, ekainaren 24tik uztailaren 5era; bigarren txanda, uztailaren 8tik 19ra; hirugarrena, abuztuaren 1etik 14ra; eta laugarrena, berriz, abuztuaren 20tik 30era.

Realaren lagun taldea sortu nahi dute herrian; martitzenean elkartu ziren zaleak kultura etxean

Herrian asko dira Donostiako futbol taldearen jarraitzaileak, eta ez dira gutxi Anoetara joateko ohitura dutenak. Dena den, Realak lagun talderik ez dauka egun Oñatin. Horregatik, bat sortzeko asmoa du herritar talde batek. Datorren martitzenean egingo dute horretarako lehen bilera, hilaren 28an. Dei egiten diete zale guztiei kultura etxera joateko, 19:00etan.

Corpusetako kontzertua egingo du Portuko plazan musika-eskolak datorren egubakoitzean, 19:30ean

Aurtengo Corpusetako musika-eskolaren kontzertua Portuko plazan izango da. Jose de Aspiazu eskolako ikasle eta irakasleen emanaldia datorren egubakoitzean izango da, maiatzaren 31n. Lorea Gomezek zuzenduko du eta zortzi kantu gertatu dituzte; moldaketak Bixen Ibarrondorenak dira. Egitarau erakargarria prestatu dute eta taldean partaide berriak izango dira.

Festetako txartel sarituak zeintzuk izan diren jakinarazi du Errekaldeko jai batzordeak

Egin zuten Errekaldeko jaietako zozketa; zenbaki sarituen zerrenda eman du jai batzordeak. Lehenengo saria 1.247 txartelarentzat da (ordezkoa, 2.708); tableta irabazi du. Bigarrena, 3.697 txartelarentzat (ordezkoa, 3.710); La Perlako talasoterapia-saioa. Hirugarren sari biak, Urbia tabernako afariak, 1304 eta 943 txartelak dituztenentzat dira (ordezkoak, 753 eta 3.634).

Malirako janari-bilketa arrakastatsua izan zen; antolatzaileek eskerrak eman dizkiete herritarrei

Janari asko batu zen Maliko eskolari laguntzeko egindako hiru asteko bilketan. Antolatzaileek esan dute 2.000 kilo janari batu zirela, guztira, eta eskerrak eman dizkiete lagundu zuten guztiei, batez ere jasotako guztia antolatzen aritu zirenei. Herriko bost supermerkatu eta dendatan egin zen kanpaina; Elkar Hezi eskolak ere kanpainarekin bat egin zuten.

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAREKIN

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 22an, 18:00etan

ALE – Aretxabaleta Lanbide Eskola

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

www.iaretxabaleta.com




BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 25ean, 11:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

www.imaltuna.com



OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzaren 28an, 18:30ean
(Larrañako egoitzan)

RM Zuazola – Larraña Institutua

☎ 943 78 21 50

www.onati.net

"etorkizuna zure esku"



AURREMATRIKULA: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. • **MATRIKULA:** uztailaren 8tik 12ra.



Artemanek grabatu du Kantu eta jolasak izeneko DVDa. | GORKA ZUBIZARRETA

ARETXABALETA-ESKORIATZA

'Kantu eta jolasak' DVDa jasotzen dabilta 228 ume

Aretxabaletan 4 eta 5 urteko ikasleen artean banatu dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Egunotan dabilta banatzen Aretxabaleta eta Eskoriatzako umeen artean *Kantu eta Jolasak* izeneko DVDa. Aretxabaletan, Arizmendiko Basabeazpi guneko eta Kurtzebarriko 4 eta 5 urteko 190 umeek jasoko dute; urtero, 4 urtekoen artean banatzen da, baina iaz banaketa egin ez zenez, aurten bi adinetakoek jasoko dute. Eskoriatzan, aldiz, Arizmendiko Jose Aranako eta Luis Ezeizako 38 neska-mutikoei eman diete dagoeneko.

Gainera, DVD horrekin batera, Kike Amonarrirek idatzitako

Biharko euskara, gaur-Su futuro euskara, hoy izeneko liburuxka ere banatu da. Horretan, hizkuntza-ohituretan modu egokian eragiteko aholkuak ematen zaizkie gurasoei, eta baita askotan izaten dituzten hizkuntza-ohiturei buruzko zalantzak argitzeko erantzunak ere.

Euskaraz jolasteko aukera

Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek 2006a ezkereratu dute, urtero, *Kantu eta Jolasak*. Horren helburua gurasoei umeekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea da. Normalean, egun,

gurasoek, euskaldunak izan arren, jolas eta abesti gehiago ezagutzen dituzte gaztelaniaz, eta gabezia horri aurre egiteko aukera izan dezaten egin dute DVDa. Abestiak laburrak direnez, guraso erdaldunek ere ez dute zailtasun handirik izango ikasteko.

Udalek eta Mankomunitateak elkarlanean egindako eta Artemanek grabatutako produktua 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta 21 kantu eta jolas batzen ditu. Besteak beste, esku, erritmo, zotz egiteko eta gomarako jolasak eta sokasaltoko abestiak ditu.

ESKORIATZA

Ekainaren 2ra arte jasoko dituzte sanpedrotako esaldiak

M.B. | ESKORIATZA

Sanpedrotarako hilabete pasatxo baino ez da geratzen, eta Eskoriatzako Udalak dagoeneko martxan jarri du aurtengo jaierarako esaldi lehiaketa. Gaurtik ekainaren 2ra bitartean aurkez daitezke esaldiak herriko kultura etxean, liburutegian eta kiroldegian jarritako ontzietan, edo euskara@eskoriatza.net postara mezua bidalita.

13 urtetik gorako eskoriatzarrek parte har dezakete, hiru eta bost lagun arteko taldeak sortuta. Bakoitzak, gutxienez,

esaldi bana aurkeztu beharko du, eta, gehienez, bost. Udaletik ohartarazi dute ez direla onartuko neurritz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak sustatzen dituzten esaldiak.

Kultura batzordeak osatutako epaimahaiak lehenengo aukeraketa egingo du, eta ekainaren 4an Udalaren webgunean erakusgai jarriko dituzte, herritarrek bozka ditzaten. Udalak afaria ordainduko dio aurtengo lehiaketa irabazten duen talde irabazleari, Eskoriatzako jate-txe batean.

Jendaurrean dira Euskara, Kultura eta Gazteria laguntzak

M.B. | ESKORIATZA

Ekainaren 13ra arte egongo dira jendaurrean Euskara Sustapenerako eta Kultura eta Gazteria arloetako diru laguntzen harira Eskoriatzako Udalak onartutako araudiak; gura duenak azter ditzake, eta, hala iritzi gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzake.

Euskara Sustapenerako laguntzei dagokienez, herriko merkataria eta ostalariek errota irudi korporatiboa euskaraz jartzeko ematen dira, baita eskoriatzarrek euskara

ikasteko matrikulak ordaintzeko ere.

'Kalitatezko' jarduerak

Kultura arloko laguntzak Eskoriatzako talde eta elkarteek aurten garatuko dituzten "kalitatezko" kultura jarduerak eta ekintzetarako bideratuko dira; eta Gazteriakoak gazteen parte hartzea eta ekimenak antola ditzatela sustatzeko helburuarekin sortu dira. Horiek jasotzeko, ekimenek izaera soziala, kultura edo hezigarria izan beharko dute.

Eskoriatzan Ogasun Higiezin Zerga ordaindu behar da uztailearen 12a baino lehen

Dagoeneko udaletxeko sarrera erregistroan jendaurrean jarrita daude landa eta hiri izaerako ondasun higiezin gaineko zergei dagozkien 2013ko erroldak. Erreklamazioak ekainaren 3ra arte aurkez daitezke; ordainketak, berriz, uztailearen 12a baino lehen egin behar dira, ohiko posta bidez bidaliko den ordainketa-agirian zerrendatutako banketxeetan. Bestalde, helbideratutako ordainagiriak uztailearen 5ean zergadunek adierazitako kontuetan kargatuko dira.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

OHARRAK

ODOLA

Gaur, astelehena, odola emateko aukera egongo da Aretxabaleta osasun etxean, 16:30etik 20:00etara.

BIDEO EMANALDIA

Gaur, astelehena, bideo emanaldia dago Aretxabaleta Arkupeko Zeraia aretoan; 19:00etan hasiko da Edu Gonzalezek zuzendutako *Euskal Herria: ezkutuko zorra* izeneko ikus-entzunezkoa. Hori amaitzean, solasaldia egingo dute toki berean.

KONTZERTUAK

Aretxabaleta Leizarra musika eskolak azken kontzertuak eskainiko ditu asteon, 18:00etan, Arkupeko Zeraia aretoan: bihar,

akordeoi emanaldia dago; eta etzi, perkusioarena.

OSOKO BILKURAK

Bihar, osoko bilkura bi daude Eskoriatzan: 17:30ean, Eskola Agenda 21 programaren bueltan, ikasturteko proposamenak aurkeztuko dituzte ikasleek. Eta 18:30ean, ohiko osoko bilkura dago; besteak beste, garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzako programa eta dirulaguntzak eta larrialdietarako laguntzak emateko oinarriak onartuko dituzte.

'GABEZ TAKARRARAN'

Etzi, eguaztena, *Gabez Takarraran* lasterketaren aurkezpena egingo dute Eskoriatzako Ibarraundin, 19:00etan.



ARETXABALETA

ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

Bertso saioa egin zuten neska-mutikoei

Ikasturtean zehar ahozotasuna landu dute Arizmendiko Almen guneko 4. mailako eta Kurtzebarriko 3. eta 5. maila arteko neska-mutikoei, eta, kurtsu amaiera borobila emateko, egun arratsaldean bertso saio bateratua egin zuten, Iturrigorri pilotalekuan. Baserritarrez edo bestelako moztaroen jantzita, bertso ederrak bota zituzten bertsolari gazteek; hainbat kasutan, trikiti soinuaz lagunduta. Gurasoek adi entzun zituzten seme-alabek botatutako bertsoak.



Elgeta Kantuan udazkenean. | LZ

ELGETA

Kalez kale eta tabernaz taberna kantuan egiteko beste aukera bat domekan Elgetan

Bezperan, ekainaren 1ean, Entzia mendilerroa egingo du irteera Kantsatzeke mendi taldeak; interesatuek zabalik dute izena emateko epea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ekaineko agenda ekintzaz betetadator, eta, lehen aste bukaerarako, mendi irteera eta Elgeta Kantuan ditugu aukeran.

Kantuzaleek soinu-jole eta guzti egingo dute domeka eguerdiko txikiteoa. Udazkenean erantzun polita izan zuen Udalak Elgetako koruko kideekin eta Jose Gardokirekin batera egindako Elgetan Kantuan ekimenak. Hala, ekainean beste saio bat egitea erabaki dute. Ekimen irekia da, eta asmoa da tabernaz taberna eta kalez kale kantuan ibiltzea 13:00etan herriko plazatik abiatuta.

Kantuak ikasi nahi dituztenentzako entsegua ere antolatu dute: maiatzaren 28rako, martitzena, deitu dute. Kultura etxean elkartuko dira, 21:00etan, Jose Gardoki soinu-jolearekin. Kantu

errepertorioa zehazteaz gain, tonua hartu eta abestiak ikaste-ko aukera izango da bertan.

Mendi irteera Entziara

Bezperarako, ekainaren 1erako, mendi irteera antolatu dute Kantsatzeke mendi taldetik. Arabara, Entzia mendilerroa egingo dute txangoa Elgetatik 08:00etan abiatuta. Zehaztu dute lau bat ordu beharko dituztela ibilbidea egiteko, eta tartean Ballo (1.197 m) eta Mirutegi (1.166 m) tontorrek igoko dituzte. Prezioa hamar euro da. Interesatuek Elgetako udal-txean edo kantsatzeke@gmail.com helbide elektronikoa eman behar dute izena.

Ekaineko gainerako ekintzak

Ekainaren 7an, barikuan, bazkaria egingo dute 80 urtetik gorako herritarrek Ozkarbi elkartearen.

Zabalik jarraitzen du izena emateko epeak. Ekainaren 8rako, berriz, Koadrila Eguna iragarri du Udalak. Egun osoko egitaraua prestatu dute, tartean gisatu lehiaketa, argazki maratokia, erromeria eta bits festa. Herri Eskolak ekainaren 14an egingo du ikasturte amaierako jaialdia Espaloia kafe antzokian. Etzi, ekainaren 16an, musika eskolako ikasleen txanda izango da eta ikasturtean zehar ikasitakoak erakutsiko dituzte jendurrean.

Ekainaren 22an, berriz, Bizkaiko V. Behatoki Rallya iragarri du Elgetatik, eta San Juan bezperan ez dira falta izango guraso elkarteak eskainitako merienda eta neska-mutikoen auzolanean egindako San Juan sua. Ferixa Nagusiko jaietarako motorrak berotzen joateko.

dako moduan, aste batzuetako atzerapena izango du gaiak. Astoetan berba egingo dugu horren gainean Udalean".

Ondasun Higiezin zerga

Bestalde, gogoan izan uztailearen 1ean bukatzen dela Ondasun Higiezin Gaineko zerga ordaintzeko epea. Eta ordaintzeko borondatezko epea bukatu ostean, ordaindu bako zergak gainkarguarekin kobratuko dituztela, halakoetan ohi den moduan. Ordainketak egiteko, udaletxera jo beharra dago. Apirilaren 23a baino lehen helbideratutako ordainagiriak, adierazitako kontu korrontetik kobratuko dituzte.

ARAMAIO

Iñigo Rumenigek bizikletan bizitako esperientziak kontatuko ditu Sastiñan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Iñigo Rumenige abenturazale gasteiztarak Cyclotherapy, munduari buelta bizikletan izeneko hitzaldia eskainiko du egubakoitzean, hilak 31, Sastiñan (18:30). 2009ko otsaila ezker bizikletan ezagutu dituen 26 herrialdeetako eta egindako 45.500 kilometroetan zehar bizitako esperientziak eta bitxiak kontatuko ditu. Bidaia

ulertzeko beste modu bat aurkeztu du Rumenigek; haren esanetan, bidaiari onena helmugara heltzen denbora gehien behar duena da, bidaiaz gozatu duenaren seinale delako. Hainbat argazki ikusgarri erakutsiko ditu Rumenigek.

Egubakoitzean zortzimilako mendi bat igo duen lehen emakume arabarra egon zen Sastiñan hitzaldia ematen.



Rumenigeren bidaietako batean ateratako argazkia. | GOIENA

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoan parte hartzeko aukera egongo da ekainaren 30era arte

Topagunea elkarteak antolatutako *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimenean parte hartzeko aukera egongo da ekainaren 30era arte. Irakurzaletasuna bultzatu gura du egitasmoak: udal liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartu eta itzultzerakoan liburuzainak emandako fitxa beteta, erosketa txartela jasoko du irakurleak Arrasate ala Gasteizko Elkar denetan liburu hori bera ala euskarazko beste edozein erosteko. Gero, irakurleak beretzat gorde ala oparitu ahal izango du liburu hori.

ANTZUOLA

Mendekotasuna dutenen zaintzaileak, jantziago

Udal ordezkariak balorazio positiboa egin dute; beste bat antolatzekotan dabilta, udazkenean

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenen kezka eta baliabideak lantzeko ikastaroa aurreko astelehenean amaitu zen. Bost saiotan beharrei eta laguntzei buruz berba egiteko aukera izan zuten. Antzuolako Udalak aurreko urteetan ere eskaini izan du ikastaroa eta aurtengoaren balorazio positiboa egin du. Oso talde handia ez izan arren (zazpi lagun), zainketa lanetan aritzen direnek euren gaiak tratatzeko aukera izatea garrantzitsua dela uste dute antolatzaileek.

Bost egunetan egin dute ikastaroa eta bakoitzean gai bat landu dute. Lehen egunean medikuntza, erizaintza eta laguntza teknikoak, Nagore Vazquezekin; Antzuolako Gizarte Zerbitzuen eskutik babes-baliabideen

eta sozialen informazioa, bigarren egunean. Ikastaroaren erdian, alor juridikoa izan zuten berbagai Olaia Aranarekin, eta laugarren saioan, laguntza teknikoei buruz jardun zuen Amaia Bareak. Joan den astelehenean, babes psikologikoaz berba egin zuten Karmen Gurrutzagak.

Ikastaroan parte hartu dutenak ebaluazio orria betetzen ari dira egunotan. Iritziak bildu eta aurrera begira zer landu nahi duten ezagutzeko da asmoa.

Udazken alderako gisa honetako beste ikastaro bat antolatzekotan da Udala eta gaia pentsatzen ari da. Alor psikologikoa edo emozionala landu nahiko luke baina ebaluazioan jasotakoak eragina izango du gaia zehazteko, hor agertuko dira-eta zaintzaileen beharrak zeintzuk diren.

LEINTZ-GATZAGA

Ehiza kontuak berberak dabilta izaten azken asteotan

Foru Aldundiak bidali du ehizarekin lotutako plan teknikoak; orain zalantzak aztertzen dabilta

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako ehiza barrutia- ren ehiza antolatzeko plan teknikoaren behin-behineko onarpena eta Leintz Gatzagako barrutian usoen ehiza aprobetxamendurako baldintza tekniko partikularren plenguak eta baimen eskaera. Bi puntuok aztergai izan zituen udalbatzarrek maiatzeko ohiko osoko

bilkuran. Baina biak ala biak mahai gainean geratu ziren.

Imanol Saez de Biteri Mendi zinegotziak emandako azalpenen arabera, erabakia "atzeratu" egin da, gaia "hobeto" begiratu gura dutelako eta "zalantza batzuk" galdetzeko dituztelako. "Foru Aldundiak, baina, bidali du landu duen plan teknikoak; baina esan-

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO

KAFE MAKINA

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!



Parte hartzeko

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

DolceGusto
BaserriSarea
Arrikruz
Bertikal
Mihiluze

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionaitea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENENKO BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



MIHILUZE

MIHILUZE joko irabaztea nahi?
Bi joko ditugu zozketatzeko.



BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako.
5 joko ditugu zozketatzeko.



DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki saikatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Mendeurreneko ospakizunak Erregional Preferentean egin beharko ditu Mondrak

- ▶ Arrasatearrak nahi eta ezin ibili ziren zapatuan
- ▶ Bizkaitarren lehen golarekin apurtu zen partidua

EMAITZA	
MONDRA	
0-3	
AURRERA	

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Denboraldiko etxeko lanak azken partidurako uzten direnean... maila galtzeko arriskua egoten da. Mondrak arrisku hori zuen, eta ezin izan zuen eragotzi. Lutxo Iturrinoren taldeak bere esku zuen salbazioa: puntu bakarrarekin ere Ohorezko Erregional Mailari utsiko zion. Baina, ez zuen asmatu. Akaso urduritasuna, akaso ezinegona... Kontuak kontu, Mojategin batu ziren ehunka zaleen animoak ez zuten askorako balio izan, eta Mondrak, mendeurreneko ospakizunak Erregional Preferentean egin beharko ditu.

Parekatua, baina gol barik

Mondrak eta Aurrerak, biek ala biek behar zuten garaipena. Biz-

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Oier, KEvin, Ion, Andres, Aitor, Mikel (Andoni, 74. min), Iker, Lopez, Julen, Iker eta Lander (Markel, 74. min.).

Aurrera: Unda, Asier, Gamboa, Burgoa, Xabi, Aritz, Cabio, Andoni, Eneko, Julen eta Josu.

Bitxikeriak: Zale asko egon zen Mojategin, tartean Ondarroatik etorritako bi autobuskada. Realeko Mikel Gonzalez eta Iñigo Martinez ere partiduan egon ziren.

kaitarrek gainera, Urolaren porrota behar zuten mailari eusteko. Eta hori guztiori antzeman egin zen futbol zelaian. Bi taldeak hasieratik irten ziren golaren bila, eta Aurrerak, bi aukera garbi sortu zituen lehen ordu laurdenean. Mondra ere gerturatu zen Undaren areara.

Lehen zatia parekatua izan zen, bai jokoan eta baita markagailuan ere: husnako berdinketarekin bukatu zen. Atsedendian lasaitasuna zen nagusi harmailetan, Mondrako eta Aurrerako zaleen artean.

Bigarrena, 75. minutuan

Etxekoen artean, alarma gorriak, 65. minutuan piztu ziren: Aurrerak lehen gola egin zuen unean. Bizkaitarren erasoaren ezker aldetik falta erdiratu eta Burgoak buruz sartu zuen gola. Mondraren atzeko lerroko markaketan egondako hutsa aprobetxatu zuen aurrelariak.

Une horretan, zale gehienek erlojua begiratu zuten: 25 minutu geratzen ziren, sikiera, berdinketa lortzeko, eta mailari eusteko.

Etxeko jokalariek kolpe gogorra jaso zuten, baina, ez zioten aurpegia galdu partiduari. Iturrinok bi aldaketa egin zituen taldeari beste pizgarri bat emateko asmoz. Baina, ezer gutxirako balio izan zuen. Minutu bat beranduago, 75.ean, Aurrerak bigarren gola sartu zuen. Kontraerasoa bikain antolatu zuten Cabok eta Enekok markagailuko errenta handitzeko.

Mondraren esperantzak minutu horretan agortu ziren. Handik aurrera, isiltasuna, malkoak, tristura, ezinegona eta Aurreraren hirugarrena nagusitu ziren Mojategin.



Aurrerako jokalaria Enekok sartutako bigarren gola ospatzen, eta Mondrakoak burumakur.



Mondrako jokalaria burumakur. | IMANOL SORIANO



Iturrino jokalaria batik animua

Eskubaloikoei omenaldi beroa

Mondrako zuzendaritzak detaile polita izan zuen Arrasateko eskubaloi taldeko jokalariei eta kideekin. Lehen Nazional Mailara lortutako igoera txalotzeko, omenaldi beroa egin zieten futbol partidua hasi aurretik. Mondrak eta Aurrerak pasilloa egin zieten jokalariei. Zelai erdian, bi opari jaso zituzten Ramon Azkarate, Mondrako zuzendaritzako kidearen eskutik: plaka bat eta Mondraren bufanda. Nestor Callejak eta Ekaitz Aranburuzabalak jaso zituzten opariak. Azkaratek zorionak eman zizkien lortutako balentriarengatik, eta zorte ona opa denboraldi berrirako. Omenaldia bukatuta, zaleen txalo zaparrada jaso zuten. Eskubaloi taldeko ordezkariak harmailetan ikusi zuten partidua.



Ford Mugarriko jokalariek plaka jaso ostean. | MIREIA BIKUÑA

DEBARRO TXAPELKETA | Moron eta Egia arrasatearrak nagusi kadete mailan | 26



...r, emaitza kontuan hartuta. | IMANOL SORIANO



...k ematen. | IMANOL SORIANO



Mojategiko harmailak gainezka. | IMANOL SORIANO

LUTXO ITURRINO | MONDRAREN ENTRENATZAILEA

"Niri dagokidanez, barkamena eskatu nahi dut, egindako akatsengatik"

Burumakur eta triste zegoen Mondraren entrenatzailea maila galdu ondoren, baina GOIENAKo galderak erantzun zituen, etxerako bidea hartu aurretik.

Irabazi beharra zenuten, baina ez duzue lortu.

Lehen zatia guk menderatu dugu, eta Aurrerak lehen gola sartu aurreko jokaldian, penalti bat egon da gure alde. Marrazainak izan ezik, gainerako guztiok ikusi dugu. Segituan gola sartu dute eurek, eta partidua apurtu egin da. **Dena den, 25 minutu zenituzten berdinketa lortzeko. Puntu batekin ez zenuten maila galtzen.** Min handia egin digu lehenengo golak. Kolpea gogorra izan da. Apur bat indarberritu garenerako, bigarrena sartu dute, eta norgehiagoka erabakita utzi dute bizkaitarrek.



MIREIA BIKUNA

Maila galtzea beti da gogorra.

Bai, harrobian izan edo profesionaletan, maila galtzeak min handia egiten du. Jokalariak asko maite dute Mondra, eta une honetan, minduta, triste eta burumakur daude.

Denboraldi osoa partidu batean jokatzen denean, arriskuak asko dira.

Bai, hala da. Azken lehiera puntu beharrezan heldu gara, urtean zehar irregularrak izan garelako. Ligak taldeen erregulartasuna saritzen du. Halakoetan txanpona alde edo kontra irten daiteke.

Mondrak puntu asko galdu ditu Mojategin.

Bai, batez ere, lehen itzulian, eta hori igarri egin dugu urte osoan zehar.

Mendeurrenako ospakizunak Erregional Preferenteak egin beharko ditu Mondrak.

Bai, eta horrek bereziki mintzen nau. Horregatik, niri dagokidanez, egindako akatsengatik barkamena eskatu gura diet zaleei. Ni oso gustura egon naiz klubean, lasai lan egiteko aukera eduki dudalako.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bere atean sartutako golarekin galdu zuen Bergarak entrenatzailearen agurreko lehia

M.B. | BERGARA

Bergarak 0-1 galdu zuen denboraldiko azken partidua Hondarribiaren kontra. Ligako azken lehia zen, eta baita Neka Galan entrenatzailea agurtzeko partidua -Anaitasunako entrenatzaile ohi Aitor Arrieta izango da bere ordezkoa irailetik aurrera-. "Beste modu batera agurtu nahi genuen, baina ezin izan dugu irabazi", esan zigun bukarran entrenatzaileak.

Partidua oso parekatua izan zen, eta etxekoek presentzia handiagoa izan zuten zelaian. Bergararrek gola sartzeko lau aukera garbi izan zituzten, baina ez zuten Hondarribiaren atean asmatu.

Erasoan zorte barik egon ziren etxean, eta baita defentsan ere. 75. minutuan Bergarak bere atean egin zuen gola. Handik aurrera, ezin izan zuten berdinketa lortu.



Bergarako Pedro Valerio baloiarekin. | IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletak laugarren lekuan bukatu du liga txapelketa, Lesakan puntu bat irabazi ostean

UDAK berdinketarekin bukatu du liga txapelketa. Beti Gazteren kontra 2-2 egin zuen Lesakan. Puntu horrekin eta urtean zehar lortutako emaitzekin, laugarren lekuan bukatu dute denboraldia Alberto Albistegiren mutilek. Urteko azken partiduan ere gogor borrokatu behar izan zuten aretxabaletarrek, eta esfortzuak saria izan zuen binako berdinketarekin. UDAK 67 puntu lortu ditu, eta denboraldi osoan bost lehia bakarrik galdu ditu; 19 partidu irabazi eta 10 berdindu.



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak garaipena liga bukatzeko

Aloña Mendik liga txapelketako azken partidua irabazi zuen Lagun Onak taldearen kontra. Iñaki Bikuñak 30. minutuan sartutako golari esker, oñatiarrek 43 punturekin bukatuko dute denboraldia. Bi taldeek ez zuten ezer jokoan eta nabaritu zen Azkoagainen. Lehia parekatua izan zen, oñatiarrek gola sartu arte.



Natra Oñatiko jokalariek eta entrenatzaileak, igoera faseko lehen partidua hasi aurretik. | ARATZ LOSADA

SASKIBALOA

Esperientzia aberasgarria, igoera faseko hiru partiduetan galdu arren

- ▶ Natra Oñati esku hutsik itzuli zen Plasenciatik: ezin izan zuen partidua bakar bat irabazi
- ▶ Estudiantesen kontra aise galdu zuten, baina Aracena eta Plasencia mendean izan zituzten

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eta ametsa ez zuten espero moduan bukatu. Duela bost urte probintzial mailan hasitako bidea, Plasencian bukatu zuten Natra Oñatiko jokalariek askok. Minduta. Penatuta. Ezin izan zutelako garaipen bat bera ere lortu zilarrezko LEB mailarako igoera fasean. Hirutik hiru galdu zituzten, bietan Aracena eta Plasencian kontra, garaipena eskura izan arren. Historia egin duen taldea da. Akaso, errepikaezina.

Horregatik guztiagatik, zapo-re gazi-gozaekin itzuli dira etxera: gazia, hiru partiduetan galdu dituztelako; eta gozoa, bizi izan duten esperientzia errepikaezina eta aberasgarria izan delako.

Ametsetik amesgaiztora

"Ametsak darrai. Aupa Aloña" oihukatuz hartu zuten autobusa egunean Natra Oñati osatzen duten kideek. Baina, lehen partiduan, ametsa amesgaizto bilakatu zitzaizkien. Igoera fasea Asier de la Iglesiaren hiruko batekin hasi zuten, baina Asefa Estudiantesen kontrako lehia oso bestela bukatu zen: 75-58 galdu zuten.

Oñatiarrek ezin izan zuten madrildarren errebotea eta intentsitatea kontrolatu. Hori horrela, lehen laurdena bukatu orduko 21-12

zeuden atzetik. Bigarren tarte bide beretik joan zen: Estudiantes abantaila handitzen eta Natra Oñatik ahal zuena egiten. Atsedendian partidua apurtuta zegoen Estudiantesen alde (41-23).

Hirugarren laurdenean, Josean Cavadak egindako hirugarren faltak erabat baldintzatu zuten oñatiarren jokoa. Azken laurdenean, partiduari buelta ematea oso zaila zela jakinda, abantaila murrizten ahalegindu ziren.

Bost jokalarikaleratuta

Halako igoera fasetan lehen partidua irabaztea oso inportantea izaten da. Galdu arren, oñatiarrek gogotsu irten ziren Aracena kontrako norgehiagokara. Baze-kiten igotzeko aukerak mantentzeko ezinbestekoa zutela irabaztea. Kontzentratuta irten ziren eta lehen laurdenean 22-7 aurreratu ziren. Bada, katalanek 16-23 partziala eginez, 38-30 hurreratu ziren markagailuan. Atsedenean ostean,

katalanak nagusitu ziren eta kanta osoan presioa eginez, poliki-poliki desabantaila murrizten joan ziren, luzapenera heldu arte (71-71). Ordurako Kintana, Xabo eta Cava da kalean zeuden bost falta egiteagatik. Luzapena hasi eta segituen, De la Iglesiak bosgarren egin eta hura ere kalera joan zen. Hori horrela, Aloñak barruko jokorako erreferentzia barik jokatu zituen luzapenerako bost minutuak. Odriozolak eta Biainek hartu zuten

taldearen gidaritza taulapean. Gamarrak egindako hirukoari esker 80-79 ipini ziren aurretik oñatiarrek. Lehia bukatzeko 23 segundo geratzen ziren, eta baloia Aracenaendako zen. Aantolatzailearen barneraketari txapela ipini zion Biainek. Errebotean saskiratzea lortu eta lehia irabazi zuten: 80-81.

Lehen eguneko porrota gogorra izan bazen, luzapenean jasotakoa are gogorragoa eta mingarriagoa. Batez ere, galdutako moduagatik eta epaileek egindako lanarengatik: Aracena Aloñak baino 25 jaurtiketa libre gehiago izan zituen.

Hirugarrena, parekatua

Igotzeko aukera barik, baina zaleei garaipena eskaintzeko asmoz irten ziren kantzara domekan. Etxeko taldearen kontrako lehia oso parekatua izan zen laurden guztietan. Lehena eta bigarrena hiru puntuko errentarekin bukatu zuten Natra Oñatik. Atsedenean ondoren lehia berotu egin zen eta hori baliatu zuten Plasencian lehen aldiz aurretik ipintzeko, 57-53, eta markagailuari buelta emateko. Hirugarren partiduetan ere ihes egin zion Aloñari.

Azken datua: Asefa Estudiantesen jokatu du zilarrezko LEB mailan.

Plasencian ere, zaleen babes

Natra Oñatik EBA mailan egin dituen bi urtetan, zaleek bete egin dute Zubikoako kantzara bi aste behin. Bada, zale horietako batzuek ez zuten hutsik egin igoera fasean. Gehienak, zuzendaritza batzordeko kideak, eta jokalarien senitartekoak ziren, baina ondo baino hobeto ordezkatu dute Oñatiko zalegoa.

Bufandak eta kamiseta gorriekin, kolorez bete dute Plasencia kiroldegiko harmaila.



Oñatitiko Plasencian joandako zaleak bufandetik. | ARATZ LOSADA



Partidu aurreko bideo saioan, Enekoren aginduan entzuten. | ARATZ LOSADA



Eguen gauean, hotelara heldu zirenean. | ARATZ LOSADA



Cavada, De la Iglesia, Zabaleta eta Gartzia, partidura, autobusean. | AL



Cavada (eserita) eta Zeziaga, fisioterapia saioan. | ARATZ LOSADA



Natrako jokalariek taberna bateko terrazan. | ARATZ LOSADA

Igoera faseko albuma

Zilarrezko LEB mailarako igoera fasea, profesionalen lauko finalaren edo Errege Koparen parekoa izan da oñatiarrendako (ikus argazkiak). Profesionalismotik gertu dagoen aste bukaera pasa dute Plasencian: elkarbizitzarako aukera izan dute. Jatorduak elkarrekin egin, partidu aurretik bideo emanaldiak ikusi, entrenamendu saioak burutu, partiduetarako autobus bidaiak... Gainera, Oñatitik joandako zaleekin egoteko, eta turismoa egiteko aukera ere izan dute. Esperientzia errepikazina guztiendako.



Natra eta Asefa Estudiantes harteko partidua. Jaurtiketa libreak egiten. | ARATZ LOSADA

IKUSPUNTUA

MIREIA BIKUÑA
KAZETARIA |
'mbikuna@goiena



Ez zuten horrela bukatzea merezi

A skotan esan ohi da bizitza eta kirola ez direla justuak, eta egia da. Zorte apur bat behar da, batez ere kirolean. Erronkak eta helburuak betetzeko beharrezkoa den zorte apur hori falta izan zitzaien Natra Oñatiri Plasencian. Akaso, ez zilarrezko LEB mailara igotzeko, oso zaila zelako; baina, bai, partiduren bat irabazteko. Denboraldian zehar EBA mailan lan itzela egin duen taldeak, ez du halako bukaerarik merezi.

Urte batzuk barru, gogoan izango dugu igoera faserako sailkatu zirela, baina hiru partiduak galdu zituztela. Ostera, ez dugu gogoan izango, fase hura jokatzeko, denboraldi bikaina eta lan handia zegoela atzetik. Lana, lana eta lana. Horixe egin du Aloña Mendiko saskibaloia sailak azken hamarkadetan, eta emaitzak talde ikusgarri honetan islatu dira.

Talde umila, langilea eta zaleekin partekatzen dakiena. Horregatik bete da Zubikoako kantxa azken urtetan. Gertuko jokalariek dira: zaleekin argazkiak egiteko eta sinadurak emateko gertu. Saskibaloiak boom izugarria bizi izan du talde honekin, eta akaso, hutsunea sumatuko dugu.

Izan ere, zilarrezko LEB mailarako igoera faseak, akaso, hainbat hedabideetan behin eta berriz aipatzen den ziklo baten amaiera dakar. Jokalari batzuek saskibaloia utziko dute, eta beste batzuek, saskibaloian jokatzen jarraituko dute, baina Oñatitik kanpo.

Orain hausnartzeko unea helduko zitzaien Natra Oñatiri. Aste bukaera intentsu baten ostean, lasaitasuna dator, eta ondoren etorkizunari begira ipiniko dira, zuzendaritza, jokalariek eta zaleak.

Lasaitasun puntu hori baliatu gura dut eskerrak emateko. Argazkiak egiteko, telebistarako irudiak hartzeko edo platora etortzeko zuen beharra izan dugunean huts egin ez diguzuelako, eskerrik asko!



ENEKO BLANCO
ENTRENATZAILEA

"Lehenengo partidua galtzea oso gogorra izan zen, baina taldeak errekuaratzeko gaitasuna eta adorea erakutsi zuen. Ez genuen emaitza onik lortu, baina arto nago egin dugun lanarekin eta erakutsitako jarrerarekin".



IÑIGO ZABALETA
JOKALARIA

"Triste nago, emaitzek ez zigutelako lagundu, baina era berean pozik, egonaldian izan genuen giroarengatik. Itzela izan zen, errepikazina. Saskibaloia uzten dudan honetan, oroitzen horiekin geratuko naiz".



IAGOBA GAMARRA
JOKALARIA

"Oso gogorra izan zen Aracenaren kontra galtzea. Pena izan da partidurik ez irabaztea. Bergaran, 1986. urtean hasitako saskibaloia ibilbidea, Plasencian bukatu dut. Erretiroa hartzeko unea heldu zait".



IMANOL ZEZIAGA
JOKALARIA

"Lehen eguneko kolpetik jaiki eta Aracenaren kontra galtzeak min handia egin zigun. 39 minutu eta erdi aurretik egon ondoren, galtzea ez zaio inori gustatzen. Garaipen bat lortzen ahalegindu ginen, baina...".



JOSE LUIS CAMPO
PRESIDENTEA

"Aracena eta Plasencianen kontra galtzea gogorra izan zen, garaipena eskutan izan genuenean. Kirolean zorte apur bat behar da, eta guri bizkarra eman zigun. Orain, etorkizuna antolatu beharko dugu guztiok elkarrekin".

MENDI MARATOIA

Oihana Kortazar: "Amorru handia eman dit lasterketa uzteak"

- ▶ Lasterketa irabazteko faborito nagusia izan arren atzokoan ez zuen amaitu maratoia
- ▶ Debagoiendarren artean Lukene Igartua eta Iban Letamendi izan ziren onenak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Oihana Kortazar elgetarrak bertan behera utzi zuen Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Emakumezkoen kategorian lasterketa irabazteko faborito nagusia zen Kortazar, baina atzokoan ezin izan zuen txapela jantzi. "Hasieratik sentsazio txarrak izan ditut, eta ezin izan diot gortuzari buelta eman", azaldu zigun lasterketa amaieran. Kortazarrek Aizkorri igo zuen, baina han erabaki zuen lasterketa uztea, 24. kilometroan hain zuzen.

Lasterketa bertan behera uztea pena handia izan zela aitortu zigun, eta era berean amorru handia hartu zuela: "Urteko lasterketa garrantzitsuena da, gainera etxean jokatzeko da eta bada-kizu jende asko joango dela zu animatzera... amorru handia eman dit bertan behera uzteak". Erretiratu arren zaleen aldetik animu asko jaso zituela azaldu zuen Kortazarrek.

Erritmo gogorregia, hasieran
Astea ondo pasatu zuela esan zigun, ez duela arazorik izan, baina atzo ez zuela egun on izan. Kortazarrek ez du beste arrazoirik ikusten: "Hasieratik izan ditut

sentsazio txarrak eta ezin izan diot horri buelta eman. Ez nindoan ondo, postuak galtzen hasi naiz... hala, onena lasterketa uztea dela erabaki dut. Nire ustez, hasierako kilometroetan lehenengo postuan joan den Stevie Kremer korrikalariak (hirugarren egin du) erritmo gogorregia jarri du; larregi eman dut erritmo horri eusteko eta azkenean ahul sentitu naiz".

Kilian Jornet, erregea

Jornet kataluniarrak seigarren aldiz irabazi zuen Aizkorri-Zegamako mendi maratoia (3.54:38). Atzo, baina, aurkari gogorra izan zuen. Luiz Alberto Hernandok hamar segundo gehiago besterik ez zituen behar izan lasterketa amaitzeko. Hirugarrena Tadei Pivk izan zen (3:59:07).

Emakumezkoetan, munduko txapelduna den Emelie Forsberg izan zen azkarrena, 4.48:12ko denborarekin. Bigarrena Nuria Picas izan zen, 4.49:55; eta, hirugarren sartu zen Zegamako helmugan Stevie Kremer (4:49:58).

Ibarreko onena Letamendi

Debagoiendarren artean onena Iban Letamendi oñatiarra izan



Aritz Kortabarria arrasatearra mendian gora. | JOKIN BEREZIARTUA

zen. 4:26:48ko denbora egin zuen Letamendik Zegamako helmugan. Bigarren debagoiendarra Aritz Kortabarria arrasatearra izan zen (4:38:38); eta, hirugarrena Mikel Navarro arrasatearra (4.54:42).

Emakumezkoen artean Lukene Igartua oñatiarra izan zen Zegamako helmugara iritsi zen emakume debagoiendar bakarra. Igartuak 7:36:30eko denboran egin zuen maratoia.



Lukene Igartua oñatiarra lagunekin. | SUSANA ARRESE

ARETO FUTBOLA

Ostantz eta Dribling-ek jokatu dute Zaldibarko txapelketako finala

Datorren zapatu arratsaldean izango da finala Zaldibarko kantxan

A.E. | ARRASATE

Datorren zapatuan jokatu duten Zaldibarko txapelketako finalista Ostantz eta Dribling izango dira. Atzo, domeka, goizean jokatu zituzten finalerdiak.

Gol askoko partiduak

Lehenengo finalerdia Ostantz eta Iriztuk jokatu zuten. Markagailuari dagokionez nahiko parekatua izan zen lehia; hala ere, Ostantz gehiago izan zen: 4-3 irabazi zion Irizturi.

Bigarren finalerdian Dribling 5-1 nagusitu zen Lasagabasterren aurka. Hasieratik jarri ziren Dribling-eko mutilak markagailuan aurretik eta ez zuten arazorik izan Lasagabaster mendean hartzeko. Atzoko emaitzak kontuan hartuta Ostantz eta Dribling-ek finala jokatu dute, eta Iriztu eta Lasagabaster hirugarren eta



Atzo, domeka, Zaldibarko jokatu dute finalerdiak. | JOSETXO ARANTZABAL

laugarren postuak eskuratzeko lehiatuko dira.

Datorren zapatuan izango dira partiduak. Behin txapelketak zeintzuk diren erabakitakoan

sariak banatuko dituzte: lehenengo lau sailkatuei, bost jokalarari onenei, atezain onenari, golegile onenari eta finaleko jokalarari onenari.

PILOTA

Bakarrik kadeteak nagusitu dira Debarroko lehia

Kadete mailako Ander Moron eta Josu Egia arrasatearrek 22-9 irabazi zuten finala

A.E. | ARRASATE

Zapatuan jokatu zituzten Debarroko pilota txapelketako finalak. Hiru maila izan du txapelketak: kadeteak, gazteak eta nagusiak. Kadete eta nagusien mailan Arrasateko pilotariak finala jokatu zuten, eta gazteen mailan bergararrek jokatu zuten finala. Bada, kadete mailako pilotariak bakarrik jantzi dute txapela.

Markel Moron, bikain

Kadete mailan Markel Moron eta Josu Egia pilotariak Debarroko bikotearen aurka 22-9 irabazi zuten. Partidu ona jokatu zuen Arrasateko bikoteak, nabarmenezkoa da Markel Moronek egin zuen lana. Hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik eta ez zuten arazorik izan fina-

la irabazteko. Behin kadeteen finala amaituta gazte mailako finala hasi zuten Elgoibarren.

Soraluzek irabazi zuen

Gazteen mailan Soraluzeko bikoteak 22-18 irabazi zion Bergaroko Ander Aristi eta Dani Diez bikoteari. Soraluzeko Santamaria pilotariak partidu oso ona egin zuen; etorkizunean pilotari ona izan daitekeela erakutsi zuen zapatuan Elgoibarren.

Nagusien mailan, Soraluzeko bikoteak 22-7 irabazi zuen Arrasateko Haritz Zuazua eta Ibai Bolinaga bikotearen aurka. Soraluzeko Andreu izan zen onena; Arrasateko Bolinagak eskuetako arazoak izan zituen zapatuko partiduan zehar eta ez zuen ondo jokatu.

Kerman Azkarraga | UDA taldeko jokalaria ohia

"Belauneko lesioengatik utzi dut futbola, buruak eta bihotzak jokatzeko jarraitzeko esan arren"

► Aretxabaletako jokalaria arrasatearrak futbola utzi du 20 urteren ondoren

► Hiru lesio izan ditu belaunean: bitan lotailau gurutzatua apurtu du; bestean meniskoa

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Kerman Azkarragak (Arrasate, 1980) UDAko jokalaria, zale eta arduradunen omenaldia jaso zuen hilaren 19an: 20 urteren ondoren, futbola utzi du. Eskuineko belaunean izan dituen lesioak erabaki hori hartzera bultzatu zuen, buruak eta bihotzak kontrakoa agintzen zioten arren. "Penaz" utzi du futbola, baina futbolak emandakorekin geratzen dela esan digu: lagunekin, zaleen babesarekin eta ikasitakoarekin.

UDAKoen omenaldiarekin bukatu duzu futbolari ibilbidea. Zergatik erabaki duzu orain dela unea?

Nik baino gehiago, eskuineko belaunak hartu du erabakia [Barre]. Lesio larriak izan ditut belaunean, eta horien eraginez utzi dut futbola. Buruak eta bihotzak kontrako esaten zidaten, baina une aproposa dela uste dut. Aurtengo denboraldian ere larri ibili naiz: minarekin, nahi baino gutxiago jokatzeko... Erabakia hartu dut, eta, oraingoz, ez naiz damutzen.

Ze lesio daukazu belaunean?

Hiru ebakuntza egin dizkirate: bitan lotailu gurutzatua apurtu nuen eta bestean meniskoa. Azken denboraldiak belauna minduta bukatu dut. Futbola uzteko esan dit askotan medikuak, eta heldu da momentua.

Agur esanda, nola sentitzen zara?

Arraro. Belauna ondo edukita, futboleant jarraituko nuke. Ez daukat zalantzarik. Futbolak asko eman dit, eta asko baloratzen dut hori guztiori.

Zer eman dizu bada futbolak?

Jokatu dudana talde guztietan lagunak ditut, lagun onak. Talde guztietan gustura egon naiz. Ondo hartu naute, eta hori asko baloratzen dut. Lagunak, zaleen babesa, entrenatzaileekin eta talde kideekin ikasitakoa eta beste hainbat gauza eman dizkit futbolak.

Eta hemendik aurrera, zer egingo duzu?

Ez dakit geldi egoten. Bizikleta bat prestatu dut. Neskalagunari ere bizikletan ibiltzea gustatzen zaio. Mendira joatea ere gustuko dut. Akaso beste kirolen bat...

Futbolari izateari utzita, futboleant jarraitzeko asmoa daukazu? Akaso, entrenatzaile lanetan?

Ez. Futbol jokalaria izateak konpromisoa handia eskatzen du. Bada, talde baten ardura hartzeak ere bai. Konpromiso handia da: entrenamenduak antolatu, aste bukaeratako partiduak... UDAn jarraitzeko proposamena egin



Kerman Azkarraga Ibarra futbol zelaian. | MIREIA BIKUÑA

didate, baina ez dut nire burua entrenatzaile lanetan ikusten. Gaur gaurkoz, ez.

Futbol zale amorratu horietakoa zara?

Ez. Futbola jokatzeko gustatzen zait, baina ez ikusteko. Partidu inportanteak ikusten ditut, baina ez naiz zale amorratua.

20 urte egin dituzu futboleant.

"Futbolak 20 urtean eman didana, asko baloratzen dut"

"Hirugarren Maila Elgoibarren ezagutu nuen: giro bikaina izan genuen"

13 urterekin hasi nintzen, Aretxabaletako harrobiko taldean, eta maila eta talde ezberdinetan jokatu ostean, maiatzaren 19an utzi nuen futbola.

Denboraldiz denboraldi erronka berriak topatzea erraza da?

Ez dakit erraza ote den, baina nik urtero nuen erronka bat. Harrobiko taldean hasi nintzen, lehen erronka talde nagusira heltzea zen. Ohorezko Erregional Mailan jokatu gura nuen. Hori lortuta, hurrengo pausua Hirugarren Maila izan zen.

Hor jokatzeko aukera izan nuen Elgoibarren. Bost urte zoragarri bizi izan nituen: maila eta taldekide berriak, baina giro bikainarekin.

Joan-etorriko bidai baten antzera Elgoibarretik Aretxabaletara joan nintzen.

UDAk Hirugarren Mailan jokatzeko txartela lortuta, zu izan zinen fitxajeetako bat.

Pozik joan nintzen Aretxabale-tara. Hirugarren Maila ezagutzen

nuen, eta gainera etxean jokatzeko aukerarekin. Pena urtebeteko bidea izan zela.

UDAran joan nintzen, asmoa zen taldea Hirugarren Mailan egonkortzea, eta bizpahiru urte jokatu ondoren futbola uztea. Zoritxarrez maila galdu genuen lehen urtean, eta nire asmoak ez ziren bete.

"Bizkarrezurra mantentzen badute, denboraldi ona egingo du UDak"

"Emandako babesarengatik, eskerrik asko zale guztiei"

Zer geratu zen urtebetean maila galtzeko?

Denboraldi intentsua izan zen, baina gauza batzuk ez genituen ondo egin. Une zehatz batzuetan kale egin genuen.

Maila galdua, beste erronka bat ipini nion nire buruari: taldea berriro Hirugarren Mailara igotzea. Azken lau denboraldietan goiko postuetan egon gara, eta askotan eskura izan dugu lehen postua, baina une erabakigarrietan, huts egin dugu.

Hirugarren Maila galdu zenutenetik, urtez urte, igotzea izan duzue helburu. Aurten ere bai?

Bai, zalantza barik. Denboraldi hasieran galdetu izan bazenit, hori esango nizuke: igotzeko taldea genuela. Jokalari beterronak, baina aldi berean gazteak; eta gazte mailatik igotako jokalariek. Nahasketa polita eta indartsua lortu dugu, baina aurten ere ihes egin digu igoerak.

Non egin duzue huts orduan?

Ez gara konstanteak izan. Oiarzun, Real Union eta Hernanik ez dute hutsik egin. Erregularrak izan dira, eta gu ez. Hainbat alditan hirugarren postura igotzekotan egon gara, baina guztietan kale egin dugu.

Helburua lortu ez arren, UDAl talde indartsua dauka orduan?

Bai. Talde sendoa da. Jokalari askok lau urte daramate elkarrekin jokatzeko, eta horrek esperientzia eman die. Taldearen bizkarrezurra mantentzen bada, hurrengo denboraldian ere goian egoteko taldea izango da. Modu berean lan egin, aurtengo akatsak zuzendu eta zorte apur batekin... zeresana emango dute Ohorezko Erregional Mailan.

Mailaz igotzea oso zaila da.

Bai. Norberak denboraldi perfektua egin behar du eta beste taldeek huts egin. Gainera, lesiorik ez edukitzea oso inportantea da, taldea erregularra izateko.

Futboleant bizi izandako unerik onena eta txarrena?

Futbolak une on asko eman dizkit, eta ezingo nuke bakar bat aukeratu. Eta txarrena, batez ere gogorrena izan zelako, Hirugarren Mailatik jaitsi ginenekoa.

Bukatzeke, zerbait gaineratu gurako zenuke?

Bai. Zaleei eskerrak emateko aprobetxatu gura dut: eskerrik asko Ibarren eta etxetik kanpo emandako babesarengatik. Askok eskertu dut euren berotasuna.

Gero eta gehiago dira errespetuzko erditzeak eskatzen dituzten emakumeak

Informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzeko eskubidea eskatzen dute

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Barikuan errespetuzko erditzeak aldarrikatu zituzten Epen eta Qnos elkarteek Berangon egindako Errespetuzko Erditzeen Astea. "Ospakizuna baino aldarrikapena da", adierazi du Amaia Aparicio doulak. Azaldu du errespetuzko erditzearen oinarria informazioa dela, eta ondotik informazio horrekin emakumeak hartutako erabakiak errespetatzea. "Epidurala bai edo ez, urak apurtzea, oxitozina ipintzea, ilea kentzea, enemak jartzea, episiotomia egitea, taupadak monitorizatzea, ze posiziotan erditu erabakitzea... emakumeak erabaki behar ditu horiek guztiak, edo gutxienez galdetu egin behar zaio", esan du Aparicio. Doularen esanetan erditzea prozesu naturala da, eta protokoloekin larregi medikalizatu eta instrumentalizatu da. "Zientziak eta medikuntzak lagundu egin behar dute arriskuak saihesten, baina sarri naturala den prozesu horretan oztopoak ipintzen dituzte".



Emakumea haurdun. | SEAN DREILINGER

Aldarria ikusarazi

Berangoko ekimenarekin bultzatzaileen helburua zen aldarria ikusaraztea. "Haurdun dauden emakumeek zelako erditzea nahi duten erabakitzeak eskubidea dute", azaldu du Aparicio. "Emakumeek eta euren bikotekideek, noski. Egia da ez dakizula sekula une horretan zela jokatu duzun, baina alde aurretik ideia

argi batzuk edukitzea komeni da. Nire gomendioa da erditze plana prestatzeko: paper batean zelako erditzea nahiko genukeen idatziz jasotzeko". Erabakitakoa ondo egongo dela defendatzen du Aparicio. "Akaso batzuk guztiz medikalizatutako erditzea nahiko dute, eta ondo egongo da emakumeak erabakia bada", argitu du Aparicio.

Zer egin daiteke 'Amaitu plateran duzuna' esaldiarekin amaitzeko

Hiru gurasotik bik nerabegarora iritsitako seme-alabak presionatzen jarraitzen dute

L.Z. | ARRASATE

Pediatric aldizkariak Estatu Batuetako 2.200 neraberekin eta haien gurasoekin egindako ikerketa baten emaitzak argitaratu ditu. Haur loditasunarekin kezkatuta egin dute ikerketa, eta emaitzek erakutsi dute gurasoek menu osasungarriak eskaintzeko egiten duten ahalegina handia izanagatik, janari kopuruari ez diotela behar besteko garrantzia ematen. Hala, jatorduetan gurasoek betetzen dituzte umeen platerak, eta gehienetan dena bukatzera behartzen dituzte. Hala, "amaitu plateran duzuna" ohiko esaldia bihurtzen da etxe ia guztietan, eta sarri eztabaida iturri ere bada. "Plateran dagoen guztia jatea gehiegi jatea izan daiteke", adierazi dute ikertzaileek.

Datu deigarriena, ordea, beste bat da: hiru gurasotik bik nerabegarora iritsitako seme-alabak presionatzen jarraitzen dute. Armando Bastida pedagogoa emaitza horien bere irakurketa egin du. "Umeek erabakitako kantitatea jatea nahi dugu, eta gainera guk nahi dugunean". Haurrei askatasun gehiago ematearen aldekoa da Bastida, eta nerabegarora zer esanik ez.

Ikertzaileek egindako gomendioa bere egiten du: "Gurasoon egitekoa elikagai osasuntsuak eskaintzea da; mahaigainean utzi eta umeek erabakiko dute noiz eta zenbat jan nahi duten". Noski, hemen, beste eztabaida bat zabaltzen da: eta otorduen ordutegiak? Jateko mizkina den umearekin nola jokatu? Horiek beste baterako utziko ditugu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Eraikuntzaren kontzeptua berritzen

Aitor Axpe

Arkitekto teknikoa eta irakaslea

Natura betidanik izan da gizakiaren bizilekua. Batzuetan krudela izan bada ere, gehienetan babesteko eta hornitzeko erabili du gizakiak natura, eta elkarren arteko mendeetako harremanari esker elkar ezagutza handia eratu dute. Baina azkeneko hamarkadetan, batez ere industria-iraultzaren ondorioz, harreman hori eten egin da, eta bakoitzak bere bidea hartu du.

Gizakiok, eraikuntzako kontzeptu gordina sinesmen bakar batekin bultzatu izan dugu: "Gizaki modernoa naturaren gainetik dago, eta ez du bere beharrik, izan ere, bere kabuz sor dezake energia merke batean oinarritutako mundu abstraktu bat". Joera oker hori dela-eta, hainbat eta hainbat proiektu eta lur antolamendu desegoki egin ditugu, eta orain ondorio latzak ordaintzen ari gara. Zorionez, azkenaldian,

beste bide batzuk eratu dira joera horri buelta emateko eta, berriz ere, bi elementuak elkar uztartzeko.

Nahiz eta bide berri horiek oraindik bidexkak izan, eta bertan urratsak ematea nekeza izan, Arizmendi Ikastolako eraikuntza zikloko bidexka berri horien aldeko apustua egin dugu eraginkortasun energetikoaren eta bioeraikuntzaren ezagupenak eskainiz.

Horren adibide argia da maiaztaren 10ean Arrasateko Udalak, LKS ingeniariak eta Arizmendi Ikastolak antolatu zuten Eraikuntzako Jardunaldia. Jardunaldi horretan eraikuntza eta naturaren arteko sinbiosia izan zen mintzagai nagusia, eta horretarako goi mailako lau aditu etorri

Bioeraikuntza eta eraginkortasun energetikoa helburu

ziren euren esperientziak eta ezagupenak azaltzera.

Lehenengo hizlaria Eduardo Rojo izan zen, eta Gasteiz hiriburuan abian jarrita duten barko erazten berdearen proiektuari buruz aritu zen. Ondoren, Mikel Baztanek denok txunditu gintuen, izan ere, demonstratu zuen epe laburrean nola hobetu daitekeen bizi kalitatea lorezaintzari esker. Horretarako Noain-Elortz herriko adibidea jarri zuen.

Ekokaleak lehiaketaren sari banaketaren ostean, Estatu mailan bioeraikuntzan eta diseinu bioklimatikoan aitzindari den Iñaki Urkiak lastozko etxebizitza bioklimatikoek aritu zen. Azken hizlaria Teknialiko Elena Morales izan zen. Landareriak itxituren eta estalkien onurez aritu zen.

Bukatzeko, Arrasateko Udaleko teknikari Juan Antonio Urdangarinen gidaritzapean hizlariak bertaratutako galderei erantzun zieten.



Masdar hiriaren irudi bat. | MASDAR CITY

Adibide bat: Erdi Aroko herri edo hiria

Normalean, errepide baten inguruan edo erromatar hiri baten gainean sortuak ziren, eta eskarien arabera handitzen ziren inguruko orografia, klima, eguzki erradiazioa... errespetatuz. Ondoren, lurra sakonera handiko eta zabalera estuko lursailetan banatzen zen. Aurreko aldean bi solairuko etxebizitza —tailerra eta etxebizitza— egiten zen, eta atzeko aldean baratza, etxeko animaliak eta ur iturria ipintzen ziren. Hala, hiri eta etxebizitza bioklimatikoak eta energetikoki autonomoak zituzten. Eskoriatza eta Aretxabaleta, esaterako, horren adibide dira.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**

arizmendi
ikastola **PRO**

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Ninika Loradenda

Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L

Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa

Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.



Esko Sport

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.



Jaixak

Barrenkale 10 - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburutetan izan ezik.



Estacion Servicio Arrasate

San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregeia erositara.
- % 2 dendako produktuetan.



Begiondo Optika

Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea

Torreazuo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoa) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia

Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.



Gaes

Otalora 18, Arrasate

Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Multiópticas

Juan Carlos Guerra, 1 behea - Arrasate

Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Arrikruz Kobak

Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.



Imprespal, C.B Imprimategia

Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Kuttuna Estetika

Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



AQUARIUM

Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.



Oñati Garajea

Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Biotika

Iturriotz 21 - Arrasate


- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Caravanas Oñate

Odadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketaren egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Guztiz Eder

Kalebarria 29

Oñati

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Lilura Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



Argia

www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.



Txuri Urdin izotz pista

Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jai egun, jai egun bezpera edo oporraldia.

** Ez bada zubia edo oporraldia.



Lastai

Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KULTURA



Arrasate Margo Taldeak zapatuan egindako arte azokan parte hartu zuten artisten talde argazkia. | IMANOL SORIANO



Herritarrak Arrasateko margolarien lanak ikusten. | IMANOL SORIANO

Zeru grisari kolore apur bat

- ▶ Arrasate Margo Taldeak antolatuta arte azoka egin zuten Seber Altuben zapatuan
- ▶ Eguraldi goibela eta hotza egin zuen arren, arrasatear dezente gerturatu zen azokara

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Arrasateko Seber Altube plaza gris eta goibel esnatu zen zapatu goizean. Koadro bat margotu beharra izanez gero kolore grisak eta ilunak izango ziren nagusi. Bada, goizak aurrera egin ahala koadroa kolorez jantzten hasi zen apurka-apurka. Arrasate Margo Taldeko artisten lanek jantzi zuten, hain justu ere, mihisea kolorez. Urteroko hitzordu bilakatzen ari den arte azoka egin zuten.

Herritarren berotasuna

Bederatzi gradu besterik ez zituen egiten Seber Altube plazan azoka ireki zutenean, baina, zorionez Arrasateko artistek herritarren berotasuna jaso zuten berehala. 11:00etarako jende dezente zebilen margolarien postuak bisitatzen.

Artistekin eurekin hitz egiteko aukera aprobeztatu zuen batek baino gehiagok. Margolariek gustura asko eman zituzten eskatutako azalpenak. "Oso egun polita izaten da niretako gaurkoa. Ezagutzen nauen jende askok ez du ezagutzen margotzeko dudan zaletasuna eta harritu egiten dira hemen ikusten nautenean. Gerturatu eta egiten dudan lanaren inguruko azalpenak ematen dizkiet", kontatu zigun pozik Belen Jimenezek.

Eguerdi partean eta arratsaldean ibili zen jende gehien eta artistak gustura azaldu ziren egunak emandakoarekin.

Hamalau artista

Arrasate Margo Taldeko artistek maila bikaina erakutsi zuten

azokan eta denetariko teknikak ikusi ahal izan ziren bertan. Guztira, hamalau margolarik hartu zuten parte: Maribi Barre-

no, Ana Juarez, Montse Roldan, Markel Madinabeitia, Ghislaine Jules-Gaston, Xeli Mendizabal, Tano Rivas, Pili Muñoz, Julen

Ribas, Bea Arregi, Juan Mari Lopez de Bergara, Gurutze Mujika, Amaia Arantzabal eta Belen Jimenez.

Belaunaldi berriek kolore berriak dakartzate Margo Taldera

Arrasaten betidanik egon da margolaritzarako zaletasun handia eta 90eko hamarkada hasieran, artista talde batek elkarte propioa sortzea erabaki zuten: Arrasate Margo Taldea. "Ordura arte Arrasateko Udalak antolatutako margo eskolen bueltan ibiltzen ginen denok, baina artista talde bat batu eta geure kabuz elkarte martxan ipintzea erabaki genuen. Felix Ayala, Quevedo, Arrieta, Xeli Medizabal, Pepita Mendizabal, Montse Roldan eta ni neu ginen tartean —beste asko ahaztu egingo zaizkit seguru—", kontatu digu Amaia Arantzabalek.

Urte hauetan guztietan taldea sendotuz joan da eta dagoeneko badituzte urteroko hitzordu finkoak, esaterako, San Juanetako margo lehiaketa eta azken hiru urteetan indarra hartzen ari den arte azoka. Aurten gainera, esperientzia berri bat ipini nahi dute martxan: elkartrukeena. Urretxuko margo taldearekin egingo dute lehenengoa.

Arrasate Margo Taldea sendotzen ari da azken urteetan eta horren adibide da taldera batu diren margolari berriak. "Pozik gaude jende berria ilusioz beteta eta gogotsu datorrelako", dio Arantzabalek.

BELEN JIMENEZ ARTISTA



"Ikaragarri gustatzen zait margotzea eta nire zaletasuna herritarrei erakusteko aukera aproposa izaten da arte azoka. Gustura egoten naiz".

AMAIA ARANTZABAL ARTISTA



"Azoka egiten dugun hirugarren urtea da eta badirudi herritarrek gustura hartzen dutela. Eguraldi petrala daukagu, baina hala ere, jende dezente dabil".

MONTSE ROLDAN ARTISTA



"Gaurko eguna oso berezia izaten da guretako. Herritarrei gure artelanen gaineko azalpenak emateko aukera eskaintzen digu".

IÑAKI ARREGI BISITARIA



"Ekimen oso polita da. Gaurko eguraldi goibela pixka bat alaitzea lortu dute. Uste dut bertako artistei eta margolariei babesa eman behar zaiela".

GURUTZE MUJICA ARTISTA



"Naturarekin lotutako gaiak marrazten ditut eta, batez ere, elurra margotzea gustatzen zait. Azoka egin dugun hiru urteetan etorri naiz".

Arrasate Musikalek herritarrekin ospatu zuen zapatuan 40. urteurreneko jaia

- ▶ Kalera atera dituzte ekintzak: eguerdian emanaldia egin zuten plazan eta iluntzean dantzaldia
- ▶ Atzoko jaiaz gain, emanaldi ugari antolatu dute ekain bukaera arte urtemuga ospatzeko

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Herritarrekin ospatu nahi izan zuen Arrasate Musikalek zapatuan 40. urteurrena, eta halaxe egin zuen. Ekintza ugari antolatu dituzte urtemuga horren bueltan, baina zapatukoa berezia izan zen; jai giroan ospatu nahi izan zuten, eta euren alaitasuna herritarrekin partekatu.

Goizean hasi zituzten ekitaldiak txistulari eta perkusionistek egindako kalejirarekin eta ordu-bete beranduago, eskolako zenbait taldek ekitaldia egin zuten Herriko Plazan: orkestra, banda, ballet taldea, hizkuntza musikaleko ikasleak... Emanaldi horrekin, eskolan lantzen dituzten musika mota ezberdinak, irakasten dituzten instrumentuak eta adin askotariko ikasleak daudela erakutsi nahi izan zieten herritarrei.

Omenaldia ere egon zen

Plazako eguerdikoko emanaldian, Juan Artzamendi zena izan zuten gogoan. Arrasate Musi-



Gazteluondoko pilotalekuan egin zuten bazkaria. Arratsaldean umeendako jolasak ere egin zituzten. | IMANOL SORIANO

kaleko sortzaileetako bat izan zen; eta eskolako lehen zuzendaria, 1992ra arte, erretiroa hartu zuen arden. Bada, egin zuen lan guztia eskertuz, Ines

Zeziaga haren alargunari oroigarria eman zioten.

Horren ondoren, bazkaria ere egin zuten. Musika Eskolako 233 guraso, ikasle, irakas-

le eta bazkide elkartu ziren. Biteri plazan bazkaltzekoak ziren arren, Gazteluondoko pilotalekura joan ziren eguraldiagatik eta primeran pasatu

ASTE HONETAKO EKITALDIAK

MAIATZAK 28

18:30 Saxofoi eta gaita kontzertu, Musika Eskolan.

MAIATZAK 29

18:30 Perkusio kontzertua, Musika Eskolan.

20:00 Kantu kontzertua, Arrasateko parrokian.

MAIATZAK 31

18:00 Saxofoi kontzertua, Musika Eskolan.

zuten bai bazkarian, baita ondoren egindako jolasekin ere.

Arratsaldean, dantzaldia

Urte batzuk atzera egin eta lehenagoko dantzaldietara itzuli ziren arrasatearrak arratsaldean Arrasate Musikaleko bandak Herriko Plazan egindako kontzertuarekin. Lotuta dantza egiteko erritmo oso ezagunak jo zituzten, eta plazan batutako herritarrek gustura hartu zuten emanaldia. Hasierako lotsak alde batera lagata asko animatu ziren dantza egitera.



MARTA IZAGIRRE
ZUZENDARIA

"Gure jaia herritarrekin ospatu nahi izan dugu, gure emanaldiak areto itxietan egitekoak bakarrik ez direla erakutsi. Oso pozik gaude herritarren aldetik izan dugun harrerarekin, orain artekoa oso hunkigarria izan da".



IGOR LARRAÑAGA
IRAKASLEA

"Bergarakoa izanik ere, sei urte daramat hemen irakasle eta oso gustura nago. Oso jende jatorra dago eskolan, ikasle, irakasle zein guraso, eta pozik nago. Gaurko eguna ere primeran doa, oso ondo ari gara pasatzen".



MAPI FERNANDEZ
BAZKIDEA

"40 urte daramat Arrasate Musikalen era batera edo bestera. Ikasle moduan hasi nintzen, solfeoarekin eta orkestra sortu zenean hor ere bai, biolontxeloarekin. Seme-alabak ere bertan ari dira ikasten. Oso egun polita izan da gaurkoa".



ELENE MAIDANGAN ETA IZAR RUIZ DE AUSTRI
IKASLEAK

"Lau urte daramagu Arrasate Musikalen. Solfeo eta biolina ikasten dut nik (Izar). Nik (Elene), berriz, solfeoa eta gitarra ikasten ari naiz. Asko gustatzen zaigu Musika Eskolara joatea, gustura joaten gara, bestela ez ginatke joango... Gaur ere oso ondo ari gara pasatzen, lagunekin eta, jolas egiten. Orain gainera, gureta jolasak prestatu dituzte, eta oso dibertigarria da. Egia esan, orain arteko guztia oso ondo antolatuta egon da".

Jaso dute saria Koldo Eleizaldeko irabazleek

Zapatuan banatu zituzten Bergarako Koldo Eleizalde literatura lehiaketaren 26. aldiko sariak. Udal pilotalekua bete egin zen eta ekitaldia polita eta alaia izan zen ikastetxeek prestatutako emanaldiek lagunduta. Sari banaketa ekitaldiko argazki guztiak eta irabazleen zerrenda www.goiena.net atarian ikus daitezke.





Cabezafuego, Artola eta Jose Mari 'a capella' abesten. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Whiskiak berotutako gaua

FITXA

MUSIKA

BIZARDUNAK, BERRIA KULTUR BIRA

Estiloa: Folk-rock.

Non: Espaloia.

Eguna: Zapatua, maiatzak 25.

Iraupena: Ordu eta erdi inguru.

JAGOBA DOMINGO | ELGETA

Berria Taldearen kultura bira Debagoienara heldu zen zapatuan, Elgetako Espaloira, hain zuzen. Hamar urte dira *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta abentura *Berria*-rekin hasi zirenetik, eta oraingoan, urte hauetan guztietan herritarrek emandako babesa eskertu nahi izan dute bira egin da. Hala, Euskal Herri osoan barrena, eskualdez eskualde dabilta antzerki, bertso saio eta kontzertuak antolatzen. Guztira 30 ekitaldi egingo dituzte, eta zapatuan Bizardunak taldearen txanda izan zen.

Berria opa eta topa bideoaren emanaldiarekin hasi zen gaua. Ikus-entzunezkoan, *Berria* zer den azaltzen dute hainbat pertsonaien testigantzekin. Horrekin batera, Joanmari Larrarte, egunkariko Berria Taldeko kontseilari ordezkaria ekitaldian egon zen, jasotako babesa lehen pertsonan eskertzeko. Horren ostean, Nafarroako iraultzaileen ordua heldu zen.

Botila beteta dagoen bitartean Kontzertua hotz hasi zen, ikusle batzuk hasieratik gogotsu zeuden arren, taldeari eta publikoari martxan jartzea kosta zitzaien. Hala ere, whisky botila eta garga-gardoa agertu zirenean, kontzer-

tuaren norabidea aldatu egin zen. *Nazi de fresa* kantuan dioten bezala, *defendatuko dut nire arbasoen ideia botila beteta dagoen bitartean*". Bizardunekin ohikoa den bezala, festa eta iraultza giroan murgildu zituzten ikusleak, eta botilari tragoak eman bitartean tenperaturak gora egin zuen.

Zapatuan batera-jole barik etorri ziren Espaloira, baina baxu-joleak ondo baino hobeto eraman zuen taldearen erritmoa, eta ez da lan makala agertokian dauden instrumentu guztiak kontutan hartuta. Musikari bezala duten kalitatea agerian utzi zuten beste behin, baina alderdi horrek laister eman zion paso ohi duten kontrol ezari; horixe da, hain zuzen, taldearen ezaugarrietako bat. Hala ere, publikoak horixe nahi izaten du, eta ondo baino hobeto egiten dutela frogatu zuten.

Folk-rock-a baino gehiago

Hiru diskoen errepaso egin zuen zortzikoteak eta azkenaldian The Pogues edo The Dubliners taldeen herentzia hain presente ez izan arren, Espaloira gerturatutakoek ederto disfrutatu zuten dantzan eta abesten. Folk eta rock doinuak nagusi izan baziren ere, country edo psikodelia zertzeladak utzi zituzten Elgetako gauean.

Ordu eta erdiko emanaldi bizi, dibertigarri eta beti bezala politikoki ez egokia eskaini zuten. *Cabezafuego*-ren letrak bereziak direla argi dago, eta zuzenekoetan diskoan baino are indar handiagoa lortzen dute publikoren konplizitatearekin. Amaitzeko *Nazi de Fresa* kantua jo zuten eta beti bezala Mondragon Kooperatiba gogora ekarri zuten.

JOANMARI LARRARTE
BERRIA TALDEKO
KONTSEILARI ORDEZKARIA

"Herriak eman digun laguntza bueltatzeko da bira kulturala"

Berria Taldearen kultura bira aurkezteko Espaloian egon zen egunkari-ko Gobernu Kontseiluko idazkaria.



Herritarrek Berria-rekiko duten babesa islatzen al da egunerokotasunean?

Bai. *Berria* sortu bagenuen, herriaren babesa genuelako izan zen. Hamar urteetako ibilbidean ere, babes hori sentitu dugu. Batzuetan, herriz herri irakurleak baditugula ikusi dugulako eta beste batzuetan ere, *Berria* aurrera ateratzeko egiten ditugun kanpainen bat egiten dutelako.

Debagoienean izan duzuen bigarren zita da, zer nolako erantzuna jaso duzue?

Oso pozik gaude, gaurkoa ondo doa eta Arrasaten egiten gurenak harrera oso ona izan zuen. Arrasateko ekimena Debagoienetik sortutakoa izan zen, beraz, *Berria*-k Debagoienean duen babesa eta lotura argi dago. Hori guretzako pozgarria da eta ilusioa ematen digu etorkizunerako.

'Ez gara Palestinaz ari' ikuskizun arrakastatsua izan zen Oñatin

IMANOL BELOKI | OÑATI

Bertsoa, poesia eta musika uztartu zituen ikuskizun berezi horrek egubakoitzean. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, Aitor Atxega gitarr-jotzaileak eta Imanol Kamio piano eta akordeoilariak egin zuten emanaldia. Oñatiko Bertso Eskolak antolatutako ekitaldia izan zen eta bertsoekin batera, poesiak, zenbait esketek eta grabatutako musikak osatu zuten ikuskizuna.

Publikoaren aurrean biluztu egin ziren bertsolariak, barneko emozioak azaleratu. Minak, frustrazioak, konplexuak, desioak, amorruek azaleratu zituzten, eta euren buruaz barre ere egin zuten.

Eguneroko arazo, sentimendu eta beldurrek pisu handia hartu zuten emanaldian, eta gu guztiok nolakoak garen azaltzea izan zen ikuskizunaren helburua.

Umorea ere ez zaitzaion falta izan eta ikuskizunaren amaieran etorri zen, bereziki: euren burua parodiatu zuten, bertsolariak bertsoa bota behar duen unean burutik pasatzen zaizkionak kontatuz.

Bertso eskolakoak pozik

Antolatzaileak oso gustura gelditu ziren ikuskizunarekin, taldeko kide Iñaki Olalde azaldu duen moduan.

Santa Ana antzokira 120 lagun inguru gerturatu ziren, jende gaztea, gehien bat.



Ikuskizunaren une bat. | IMANOL SORIANO

Ederki gozatu zuten tangoa dantzatzen Aretxabaletako plazan

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Tangoak jakin-mina piztu zuen zapatu arratsaldean Aretxabaletan. Badira hiru urte herrian tango taldea sortu zela, eta asteburuan ikasitakoa plazaratu zuten aretxabaletarren begiradapean.

Fernando Valsega argentinarren gidaturiko Exilio New Tango orkestraren doinuekin; tangoa, vals-a edo milonga dantzatzera animatu ziren plazara gerturatutako hamar bat bikote. Bartzelonatik etorritako orkestrak lan fina egin zuen plazan, publikoaren txaloak irabaziz.

Aretxabaletako tango taldean zortzi lagun daude, hala ere,

zapatuko hitzorduan bikote gehiago egon ziren, besteak beste, Gasteizetik etorritakoak. Aretxabaletako Dantza Astearen barruan kokatu zuten ekitaldia eta plazara jende dezente hurbildu zen sentimenduz beteriko eta konplizitatean oinarrituriko dantzekin gozatzera.

Trantze egoeran

Gogotsu aritu ziren dantzariak hasierako lotsa alde batera utzi ondoren, eta tango zaleen aurpegiak ikusita, mundu honetik kanpo zeudela zirudien. Trantze egoera batean sartuta zeudela ematen zuen, begiak itxi eta bikote-kideen arteko konexioarekin bidaiatzen.



Bikote bat tangoarekin bidaiatzen. | IMANOL SORIANO

GURE MUSIKA TALDEAK

DRAKES



Drakes taldeak hamar urte bete berri ditu. | DRAKES

"Hamargarren urteurrena ospatzeko lagunarteko festa bat egin dugu"

- ▶ Drakes oñatiarrek Basura, Odio eta Sutura taldeekin ospatu zuten zapatuan
- ▶ Aspaldian gutxi jo duten arren, lokalean lanean ibili dira kantur berriak egiten

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Hamargarren urteurrena ez da egunero ospatzen; horregatik, Drakes oñatiarrek lagunaz inguratuta eta musika joaz gozatzea erabaki dute data berezi hori. Zapatuan Oñatiko gaztelekuan bi belaunaldi elkartu ziren ohol-tza gainean, 80ko hamarkadako Odio eta Basura oreretarrak eta mende berriko Sutura eta Drakes. Azken horiek zorientzeko eta taldearen ibilbidearen eta etorkizunaren erreposoa egiteko Pas-ku eta Muru-rekin izan gara solasean. Zorionak!

Has gaitzen hasieratik.

Beste hainbat gazte bezala, garaje batean jotzen hasi ginen, 16 urte genituela, ni [Pasku], Arzu eta Lumbre. Oñatin aspertu egiten ginen eta musika jotzeari ekin genion. Orain dela hamar urte ez zeuden gaur beste talde, Oñatin geu, Golpe de Estado, Sharon Stoner eta besteren batzuk, baina ez zen gaur daukagun eszena. Beraz, hasi bezain laster zurrumurrua zabaldu zen herrian beste talde bat zegoela eta handik gutxira eskolak antolatutako kultura jardunaldi batzuetan jo

genuen lehenengo kontzertua, 2006ko maiatzaren 23an, gaztelekuan. Bad f-Line taldearekin batera jo genuen, bertako piano-jolea eskolako irakaslea zen eta. Hasieran hirukote bezala hasi ginen; bateria, gitarra eta ahotsa, baina lehenengo kontzertua eman baino hiru aste lehenago, Josh ezagutu genuen eta oraindik ere gurekin dago.

Eta 2006an lehenengo maketa.

Bai, Kirrin-ekin grabatu genuen, bere etxean, eta, horren ondoren, Alex taldekide berria batu zitzaigun bigarren gitarra-jole bezala.

Maketa aurkezten kontzertu dezenteman genituen eta 2007an Danbaka lehiaketan parte hartu genuen, eta publikoaren saria irabazi. Handik bi urtera, Arzu bateria-joleak makilak utzi zituen eta Muru sartu zen haren ordean.

Ondoren, Si nos dejan no Keremos diskoa heldu zen.

2010ean kaleratu genuen diskoa, eta maketarekin alderatuz ezberdintasun ageriak ditu. Lehenengo disko luze hura Asturiasko Santo Grial diskoetxearekin kaleratu genuen, eta, horri esker, banaketa ona izan zuen. Maketarekin Euskal Herriko hainbat txokotara heldu ginen, baina *Si nos dejan no Keremos* diskoarekin beste pauso bat eman genuen. Bitxikeria bezala, disko honi esker Latinoamerikatik animoak jaso ditugu egindako musikagatik. Hala ere, bertan musika *frikia*k direla ere aipatu behar dugu, musika oso gustuko dute eta Euskal Herriko punk mundua asko esploratzen dute.

Zuek egiten duzuen punkak ez dauka zerikusi handirik inguruan egiten den punkarekin.

Bai; hemengo punka baino, gure estiloa kanpoko punketik gertua-

goa dagoela esan digute askotan; adibidez El Ultimo Ke Zierre, Marea, La Polla, Reincidentes edo Disidencia bezalako taldeen koordinadetan. Hala ere, betidanik punk musika egiten saiatu gara, gure gustukoa delako eta hori egin nahi dugulako. Gure oinarria punk musika eta hitz kritikoak dira.

Horren erakusle, Boikot taldearekin jo zenuten kontzertua.

Hala da, abenduan jo genuen eurekin Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. Boikotekoek lehiaketa bat jarri zuten martxan euren kontzertuetako gonbidatuak aukeratzeko, eta Euskal Herrian jo zuten kontzertuan Drakes aukeratu zuten. Esperientzia polita izan zen.

Eta zapatuan X. urteurrena ospatu zenuten.

Hamar urte ez dira egunero betetzen, eta guk lagunartean ospatzea erabaki dugu. Horretarako, Basura, Odio eta Sutura taldeekin jo genuen herenegun. Bi belaunaldi ezberdin batu genituen ohol-tza gainean. Basuran eta Suturan jotzen duen Endika lagun dugu, eta Oñatin jotzeko gogoia zuen aspaldi; beraz, zapatuan denok elkartu eta kontzertu berezia egin genuen. Gainera, Endiak berak gurekin jo zuen, Boikot taldearekin emandako kontzertuaren ostean, Alexek taldea utzi zuelako.

Eta hemendik aurrera?

Denboratxo bat daramagu lokalean lanean; beraz, litekeena beste disko bat grabatzea da. Baina gure erritmora egingo dugu.

"Gure oinarria punk musika eta hitz kritikoak dira"

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Pisu salgai/ alokairuan muntzaratzen. Sukalde-egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua. Garajea eta ganbara. 94-681 68 91.

Aramaio. Aukera ona. Gantzaga auzoan etxebizitza bakarra salgai. 2.000 urtean eraikia. 8000 metroko lursailarekin. 636-94 81 31.

Arasate. Erdigunean kokatuta eta egoera oso onean. 55 metro koadro. Bi logela, egongela, sukalde eta komuna. Igogailuarekin. 155.600 euro. 943 79 12 79 edo 696 55 53 67

Bastida. Pisu saldu edo egunetarako alokatu egiten da, bastidan (Arabar Errioxa). Herriaren erdialdean kokatuta dago. 106m2koa eta 3 logela, 2 bainu, sukalde eta saloia dauka. Altxaruekin geratzen da. 8-10 pertsonentzat alokatzen da 65 euro eguneko, pisu osoa. Arremaretan jartzeko 600-46 32 76 telefonora deitu. Posta: alejandrojosefina@gmail.com.

Bolibar. Bolibarretxe salgai. lur sailakin edo gabe. 660-35 80 67.

Durango. Pisu salgai Durango erdigunean. Bi logela. Berriztatuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsua edo eguzkitsua. 120.000 euro. 695-70 24 61.

Eibar. Pisu salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukalde, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazio ipar-hegoaldekoa da. Arroparako esekitua instalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. 656-78 60 97.

Elorrio. Etxebizitza salgai Elorrioko erdigunean, estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 198.000 euro. 634-45 72 01.

Gasteiz. Pisu salgai San Martin auzoan (125m2, 2. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, ipar-hegoaldero begira. Sukalde, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, aparkaleku eta trasteleku ere. Altxari eta guztiz. Berogailua gas bidez. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 253.000 euro.

lurreta. lurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. 685-72 80 42.

lurreta. lurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukalde. 30 m2ko terraza. Berriztatuko. 636-40 26 67.

Mallabia. Baserriztatuta eta 6.000m2-ko lursailarekin. 639-97 26 85.

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Altxariz jantzita, trasteleku eta igogailuarekin. 675-71 72 83.

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Muntzaratz auzoan, pisua alokagai. 652-73 63 39.

Abadiño. Pisu alokagai Abadiñoan, Muntzaratz auzoan. 85m2, 3 logela eta 2 komun ditu. 662-55 40 77.

Arasate. 2013-2014 ikasturterako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitatetik oso gertu. 605 77 51 71

Arrasate. Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erquin 7an. Egongela ere badu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Berokuntza indibidualarekin. 676-85 45 36 / 943-79 83 48.

Bastida. Labastidan oporretako pisua alokatzen dut pisziarenekin. Torre-otxandi urbanizazio pribatu. Urbanizazioak igerilekua eta sasibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukalde eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabetekako alokatzen da. Interesatuok deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga@hotmail.com.

Conil (Cadiz). Landa-etxea alokatzen da Conilen. Hermetik 3 minutura. Lorategia dauka eta ingurune lasaia. 600-59 65 38.

Conil (Cadiz). Apartamentu bat alokatzen da. Hondartzan inguruan. 653 73 34 57.

Elgeta. Etxebizitza errentan ematen da elgetako salbador kalean. Bi logela, sukalde eta egongela. 650-23 10 19.

Elorrio. Elorriko etxebizitza alokagai. Erdigunean eta estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 650 euro hilean. 634-45 72 01.

Gasteiz. Pisu alokagai Arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, hegoaldero begira. Sukalde, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita aparkaleku eta trasteleku ere. Altxari eta guztiz; bizitzaren hasteko moduan. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 950 euro.

Oropesa del Mar (Castellon). Oropesa del Mar, marina dor 4-6 pertsonentzako apartamentu berria, udan eta urte osoan zehar alokagai. Hondartzatik 150m-tara. Egongela, 2 logela, komuna, sukalde, terraza handia, garajea, 2 igerileku eta txintxunak. Leku lasaia. Animaliarik ez. 670-21 49 24. Marjio

Tolosa. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Tolosan, persona bat edo bintzako egoitua. Bi planta dauka. Eguzkitsua da eta lasaia. Prezioa 450 euro. 609-48 11 24.

Valle Rmales (Kantabria). Txalata alokatzen da. 653-73 34 57

Zaldibar. Pisu alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz hornitua. Hilean 550 euro. 655-70 62 68.

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, pisua alokagai. 3 logela, altzariz hornitua eta igogailuarekin. 639-21 01 39.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Alokairuan hartzeko etxe bila nabil. 400 eurotik behera. 622 94 19 12

Bergara. Hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Interesatuok 654 24 13 27

105. ETXEA OSATU

Arasate. Logela ematen da baserrin erdigunean. 629-80 77 73

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 225 euro denabare. Wifiarekin. 670 85 86 68

Berriz. Logela alokatzen da baserrin konpartitzeko. Berriztatu berria eta leku paregabea. Interesatuok 619-66 58 57.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu. Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak. Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ). Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Irakatu
806. Galdu
807. Aurreratu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Oñati. Pisu osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaziguke. Deitu 653-74 87 51 zenbakira 20:00etatik aurrera.

Oñati. Pisu osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaziguke. Deitu 653-74 87 51 zenbakira 20:00etatik aurrera.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Oletan dagoen etxea, lursailarekin, trukatu genuke Arrasateko batekin. 645 73 82 31 edo 648 06 65 24

2. GARAJEAK

201. SALDU
Aretxabaleta. Santa kurtz 24an garaje itxia salgai. 655-71 37 84.

Deba. Garajea salgai Debako hondartzan. 648-20 37 75.

Elgeta. Salbador 2tean, garajea salgai. 650-23 10 19.

Elorrio. Elorrioko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesatuok deitu 658-75 92 64 telefonora..

Elorrio. Elorriko, Belengua kalean, garaje itxia salgai. Deitu 634-45 72 01 telefonora.

Otxandio. Otxandion bi garaje salgai, bat itxia. Deitu 675-71 72 83 zenbakira.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia, 18-20 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943-76 06 60.

Durango. Garaje plaza bi errentan ematen ditut. Plateruen plazan. 656-78 02 15.

Durango. Durango Gasteiz bidea kalean garaje itxia alokatzen da. 658-45 35 66.

Durangeldea. Aparkaleku alokagai Herriko Gudarien kalean. Durango. 669-73 56 80.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garaje itxia alokatuko nuke Kalegoian. Gehienez 60 euro ordainduko nituzke. Interesatuok 653-71 04 56.

Oñati. Garaje errentan hartuko nuke Errekalde edo Moia kale inguruan. Telefonoa: 650 -27 05 78.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulegoa alokagai Durango, Plateruen plazan. 42m2. 656-78 02 15.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arasate eta Aretxabaleta. Haur Hezkuntza ikasketak aurten bukatuko dituen neska eskalduna ekainean eta uztailean umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 87 12 97

Arasate. Emakume eskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. Deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

Bergara. Haur Hezkuntzako ikasketak dituen neska eskaldun arduratsua uztailean umeak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 615 76 29 25

Bergara, Arrasate eta Oñati lan egingo nuke. Garbitasun lanak: etxebizitza, tabernak, atarteak eta abar. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. Ordua ere bai. Berehalan lanean hasteko moduan. Deitu telefono honetara: 625 86 99 51

Bergara. Emakume arduratsua, eskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerkultura tituluduna. Arantxa. 688 65 30 62

Bergara. Neska lan egiteko gertu, garbitasun lanak: etxeak, tabernak eta abar. Deitu telefono honetara: 622 94 19 12

Debagoiena. Adin nagusikoak zaindu, egunez zaindu gertu eta etxeko lanak egiten ditut. Ordua edo lanaldi osoan. 727 74 42 36

Debagoiena. Denetarik garbitasun egiteko nituzke, urtetan horretan arituko naiz -eta. Umak zainduen espe-rientziaduna. Deitu telefono honetara: 602 36 39 92

Debagoiena. Neska lanerako gertu etxe lanetan, garbitasunetan, etxean bizitzaren, ordua edo egun osoz. 648 46 90 51

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditu. Ospitalean gaua pasatzeko zain nagusiak zain-zeko ordua. Tabernan lan egiteko, umeak zainzeko edo dandan lan egiteko ere prest. Autoa dauka. 617 20 59 43

Debagoiena. Emakume eskalduna lanerako gertu. Eskarmentuak daukat, dandan, nagusi zain umeak zaindu eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. Deitu 688 80 27 01 edo 943 25 02 96 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Erizaintza tituludun neska lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. Deitu 688 80 27 01 edo 943 25 02 96 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Garbiketaren lan egingo nuke: garajek, baserriak, tabernak eta etxebizitza garbitzen, baita mezulari moduan ere. Pascual. 625 96 73 33

Debagoiena. Gizonezkoa lanerako gertu. Tabernari zain garbitasun lanetan jardungo nuke. Deitu telefono honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutil boliviarrak pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizitzaren zain ordua lan eginez. Carlos. 631 36 17 62

Debagoiena. Mutila edozein motatako lanak egiteko prest. Deitu 602 87 46 25 edo 605 44 61 98 zenbakietara.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen edo nekazaritzan arituko nintzateke. Etxean bizitzaren edo ordua. Lege dokumentuak eta erreferentziak ditut. Deitu telefono honetara: 630 45 51 03

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. 943 53 35 82 edo 691 72 67 38

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketara ordua egiteko edo nagusiek egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarritzko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketarako egingo nituzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizitzaren edo egun osoz zain ordua. 615 06 28 04

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde zain garbitasun lanetan. Deitu telefono honetara: 688 68 12 79

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zain garbiketara egiten. Ordua edo egun osoz. Deitu telefono honetara: 629 80 77 73

Debagoiena. Neska eskarmentuduna lanerako gertu: garbitasun edo ume zain nagusiak zaintzen. Legezko paperak eta autoa daukat. 680 87 38 66

Debagoiena. Neska garbitasun lanak egiteko gertu. Ordua edo arratsalde. 672 70 71 25

Debagoiena. Neska lan bila dabil. Garbiketaren lan egiteko nituzke: atarteak, etxeak, elkar-tekak eta tarbenak, baita nagusiak zaindu ere. Sukaldean esperientzia daukat eta kotxeko karneta. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 602 36 39 92

Debagoiena. Neska lanerako gertu etxe lanetan, garbitasunetan, etxean bizitzaren, ordua edo egun osoz. 648 46 90 51

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditu. Ospitalean gaua pasatzeko zain nagusiak zaintzeko ordua. Tabernan lan egiteko, umeak zaintzeko edo dandan lan egiteko ere prest. Autoa dauka. 617 20 59 43

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzaile egiteko nituzke bai etxean bizitzaren zain egunez edo ordua. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 631 45 60 53

Debagoiena. Paperak dituen pertsona lanerako gertu; garbiketara edo pertsona nagusiak zaintzen. Debagoiena osoan. 672 96 08 22.

Durangeldea. Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara aritze-ko lan bila dabil. Deitu 689-43 64 54 telefonora.

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzaile egiteko nituzke bai etxean bizitzaren zain egunez edo ordua. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

Debagoiena. Udan umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska eskalduna naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 70 85 52

Durangeldea. Nagusiak zaintzeko, garbiketara edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Lanaldi osoan zain erdian, gauaz ere bai. Erreferentzia onekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609-88 79 21.

Durangeldea. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketaren lan egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Egunez edo ordua. Bizi-leku-baimenarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686-19 00 24.

Durangeldea. Etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko, garbiketaren zain sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 680-54 48 62.

Durangeldea. Edozein ordutegitan 24 orduz zain egunez eta edozein lanetan aritzeko prest. Etxeko lanetan, zaintza zain garbiketaren. 603-48 80 27 (Nira).

Durangeldea. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbitzaile lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Bizileku-baimenarekin. 636-44 59 01.

Durangeldea. Garbiketaren aritzeko (tabernak, etxeak, portaleak) zain pertsona nagusiak zaintzeko prest. 653-29 86 17.

Durangeldea. Pertsona arduratsua eta erreferentziaduna, pertsona nagusiak zaindu eta garbiketaren (portalak, tabernak, etxeak...) aritzeko prest. 631 -28 34 57.

Durangeldea. Goizez, arratsaldez, gauaz, asteburuetan zain jaiegunetan garbiketaren zain zaintza aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. 690-68 73 95.

Durangeldea. Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketaren edo sukaldari laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo ordua. 608 -65 90 55.

Durangeldea. 33 urteko neska nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest. Osasun osagarria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691-23 32 20.

Durangeldea. Asteburuetan zain astean zehar pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zain garbiketarako prest. 631 -26 28 68.

Durangeldea. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez. 632 -32 07 27.

Durangeldea. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketaren aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez, baita asteburuetan ere. 602-07 19 11 (Patricia).

Durangeldea. Nagusiak zain umeak zaintzeko edo garbiketaren aritzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-35 96 06.

Durangeldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. 669-50 16 53.

Durangeldea. Nagusiak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko lan bila. 600-72 84 37.

Durungaldea. Esperientzia duen neska 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. 672-85 39 30.

Durungaldea. Neska ardurtua, esperientziaduna eta erreferentzia onekin, 24 orduz edo egunez, asteburuetan edo ordura pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila dabil. Paperak eguneratuta. 628-00 22 17.

Durungaldea. 24 orduz, egunez edo ordura pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbitketan aritzeko lan bila. 602 -89 44 78.

Durungaldea. Neska eskalduna, titulu eta esperientziaduna umeak zaintzeko prest. 662-36 41 67 edo 94-681 39 40.

Durungaldea. Geriatriako laguntzailea asteburuetarako lan bila. 652-72 02 29.

Durungaldea. Pertsona ardurtasua pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Edozein ordutan aritzeko prest. 616-32 73 32.

Durungaldea. Pertsona ardurtasua, ordura pertsona nagusiak zaintzeko prest. 628-78 93 50.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 639-96 58 84.

Durungaldea. Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, ordura, gauzez zein asteburuetan aritzeko prest. 669-52 73 27.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauzez.... 696-75 35 30.

Durungaldea. 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauzez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Gidatzeko baimena. 619-13 07 16.

Durango. Andre eskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmen-turerekin. 699-74 57 23.

Durungaldea. 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauzez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. 628-86 41 86.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. 620-16 14 96.

Durungaldea. Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. 632-32 07 27.

Durungaldea. Emakumea lan bila. 24 orduz, egunez, gauzez, asteburuetan edo ordura. 690 -89 44 78.

Durungaldea. Nagusiak zaintzen edo garbitketan lan bila dabil. Lanaldi osoan edo erdian. Esperientzia eta erreferentzia onarekin. 632-99 23 83.

Durungaldea. 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. 638-33 51 10.

Durungaldea. 24 orduz, lanaldi osoan edo erdian pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. 660-93 56 31.

Durungaldea. 43 urteko neska goizetan umeak zaintzeko lan bila dabil. Esperientzia handia. 688-64 36 28. emaila: e. antxia@kgunea.net

Durungaldea. Gaueko 22:00-etatik goizeko 8:00ak arte pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. 650-61 01 94.

Durungaldea. Lan bila dabil, nagusiak zaintzen edo garbitketan. Lanaldi osoan edo erdian, baita gauzez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta. 650-61 01 94.

Durango. Durango egunez zein ordura pertsona nagusiak zaintzeko zein garbitketan aritzeko lan bila dabil. 680-29 66 76.

Elorrio. Irailetik aurrera, haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte eskalduna, arratsaldez (Durangaldean) haurrak zaindu eta eskolako lanean laguntzeko prest. Haurrekin oso ongi moldatzen naiz! 688-64 06 04.

Elorrio. Irailetik aurrera, astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, pertsona nagusiak edota ezinduak pasatzera atara edota konpainia egiteko prest dagoen neska gaztea naiz. Mendekotasuna duten pertsonenganako arreta ikasten ari naiz. 688-64 06 04. Mila esker.

Zarautz. 26 urteko neska udan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna. 645-71 52 58

Zerbitzari. 17 urteko mutila zerbitzari moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. 625 83 84 13, 679 38 39 54

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Durungaldea. Psikologo eskaldunak ikasketak teknikak eskaintzen ditu. Irakurketa-idazketa-ulemen arazoak lantzen ditu, batez ere. Hiperkabititatea, antisidedadea, etab. 679-38 23 69.

Durungaldea. 43 urteko neska goizetan etxetz ingeleseko klase partikularrek emateko prest. Esperientzia handia. 688-64 36 28 emaila: e. antxia@kgunea.net

Durungaldea. Neska gazte bat eskola partikularrek emateko eskaintzen da. LH, DBH zein Batxilergoan. Ekonomian lizentziatua. DBH eta Batxilergoan irakasle izateko masterduna, eta EGA tituladuna. 635-74 67 98.

Durungaldea. Neska eskaldunabatxilergo eta Administrazio tituladuna, etxetz eskola partikularrek ematen ditu. 662 -36 41 67 edo 94-681 39 40.

Durango. 24 urteko mutil eskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatu eskola partikularrek emateko prest. 695-73 69 94 edo emaila: k.anderez@hotmail.es

Durango. Durangaldeko neska eskalduna. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea; ingeleseko first titularekin eta pedagogia terapeutikoarekin. Umeak zaintzen, partikularrek ematen, begirale eta irakasle bezala esperientziaduna. Partikularrek emateko edo umeak zaintzeko prest. 628-04 51 25.

Elorrio. Irailetik aurrera, lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrek emateko prest. Hezkuntza berezia eta haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Akademian lanean egondakoa naiz. 688-64 06 04.

Villabona. Ingleseko eta frantseseko klase partikularrek ematen ditugu. Taldeko edo bakarka. Hizketaldiak, azterketak. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzakegu edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik, gero zure erabaki. 664-16 02 68.

Villabona. Klase partikularrek ematen dira: ingeleseko, frantseseko, matematika, fisika, kimika... Taldeko edo bakarka. Irakasle tituladuna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@yahoo.es.

6. MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 kotxea salgai. Audi A4 kotxea salgai. Oso egoera onean. 160.000 km. 673-49 36 39.

Autoa. Karneta atara berra badaukazu edota zure kontu autoan ibili nahi baldin baduzu, zuretzako auto ezin hobe da daukat, 71.000 km erreal dituen polo coupe gt 1.3 55cv. Prezioa 999 euro negoziagarria. Deitu ezazu, 695-70-62-27.

Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai. Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai, 22.300 km. Irrati-cd -mp3, abiadura-mugatzailea, ispilu elektrikoak, barne-ordenagailua, ia-ia berria eta durangaldetik bakarrik erabilia. IAT 2013ko azarara arte pasata. 7500 euro negoziagarri. 618 -93 62 14.

Honda Hornet cb 600 motorra salgai. Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, deitu konpromiso barik. 629-45 52 41.

Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai. 1999. urteko Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai, 105 CV. Ohea, aulkia, mahaia, pintura berria, laruzko aulkierriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta aparkatzeko sentsoreak. 673-49 36 39.

Opel frontera 2.3. D salgai. Opel frontera 2.3. D salgai. 1994. Urtekoa. Kilometro gutxi. 667-09 45 36.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Untxi erraldoia salgai. Untxi erraldoia saltzen da. Espainiar arrazako 10 hilabeteko arra. Interesatuok deitu zenbatki honetara: 94-621 82 57.

703. EMAN

Artzain txakurkumeak opari. Artzain txakurkume ederrak opari. 616-93 63 51 (Manu).

Pointer txakur umea oparitzen da. Pointer txakur umea, 3 urtekoa, zuri-beltza, oso oso polita, kumeak egiteko aproposa oparitzen da. 616-91 90 61.

Txakurkume mestizoak opari. Auri ki hilabete egingo dituzten txakurkume mestizoak ematen ditut opari. Inigo. Interesatuok deitu zenbatki honetara: 688-92 00 86.

Txakurkumeak opari. Labrador arrazako txakurkumeak opari. Pedigriarekin. Interesatuok deitu zenbatki honetara: 606-70 65 08. Carlos

Txakurkumeak opari. Brako eta ardi txakur nahasketa. Aste-bete daukate. Beltz kolorekoak. Interesatuok deitu zenbatki honetara: 637-90 57 15.

8. DENETARIK

801. SALDU

Bernedo. Lursail eraikigarria urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40 km-tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditut; baita golfeko hotela ere. 6 Interesatuok deitu zenbatki honetara 65-75 78 07 edo idatzit mezu bat helbide honetara: ana.vitoria.gasteiz@gmail.com. Ana

Bolibar (Bizkaia). Bolibarren dagoen ursaila salgai. Interesatuok deitu 660-35 80 67 telefono zenbakira.

Irrati antena salgai. Irrati antena salgai. FM transmisorea, osagai hauekin: «link» stereo sorgailu bat, «diratel» FM modulagailu-kitzikagailu bat eta «diratel» FM 600W anplifikadore bat. Eta FM sistema erradiatzalea, osagai hauekin: 4 antena yagi FM, 2 elementurekin eta FM banagailu bat, 4 biderekin. 94-681 65 58.

Quinny freestyle XL (Aulkia+kapazoa). Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabaz ezin da. Silla bi norantzatan jarri daiteke, haurra zuri begira dagoela edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoak. 350 €. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-25 25 13 (Ana)

Umeentzako autorako aukia salgai. Umeentzako autorako aukia salgai. 10 urtera artekoa. Merkea, ondo zainduta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-63 58 06.

Umeentzako bizikleta salgai. Umeentzako bizikleta salgai. Gutxi erabilia. Merkea. 6 urtera artekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-63 58 06.

Umentzako triziklo berria salgai. Umeentzako triziklo berria salgai. Opari egokia udarako, 75 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-77 84 58.

802. EROSI

Akordeoi kromatikoa. Akordeoi kromatikoa erosiko nuke. Salgai baduzu deitu 607-16 03 60 / 607-15 26 62 telefono zenbakietara.

Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Salgai baduzu deitu 688-84 10 82 telefono zenbakira.

Durungaldea. Lursail bat erosi edo alokatu nahi dut. Lursail txikia, ortua ipintzeko. Salgai baduzu deitu 666-69 10 03 telefonora.

DVD irakurgailu eramangarria. Bi pantailadun DVD irakurgailu eramangarria erosiko nuke. 665 75 64 38

Klarineta. Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 84 10 82

Samsung Galaxy SII-SIII. Bigarren eskuko Samsung Galaxy SII-SIII edo antzerako mugikorra erosiko nuke. Salgai baduzu deitu 647 31 64 41 telefono zenbakira.

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta zaharrak botatzeko badaukazu, nik jasoko dizut. Inaki. 699 06 23 95

Sofa zaharrak hartzen dira. Sofa zaharrak hartzeaz arduratzen gara. Etxeatatik hartu eta ondoren bere berrerrabiltzen edo birziklatzeaz arduratzen gara. Zerbitzu guztiz doakoa da. 671 92 06 49

805. TRUKATU

Lursaila. Hiru zaldirentzako Arrasate-Eskoriatza inguruan lursailen bila dabil. Trukean, lursailen mantenua eta garbiketa egingo nuke. Sastrakak kentzeko makina daukat. Interesatuok 697 41 66 24

806. GALDU

Aretxabaletan erlojua. Larunbat arratsaldean Iturrigori frontoi inguruan edota Durana kalean mutikoen erloju digital beltz bat galdu nuen. Aurkitu duenak deitu dezala zenbaki honetara mesedez. 679 86 67 38 edo 943 25 05 44

Betaurrekoak Bergaran. Orain dela aste batzuk Bergarako erdialdean, eguzkitako betaurreko batzuk galdu nituen. Graduata daude. Fundaren barruan zeuden. Beltzak eta txuriak dira. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 617 51 27 71

Eraztuna Arrasaten. Zapatuan, maiatzaren 11n, eraztuna galdu nuen Forum Sport dendan. Goizean. Eraztun handia da, anbar kolorekoa eta harri bat dauka. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 628 77 58 28

Erlojua Arrasaten. Jose Luis Inarra kaleetik Zerrajerako Eroskera bidean, Maala errabalek pasatuta, erloju galdu da. Zilar kolorekoa, kate-mailaduna, laukiluze formaduna. Norbaitek aurkitu badu, mesedez dei dezala telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 943 79 38 29

HTC telefono mugikorra. Larunbat iluntzean edo gauetan, apirilak 27, HTC markako telefono mugikorra galdu nuen Bergaran edo Antzuolan. Zuria da. Mesedez, aurkitu duenak dei diezadala. 695 95 07 24

HTC telefono mugikorra. Mobila galdu dit. HTC One X. Funda arrosa batean. Ozaetan. 50 euro emango ditut. Eskerrik asko. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 672 25 74 26

Patinetea Bergaran. Joan zen maiatzaren 11n, larunbata, Oxelo patinete beltza eta gurpil urdinak zeukana galdu genuen. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 637 00 01 58

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Bikotekide zintzoaren bila. Udaberriaz batera, bat-batean konturatu zara norbaitek in eskutik helduta gauzak ederragoak direla? , bizipenak konpartitu nahi dituzu? momentu onak eta txarrak norbaitekin partekatzeko aukera izatea gustuko zenuke? aurrera jarraitzeko ilusioa eman-go dizun norbait behar duzu bizibuzetari? . Ba hemen naukazu . Bilboko 54 urteko neska alai, irekia, oso lagunkoia naiz. Zinema, bidaia, itxasoa, hondartza, irakurtzea, kantatzea, lagunekin pasieran ibiltzea, txangoak egitea etabar dira nire zaletasun-batzuk. Antzekoa bazara animatu eta deituzaduz elkar ezagutzeko eta ikusiko dugu zergertatzen den. Harreman irakur baten bila dabil, baina adiskidetasuna ere oso gauza polita da. Animatu eta deitu. 606-25 05 84.

Euskara-Frantsesa Arrasaten. Mintzapraktika egiteko jende bila dabil Arrasaten. Interesatuok deitu 685 76 59 73 telefono zenbakira.

Hizkuntza elkartutua Arrasaten. Belgikako ikaslea naiz eta hizkuntza elkartutua egiteko jende bila dabil. Nik gaztelania ikasi nahi dut eta holanderaz, ingelesez, alemanieraz, frantsez eta italiaraz egiten dut, maila ezberdinetan bada ere. Gaztelanian maila ertaina daukat. Kontakturako idatzit mezu bat: Vandekerhof_niels@hotmail.com. (+32) 476 02 22 52

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila dabil, 46 urte ditut, altua eta morenoa naiz, ez ditut kargarik. Alai naiz eta bidaia zuzenaz gustatzen zait. 609 -48 11 24.

Zure euskara edota gaztelania hobetu nahi? Zure euskara edo gaztelania hobetu nahi? Lagunduko dizut, nik nire ingelesez hobetzen dudana berritean, deitutu. 638-26 43 85.

Etxebila
higiezinak



9 4 3 - 4 4 6 1 6 6
ALOKAGAI
TRINTXERPE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 490 €
PASAI DONIBANE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 500 €
LEZO: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 500 €
ASTIGARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza handia. 700 €
EGIA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Haltzariak. 700 €
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Parkin pribatua. 590 €
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 700 €
LEZO: Azken solairua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza ederra. Sartzeko. 125.000 €
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Sartzeko. 174.000 €
AMARA: Amara hasieran. Altua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 180.000 €
AMARA: Altua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Bista politak. 195.000 €
AMARA: Azken. 25m2-ko terraza. 3 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 330.000 €
ZENTROA: Prim kalea. Atiko berritua. Kanpora. Igogailua. 195.000 €
INTXAURRONGO: 75m2. 2 logela, 25m2-ko egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 2 trasteleku. 225.000 €
GROS: Jose Arana. Apartamentu berritua. Balkoia. Trasteleku. Kalera. 230.000 €
EGIA: Mandasko Dukearen kalea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 231.000 €
ANTIGUO: Atikoa. Oso bista politak itsasora. Eguzkitsua. Sartzeko. 99.000 €
LOIOLA: Aralar Mendiaren kalea . Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 150.000 €
HERNANI: 25m2-ko terraza. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berogailua. Sartzeko. 110.000 €
ZARAUZ: Duplexa. 98m2. Terraza. Bistak itsaso eta hondartzara. 260.000 €
IKASLEENTZAKO ALOKAIRUAK
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Oso polita. 750 €
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650 €
ZENTROA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Polita. 700 €

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

IRAGARKIA

KARGATZAILEEN LAN POLTSA

Debagoieneko Mankomunitateak Hiri Hondakin Bilketa Zerbitzurako KARGATZAILEEN LAN POLTSA BAT sortu nahi du.

BETEBEHARRAK

- Eskola ziurtagiriaren jabe izatea.
- B gidabaimena izatea.

ESKAERAK

Maiatzaren 31ren 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta Mankomunitatearen web orrian daukazue oinarriak eta eskaera ereduak.

HELBIDEA: Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE

TELEFONOA: 943 79 33 99

WEBGUNEA: www.debagoiena.com

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Arrasate, 2013ko maiatzaren 24an

IRAGARKIA

KARGATZAILE/TXOFERREN LAN POLTSA

Debagoieneko Mankomunitateak Hiri Hondakin Bilketa Zerbitzurako KARGATZAILE/TXOFERREN LAN POLTSA BAT sortu nahi du.

BETEBEHARRAK

- Eskola ziurtagiriaren jabe izatea.
- C gidabaimena izatea.
- Lanean hasi baino lehen CAP (laneko gaitasun agiria) izatea, derri-gorrezkoa denean.

ESKAERAK

Maiatzaren 31ren 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta Mankomunitatearen web orrian daukazue oinarriak eta eskaera ereduak.

HELBIDEA: Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE

TELEFONOA: 943 79 33 99

WEBGUNEA: www.debagoiena.com

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Arrasate, 2013ko maiatzaren 24an

Xbox berriarekin kontsolatik harago joan gura dute

Aurkeztu dute 'One' modelo berria eta urte amaierarako salgai ipiniko dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Egin du Microsoft-ek aurkezpena. Xbox One dauka izena kontsolaren modelo berriak eta Kinect osagarri baita berriarekin etorriko da; ahots bidezko kontrolarekin eta kontrol panel ezberdinarekin. Microsoft-ek "guztia baten" planteamenduarekin heldu dio oraingoan: jolasa, Skype-erekin komunikazioa, Interneten nabigatzeko modua eta streaming bidezko audio eta bideoa. Telebista inteligentekin lehian sartuko da, hala, mahaigaineko kontsola berria.

Ahots bidezko kontrola

Xbox-ari aurrerantzean aginduak "berba" eginez emango zaizkio. Iziotu ere horrela egiten da gailua eta zuzenean jokoak eta multimedia edukiak leku berean aurkezten dituen menua agertuko da: telebista kateak, bideoak, musika... Telebista inteligente baten zerbitzuak emango ditu kontsola berriak eta edukiak ere bertatik banatuko dira.

Ezaugarri teknikoek dagokienez, abiaduran egin dira hobekuntzarik nabarierak, aurreko Xbox 360-aren ahalmena zortzi aldiz biderkatuta. Horretarako zortzi nukleo dituen PUZA du, 8 GBko RAM memoria, 500 GBeko barneko disko gogorra, Bluray disko optikoa, WiFi, HDMI sarre-irteerak eta USB 3.0 bidezko kanpo konektibitatea. Potentzia asko handitu diote Xbox berriari, hain zuzen.

Hardwareari buruz hori; softwarean Skype aplikazioa ekartzeak piztu du harridura baina, horrez gain, aplikazio bereziak izango ditu kirol emaitzak jarraitzeko ala telebistako kateetan emititzen denari buruzko informazioa jasotzeko, iragarri dutenez. Lainoko zerbitzuak ere eskainiko dira.

Kinet berria

Mugimendua atzemateko osagariaren ahalmena ere gaintu egin dute bertsio berrirako eta Kinect berriak erabiltzailearen bihotz-erritmoa, oreka ala orientazioa sumatu ahalko ditu. Urte amaierarako ipiniko dute salgai eta iragarri dute aurreko kontsoletarako jokoek ez dutela balioko Xbox berriari, zaleen kezak piztuz.




Xbox One kontsola. | PERU.COM

Belaunaldi berria

Kontsolaren munduan urrats berria egiteko gertu dago Microsoft azken aurkezpenarekin. Sare sozialen, gailu eramangarrien eta telebista inteligenteen eremuan bete betearen sartuko da eta garbi erakusten du edukien banaketan interesa duela ahalmen handiko jokoetara jolasteko aukera ematearekin batera. Skype-erekin, gainera, etxeko komunikazio tresna berria ere izan daiteke Xbox, joera hori ezartzen bada.

Lehia nagusiari dagokionez, Nintendok Wii berrituarekin ez du salmenta handirik lortu, oso epela izan da hasierako harrera, eta begi guztiak orain PlayStation berriari daude jarriak, zeinaren xehetasunik oraindik ez baiten ezagutu.



Deskarga bat Windows-en. | 20MINUTOS

Deskarga loturen aurkako legea gogortu gura dute

J.B. | ARRASATE

Estatu Kontseilua Kode Penalaren erreformarako aurreproiektua aztertzen dabil eta asmoa da jabetza intelektualari dagozkion artikulatuak aldatzea. Kontsultarako organoari bidalitako aurrerapenean jaso denez, hiru urtera arteko kartzela zigorrak aipatzen dira baimenik gabeko edukietara sarbidea ematen duten loturak argitaratzeagatik. Delituri larrienen kasuan, deskargen webguneak esaterako, sei urtera arteko espetxe zigorra proposatzen du dokumentuak.

Zalantza handiak

Estatu Kontseiluak eskuragarri ipinitako dokumentua zirriborroa besterik ez da oraingoz eta Ministro-Kontseilutik, Fiskalen Kontseilutik eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian aztertu eta gero, jakinarazi dute organo horiek nahiko kritikoak direla zenbait neurriren gogortasunarekin. Hala ere, ados daude aurrerantzean "jokaera tipiko" moduan izendatu gura

dituzten ekintzak gogor zigortzean eta jokaera horiek lirateke eskubidedun edozein edukiren erreproduktzio, plagio, banaketa ala komertzializazioa edo komunikazio publikoa. Sei hilabete eta 3 urtera arteko zigorrak ezarriko zaizkie delitugileei lege proposamenak aurrera eginez gero. Gainera, proposatu den testuan edozein bitartekoren bidez eginiko komunikazioa ala banaketa aipatzen da eta horren barruan sartuko lirateke P2P sareen bitartez ala mugikorren artean egindako partekatzeak ere. Testuak dakarren beste berrikuntza deigarri bat da irabazi asmoaren aipamena eta balizko delitugilea edonor izan daiteke aurrerantzean. Aurreko legeetan lukuru asmoa aipatzen bazen ere, orain esaten da onura zuzen ala zeharkakoa eskuratzen duen edonor dela delitugilea, aipatu barik atzean jarduerak ekonomikoki batek egon behar duela, irabazteko asmoa, eta hortaz edozein erabiltzaile egon daiteke lege berriaren jomugan.

Samsung marka hausten dabil Galaxy S4arekin

J.B. | ARRASATE

Bere errekorra hausten dabil Samsung Galaxy S4 modeloarekin. Apirilaren 26an mundu erdian salgai ipini zutenetik hamar milioi

telefonotik gora saldu ditu. Arrakasta ikusita, modelo bera lau kolore diferentetan aterako dutela iragarri berri dute. S3 bertsioak ere arrakasta handia izan zuen

merkatu gehienetan eta 4 modelo horren bertsio hobetua da gaitasun eta ahalmen aldetik.

Ezaugarriak

iPhone-aren benetako aurkari moduan aurkeztu zutenak arreta handia piztu du. Pantaila Full HD delakoa da, iPhoneak baino pixel gehiagorekin. Software-an ere hobekuntza nabariarekin etorri


da apiriletik eskuratu daitekeen modelo, batez ere, asistente lanak egiten dituzte aplikazioengatik eta argazkien kalitatearengatik. Gainera, Google Now aplikazioarekin dator Galaxy S4a, tresna benetan adimentsua, eta Google-en potentzia guztiaz baliatzen gaizka dena.

Bateria eta memoria aldetik ere gaitasun handiko gailua da

Samsung-ena, hortik izan duen harrera ikusgarria. Bitxikerien artean, telefonoa gai da begirada jarraitu eta erabiltzailearen keinuak irakurtzeko eta horrek ere erabiltzaile askoren arreta erakarri du. NFC teknologia ere badauka eta aplikazioen administrazio sisteman erabilgarritasunean askogatik gaintzen du iOS-ek egin dezakeena.

Bateria, 20 segundotan kargatuta

Bateria bat 20 segundotan kargatzeko gauza den superkondensadore bat sortu berri du Eesha Khare estatubatuarrek. 50.000 dolarreko Intel saria jaso du asmakuntzarengatik. Erabiltzearekin batera atzera ere kargatzen den bateria da.



Ahots bidezko bilaketak egin daitezke Chrome berriarekin

Google-en Chrome nabigatzailearen azken eguneraketak berrikuntza oso berezia ekarri du. Aurrerantzean bilaketak ahotsez egin ahal izango dira. Nabigatzailea eguneratu eta Google-en bilatzailean sartuta, bilaketa koadroan mikrofono txiki baten botoia agertzen da. Ahotsa atzemateko gauza da bilatzailea.

Ekainaren 10ean izango da Apple-en urteko Keynote-a

WWDCarekin batera, ekainaren 10ean, aurkeztuko du Tim Cook-ek eta Apple-en urteko iragarpen eta apustu nagusiak azalduko dituzte. Orduan jakingo da hainbeste aldiz aipatutako erlojua ala iPhone berria aurkeztuko duten ala bestelako ze nobedade aurkeztuko dituzten hurrengo hilabetei begira.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGAZure etxea
auzian

Bada *Divinity* katean AEBetan ekoiztutako saio arraro bat. Hain da arraroa, erakargarria ere iruditzen zaidala.

Argumentua simplea da: bere etxea eraberritu ala etxe berri bat erostean artean aukeratu behar du atal bakoitzeko protagonistak (?). Programak ez du beste eginkizunik; eta inozokeri horrekin betetzen du telebista kate horrek bere eguneroko programazioaren zati handi bat. Ulertzen ez dudana da bertan agertzen diren familien argumentuak eta arrazoiak.

Bataz beste, euren etxeen balioa 600.000 eurokoa da, alegia, ez dira preseski erdi edo behe mailako langile familia xumeak... eta kexu dira, euren txalet erraldoia txiki geratu zaiela argudiatuz. Txiki? Etor daitezela gure 50 metro koadroko pisu ziztrin batera euren handikeria erakustera. Bertan lan egiten duten diseinatzaileek gainera, etengabe ari dira eraikinen funtzionaltasuna gorai patzen. 300 metro koadroko txalet bat funtzionala al da ba?

Saio horrek benetan sinistarazi nahi ote digu Amerikako Estatu Batuetako familia normalek horrelako etxe puskek dituztela? Hitz gutxitan: egongela berria nahi? Ba joan txakurren salara!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 27



'Harmailatik'

Natra Oñatiko saskibaloiko jokalariek Plascencian jokatuako partiduen berri eman-godigute. | 21:57

12:00 Magazinea
13:00 Ekogune
13:30 Zorion agurrak
13:36 Pedalka
14:06 AsteON
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion agurrak
15:23 AZK2012
16:23 Pedalka
16:53 Zorion agurrak
16:58 Berriak
17:28 Eguraldia
17:31 Onein: Olagarroa plantxan
17:54 Berbetan: Iñaki Irigoien
18:24 Jaiak: Bergarako jaiak
19:14 Beranduegi.tv
19:39 Zorion agurrak
19:44 Berriak
20:09 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean Gaur
21:30 Berriak
21:55 Eguraldia
21:57 Harmailatik
22:42 Magazinea
23:42 Berriak
00:07 Eguraldia

MARTITZENA, 28



'Magazinea'

Antton Zubia oñatiarrakasteburuan herrian eman duen bizikleta tailerrari buruz hitz egingo digu. | 20:15

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:15 Zorion agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:53 Onein: Patata txalupa
16:33 AsteON
17:03 Zorion agurrak
17:08 Berriak
17:33 Eguraldia
17:36 AZK2012
18:06 Altxorraren bila
18:38 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
18:58 Harmailatik
19:43 Zorion agurrak
19:48 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean Gaur
21:30 Huhezinema
22:00 Berriak
22:25 Eguraldia
22:30 Magazinea
23:15 Klaketa
23:55 Berriak
00:20 Eguraldia

EGUAZTENA, 29



Elikadura hizpide

Elikaduraren egunaren harira, Amaia Diaz de Monasterioguren dietista elkarrizketatuko dugu. | 20:20

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:18 Harmailatik
14:03 Pedalka
14:38 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:53 Onein: Begihandia
16:29 Harmailatik
17:14 Huhezinema
17:44 Zorion agurrak
17:49 Berriak
18:14 Eguraldia
18:16 Ikusi irratia: Olarius&Brothers
18:56 Berbetan: Iñaki Irigoien
19:26 Beranduegi.tv
19:48 Zorion agurrak
19:52 Berriak
20:17 Eguraldia
20:20 Magazinea
21:05 Gurean Gaur
21:35 AsteON
22:05 Ekogune
22:35 Berriak
23:00 Eguraldia
23:02 Magazinea
23:47 Harmailatik
00:32 Berriak
00:57 Eguraldia
01:00 Magazinea

EGUENA, 30



'Pedalka'

Alpeak bizikletaz zeharkatu ditu Julen Iriondok eta saioaren beste atal bat eskainiko dizuegu. | 21:50

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:10 Huhezinema
13:40 Ikusi irratia: Olarius&Brothers
14:20 Onein: Olagarroa plantxan
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusi irratia: Olarius&Brothers
15:53 AZK2012
16:23 Berriak
16:48 Eguraldia
16:51 Onein: Zainuri pastela
17:19 Planik bai?
17:39 Hitzlandia
18:06 Huhezinema
18:36 Onein: Patortilloa
19:03 Zorion agurrak
19:08 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
19:28 Planik bai?
19:48 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:15 Gurean Gaur
21:50 Pedalka
22:20 Planik bai?
22:40 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Klaketa
00:33 Berriak
00:58 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 31



'AsteOn'

Astean zehar gertatutako albiste esanguratsuenak errepasatuko ditugu AsteOn saioan. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Gurean Gaur
13:30 Onein: Patata txalupa
14:10 Pedalka
14:40 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Planik bai?
15:33 AZK2012
16:03 Ikusi irratia: Olarius&Brothers
16:43 Beranduegi.tv
17:13 Zorion agurrak
17:19 Planik bai?
17:39 Berriak
18:04 Eguraldia
18:07 Planik bai?
18:27 Altxorraren bila
18:59 Zorion agurrak
19:05 28 klip
19:37 Beranduegi.tv
20:02 Zorion agurrak
20:07 Berriak
20:37 Eguraldia
20:42 Planik bai?
21:02 Gurean Gaur
21:29 Pedalka
22:00 AsteON
22:30 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
22:50 Berriak
23:15 Eguraldia
23:18 AsteON
23:48 Planik bai?
00:08 Berriak
00:33 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

'Flamenko Etxea' ikuskizunerako sarrerak zozketan

Amaia antzokian eskainiko dute ekainaren 8an *Flamenko Etxea* izeneko ikuskizuna. Bada, bertarako joateko sarrerak zozketatuko ditugu asteen Arrasate Irratian. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on!

Amaia Albes diseinatzailea elkarrizketatuko dugu

Bihar, martitzena, elkarrizketatuko dugu Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra *Igo autobusera!* irratsaioko elkarrizketen atalean 11:00etan. Prestatu duen XIX. mendeko soineko berezia izango dugu hizpide eta baita eguaztenean parte hartuko duen desfilea ere, besteak beste.

Kepa Urteaga kultura zinegotzia, eguaztenean 107.7an

Hilabete eskas gelditzen da Arrasateko San Juan jaiak ospatzeko eta jaiak iritsi aurretik egin behar diren lanei buruz hitz egingo dugu Kepa Urteaga kultura zinegotziarekin. Egitaraua edo aurrekontua izango ditugu berbagai, besteak beste, eguaztenean *Igo autobusera!* saioan egingo diogun elkarrizketan.

TELE-ALBISTEAK

Huhezinema jaialdian ikasleek aurkeztutako lanak Goiena telebistan

MUko Huzezi fakultateko 3 eta 4. mailako ikasleen lanak ikusi ahal izango dira martitzenetan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia Huzezi fakultateko (Mondragon Unibertsitatea) Komunikazio gunean sortu zen 2008. urtean. Aurten seigarren aldiz ospatu da jaialdia eta ikasleen lehiaketan parte hartu zuten lanak ikusi ahal izango dituzue bihar-tik aurrera Goiena telebistan.

Ikasleen lanak

Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten dabilten hiru eta laugarren mailako ikasleek, taldetan banatuta, euren lanak aurkeztu

zituzten lehiaketara; hirugarren mailakoek dokumentalak aurkeztu zituzten eta laugarrenekoek fikziozko film laburrak eta bideo-klipak. Bada, dokumental eta fikziozko film labur bakoitzarekin, saio bat eskainiko dizuegu telebistan eta bideo-klip guztiak batuko dituen beste saio bat ere ekoiztuko dugu.

Horieta saio bakoitzean dokumentalean edo fikziozko film laburrean lanean ibili diren taldekideekin egongo gara. Beraiek euren lana nola egin duten kontatuko digute, zein zailtasun izan



Huhezinema jaialdia antolatzen ibili den aurtengo taldea. | FLICKR.COM

Martitzenetan 21:30ean eskainiko dugu 'Huhezinema', uztailera bitartean

dituzten lana aurrera eramateko eta zer den ikus-entzunezko munduan gehien gustatzen zaiena. Egileak gertutik ezagutu ostean, euren lana proiektatuko dugu *Huhezinema* izeneko saioan.

Bihar, martitzena, hirugarren mailako ikasle talde batek egingo dako 0-0 izenburuko dokumentalarekin estreinatuko dugu saioa. Bertan epaile baten eguneroko bizitzan oinarritutako objektotasuna lantzen da.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Lidia Aramendi Diaz
Ekainaren 2an, 3 urte.
Ondo-ondo pasatu daizula zure urtebetetze eguna; dantzariak be inguruan ibiliko dia eta disfrutau, txotita! Mila muxu aittatxo, amatxo eta Xabat txikinaren partetik!



OÑATI
Naxo Lizarralde
Ekainaren 2an, 5 urte.
Zorionak eta urte askotarako familikoen partetik. Ondo pasatu eguna eta buelta gutxi barraketan, eh!



BERGARA
Naroa Ugarte Leturia
Ekainaren 2an, 8 urte.
Zorionak, bihotza! Gure altxorra handituz doia urtero-urtero, hau suertia! Mila patxo Garazi, Libe, Ximun, Hur, Jon, Noa, aittatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
Aratz Domenech Iñarra
Maiatzaren 30ean, 6 urte.
Primeran ospatuko dugu, ezta? Oso ondo pasatu eta muxu potolo-potolo bat familia guztiaren eta, bereziki, aittatxo, amatxo eta Gorkaren partetik.



ESKORIATZA
Maider Hernandez Baños
Maiatzaren 30ean, 10 urte.
Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bana etxeko danon eta, bereziki, aittatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
Aratz Sotil Barrio
Maiatzaren 30ean, 4 urte.
Zorionak, txapeldun! Lau urte! A zelako mutiko handixa daukagun! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat etxeko danon eta, bereziki, Sara eta Unairen partetik.



BERGARA
Suhar Agirrebeña Sanchez
Maiatzaren 30ean, 7 urte.
Zorionak, Suhar! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ANTZUOLA
Jone Garaikoetxea Iturbe
Maiatzaren 29an, 5 urte.
Zorionak! Muxu handi bat eta ondo pasatu!



ARRASATE
Haizea Errasti Canales
Maiatzaren 29an, urtebete.
Zorionak, sorgina! Urte bat. Ze handia zaren! Patxo Aitor, Alazne eta Juneren partetik.



OÑATI
Jesus Mari Lizarralde
Maiatzaren 29an, urtebetetzea.
Zorionak, aittaita, Etxahun eta Itsasneren partetik. Bixar ekarri goxokiak. Ondo pasatu zure eguna.



BERGARA
Manex Arana Garitano
Maiatzaren 29an, 2 urte.
Zorionak, politxoi, Peio eta etxeko danen partetik.



ARRASATE
Maximo Uribesalgo Bengoa
Maiatzaren 29an, urtebetetzea.
Zorionak, aita, aittaita! Egun ona pasatu, ondo ospatuko-eta! Patxo pila etxekuen partetik.



ARETXABALETA
Ainize Ibabe Sillero
Maiatzaren 27an, 9 urte.
Zorionak, printzesa! Musu pototo-potolo bat etxeko guztien partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muak.



ARRASATE
Malen eta Ainize Bautista Vega
Maiatzaren 26an, 4 urte.
Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen eguna. Muxu handi bat familiaren partetik. Aupa Zigarrola!



OÑATI
Artiom Erostarbe Igartua
Maiatzaren 26an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun, eta patxo handi bat amatxo, aittatxo, Angelina eta familia osoaren partetik.



ARRASATE
Danel Navarro Vicente
Maiatzaren 26an, urtebete.
Zorionak, maittia. Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu asko etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Libe Agirre
Maiatzaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Aurten ere ederto ospatu genuen zure urtebetetze eguna. Jarraitu beti bezain alai. Zorionak eta patxo handi bat maite zaitugunon partetik!



OÑATI
Izar Isasti Azkoitia
Maiatzaren 25ean, 4 urte.
Zorionak, Pipi! Txokolatezko laztanak etxeko danon eta, bereziki, Julen, Iker, Alaitz eta Liberen partetik. Egun ederra pasatu! Muxuak, bihotza!



OÑATI
Arantxa, Ioseba eta Garazi.
Maiatzaren 25an. Zorionak, hirukote! Ondo-ondo pasa ezazu zure urtebetetze eguna. Tarta goxo batekin... ospatuko? Muxu bana etxeko danon partetik. Mua!



BERGARA
Ander Oregi Alberdi
Maiatzaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi-handi bat, Maddi, aittatxo eta amatxoren partetik.



ANTZUOLA
Ekain Irizar Fernandez
Maiatzaren 25ean, 3 urte.
Zorionak, artista! Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat aittatxo, amatxo eta Izaroren partetik.




ARRASATE
Galder Arroibe Garcia
Maiatzaren 24an, urtebete.
Zorionak, Galder! Muxu handi bat etxeko partetik, batez be, Anartz eta Jonek.



ARETXABALETA
Lur Artolazabal Martinez
Maiatzaren 24an, 5 urte.
Oso ondo pasatu zure eguna eta zurekin ospatzera joango gara familia guztia. Patxo handi-handiak zuretzat, maittia, denon partetik.



ARRASATE
Long eta Jun Vivar Alutiz
Longek maiatzaren 22an, 3 urte eta Juneke ekainaren 3an, 4 urte.
Zorionak, potxolito eta poxpolina! Muxu potolo bana. A ze parea karakola eta balea...!



ESKORIATZA
Zuhaitz Legorburu Ezeiza
Maiatzaren 21ean, 4 urte.
Zorionak, txapeldun! Zelako handi zauden! Ondo pasatu eguna amama, Ekaitz eta Ilargiren partetik.



OÑATI
Izar Salazar Igarzabal
Maiatzaren 21ean, 5 urte.
Zorionak etxeko danon eta, bereziki, zure ahizpatxo Iratiren partetik, printzesa! Muxu asko eta egun polita pasatu!



ARRASATE
Alaitz Etxebarria Maortua
Maiatzaren 20an, 7 urte.
Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ESKORIATZA
Maialen eta Ibai Lazkano Herrasti
Maiatzaren 19an, 9 urte.
Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
 Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

OROIGARRIA

Iñaxi Iriondo Zabaleta

Oñatin hil zen 2013ko maiatzaren 24an.

Beste batzuentzat zenuen zuk zenuen guztia, dena hazi alabak, bilabak eta ez bat ez beste ez zena zure sinesmenekiko fidel

fideletan fidelena goi haiek eta gure bihotzek zuretzat leku onena Agur Iñaxi, ederra izango da zure oroitzapena.

Beti maiteko zaituen familia
 Oñatin, 2013ko maiatzaren 27an.

OROIGARRIA

Mikel Illarramendi Zabaleta

Betiko gure bihotzetan, Txitxa!

Bas eta Bittor, Petti, Andoni eta Amaia, Lierni eta Patas, Josetxo eta Ane, Antxon eta Axun, Aitor eta Idoia, Gorka eta Ana, Itziar, Jokin, Oihana eta gu guztion seme-alabak. Eskoriatzan, 2013ko maiatzaren 27an.

JAIOTAKOAK



Pablo Narbaiza Petrelli
 Elorrio. 4,100 Kilo. Maiatzaren 18a. Gurasoak: Manuela eta Sabino. Argazkian, Pablo jaioberria sehaskan.



Uxune Unamuno Barona
 Arrasate. 3,990 Kilo. Maiatzaren 18a. Gurasoak: Leire eta Igor. Argazkian, Uxune amarekin.



Aitziber Etxezarreta Mugika
 Antzuola. 3,370 Kilo. Maiatzaren 20a. Gurasoak: Aintzane eta Txomin. Argazkian, Aitziber amaren besoetan.



Maialen Luengo Idigoras
 Eskoriatza. 3,850 Kilo. Maiatzaren 19a. Gurasoak: Olaia eta Juan Ignacio. Argazkian, Maialen sehaskan lo.



Jule Galdos Madariaga
 Arrasate. 3,270 Kilo. Maiatzaren 19a. Gurasoak: Naiara eta Iker. Argazkian, Jule gurasoekin.



Ghita Daoudi Ouhalli
 Bergara. 4 Kilo. Maiatzaren 17a. Gurasoak: Saadia eta Mohamed. Argazkian, Ghita jaioberria sehaskan.



Jare Okariz Garcia
 Arrasate. 4,040 Kilo. Maiatzaren 20a. Gurasoak: Oihana eta Iban. Argazkian, Jare ahizpa Junerekin.



Beñat Urteaga Unanue
 Aretxabaleta. 3,370Kilo. Maiatzaren 23a. Gurasoak: Amagoia eta Jon. Argazkian, Beñat jaioberria aitarekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Zaldi emea	* Kirol olinpiarra	Biko taldetan
Kopeta		Irudi geometrikoa	Nasa, molla
Ibar			
Erregeen ingurua			
Logura	Ezkertiarren kolorea		
Intsektuak	... egin, obeditu		
Borroka armatuak			Bokala
Pl., musika lana			Suari dariona
			Nor atzikia
Kontsonantea	Bokala	Urania	Bizkaiko herria
Begi estalkiak	Tona, labur-labur	Azkenekoa	50

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

B	E	T	A	Z	A	B
A	K	L	U	N	K	
	K	A	T	A	K	
A		R	A	G		
K		O	R	O	Z	
A		R	I	G	L	
N		H	A	R	A	
I		K	O	K		
B		B		B		

Ezetz igarri!
 distanzia berera.

AI, ENE!

Surrealismo maila berriak

Iturria jarri zuen iturginarena, harria moztu zuen igeltseroarena edo balekoa eman zuen bezeroarena; zeinena da artelan hau? www.elconfidencial.com



AHOBERO

"Kostatzen zaigun arren, arropa ez da sexualitatearekin nahastu behar"

BELEN ALONSO | KAZETARIA

"Nire alaba probokatzen ariko al da?" da, albokoarekin batera, *Telediarrio*-an eman zuten albiste baten agertzen zen beste esaldi bat. Egungo TVEko informatiboek *NO-DO*-aren antza dutela salatu dute hainbatek, eta ez dirudi oso errata dabiltzanik... www.rtve.es

EGURALDIA



Max. 19°

Min. 7°

Eguraldia okertu egingo da eta zaparrada trumoiatsuak izateko aukera egongo da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-05-27

HAMARREKOA

Adela Gonzalez Bikiak izan eta telebistatik aparte egon ostean, aurkezle moduan esparru ugartan eskarmentua duen lasartearra 'ETB Hoy' saioko debatearekin itzuli da pantaila txikira | TXOMIN MADINA

"Zaila da moderatzaile moduan zure iritzia ez ematea"

1. Bada hilabete pasatxo saioa hasi zela; gustura?

Oso pozik. Debateen kontuak bere ezaugarri propioak ditu; batez ere, denborarekin tertuliakideekin sortu behar den konplizitatea. Pozik nago; programa erritmo eta tonu ona hartzen ari da.

2. Moderatzailea izanda, zure iritzia ez emateak ez dirudi erreza...

Galderak pentsatu behar dira, eta burutik pasatzen zaizun lehen gauza ez esaten saiatu: zuk galderak egiten dituzu, besteak dira iritzia ematen dutenak. Zaila da, baina praktika kontua ere bada.

3. Gaur egun debateak inoiz baino beharrezkoagoak al dira?

Eztabaidatzea beti da beharrezkoa. Esparru denetako eta profil ideologiko ezberdinetako jendearen iritzia entzutea aberasgarria da ez bakarrik telebista publiko baten-dako, baita gizartearentzat ere.

4. Zerk ezberdintzen du zure debatea besteetatik?

Euskadiko ikuspuntuak. Ez da gauza bera ustelkeria edo lan erreformak leku geografiko batetik edo bestetik lantzea. Ezberdintzen gaituen idiosinkrasian zentratu behar dugu. ETBen egindako saioa da Euskadiko jendearentzat.

5. Gaurkotasanak zein puntura arte sortzen du mendekotasuna?

Ad infinitum. Gailu mugikorrek, aukera asko dituzu eskura: lanetik irten eta beti begira nabil. Etxean irratia beti piztuta dut.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Hiru ukitu, hiru desio"

"Bihotzez nahiko nuke langabezia tasa zero izatea; denok izatea lana eta errealizatzeko aukera. Osasunean, alzheimer eta minbizia ezabatuko nituzke, maite nituen bi pertsona horienatik galdu nituen-eta. Hirugarren ukituan eskatuko nuke nire bikiak, Eneko eta Andrea, osasuntsuak izatea eta euren bizitzan gauzak ondo joatea".

6. Ama izan zara. Gizona bazina, horri buruz galdetuko nizuke?

Zergatik ez? Egun, eta nire senarra horren adibide da, gizonak umeen eta etxeko lanen partaide egiten dira ez %50ean, %80an edo %100ean baizik. Galdera egin beharko zenidake; kazetari moduan muga horiek gainditzen joan behar dugu.

7. Bide batez, nola doa kontua?

Oso ondo moldatzen naiz, senarra bete-betean inplikatzeko da-eta. Bera ez balego, ezingo nintzateke antolatu. Uztartzen dut. Zaila dela? 22:00etan nekatuta amaitzen dudala? Bai; baina ez dut uste bakarrik naizenik edo beste emakume askok baino meritu handiagoa dudanik.

8. Zapping egiten bazabiltza, zeren aurrean geratuko zara?

Gauean ikusten dut telebista. Informatiboekin zapping asko egiten dut nor eta zertan dabilzan ikusteko. Entretenu eta, batez ere, barrea eragiten didan zerbaitekin geratzen naiz; hainbeste kontu gogorren inguruan egiten dugu berba...

9. Zapatu gauetan, zein plan?

Umeen hazkuntzan nagoen honetan, eguen edo astelehen bateko plan bera. Hilabete batzuk barru hasiko naiz irteten. Baina atseden hartzearekin, afari on batekin, pozik!

10. Iñaki Lopez ikustea esango zenuela uste nuen...

Bai, ez da bateraezina. Baina zapping asko egiten dut; batzuetan Iñakirekin geratzen naiz engantxatuta. Oso ondo egiten du, ezta?

AZKEN BERBA

IXIDOR SOLUPE ZULAIKA



Esaerak eta loturak

Asteburuan, Peru Arlotegabeitiaren (Peru Arlote bezala ezaguna) *Arlotadas, cuentos y susedidos vascos* irakurtzen egon nahiz barre algaraka. Hurrengo egunean pentsatzen jarri nintzen, Arlotek Euskadin, bizi dugun egoera politiko-ekonomiko-sozial larriari nola erantzungo zion. Idazten hasi eta hemen duzue:

"Nahi eta ezin" - Iñigo Urkullu lehendakaria.

"Egin ez eta egiten utzi ere ez" - Patxi Lopez.

"Zuri-beltz" - Laura Mintegi.

"Hor konpon Mari Anton" - Martin Garitano.

"Primeran terserako biletarekin" - PP eta UPyD.

"Hobeto nahi bez" - PSE-PSOE-EE."

Akerrak, adarrak okerrak, ahariak, adarrak bihurriak" - EH-BILDU eta EAJ.

Gaizka Fernandez Soldevilla historialariak *Héroes, heterodoxos y traidores* liburuan, azaltzen du ETA(pm)-en trantsizioa EIA eta geroago Euskadiko Ezkerra eta PSE-PSOEn integrazioa arte, orain, ETA(m) SORTU-rekin egiten ari den berbera dela. Ez nintzateke harririk, zortzi-hamar urte barru egunkarietan irakurriko banuke izenburu hau: *PSE-PSOEk, Euskadiko ezker (EE) alderdi berri bat BILDU eta SORTU du*.

R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

Konbinatu

GRADUATUAK +
EGUZKITAKO
GRADUATUAK

97€

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan